

FORU ARAUA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGARENA

HITZAURREA

Pertsona fisikoaren tributazioari lotutako arloan, bereziki, ezinbestekoa da ekitate, progresibotasun, neutraltasun, gardentasun eta sinplifikazioaren printzipioak sendotzea, bai eta haien arteko oreka handiagoa ezartzea ere.

Neutraltasunari dagokionez, berrikusi eta doitu egiten da zenbait zerga onurari ematen zaien tratamendua —esaterako, errenta salbuetsi, murrizpen eta kenkariei ematen zaiena—, gastu eta sarreraren politikek elkarrekin gorde behar duten harremana sendotzearen. Aurretik, dena dela, onuraren eraginkortasuna aztertu da, bikoiztasunak kendu dira eta aldatu egin dira ezarri zirenean zuten xederako gaur egun egokitzen ez direnak.

Ekitatearen printzipioari dagokionez, zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen dituen abenduaren 27ko 13/2012 Foru Arauan abiarazitako irizpideei jarraitzen zaie, zeinek zabaldu egin baitzuten indarrean zegoen tarifa, eta tasa handiagoak zituzten tarte berriak sortu, bai likidazio oinarri orokorrean, bai aurrezkiaren likidazio oinarrian.

Gaitasun ekonomikoaren printzipioari dagokionez, tresna normatibo berriak eman behar zaizkio jarduera ekonomikoaren etekinen tributazioari, benetan lortutakoak baino sarrera gutxiago aitortzen baitira eta kengarriak ez diren gastuak ere bai; hortaz, tresna horien bidez zaildu egin nahi da halako errentak ezkutatzeko, eta iruzurraren aurkako neurriak ere ezarriko dira.

Bada, helburu horiek guztiak lortzeko foru arauaren proposamen hau aurkeztu dugu, zeinak hamalau titulu dituen, hogeita hiru xedapen gehigarri, hogeita zortzi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bi.

I. titulua zergaren izaerari eta aplikazio eremuari buruzkoa da. II. tituluan, *numerus clausus*ak ezartzen dira hainbat izaeratako iturriren ondoriozko errententzat. Izan ere, nahiz eta errentok gaitasun ekonomikoaren benetako indizea eta zergaren zerga egitatearen parte izan, orain arte zerga honetan tributatzetik salbuetsi dira, politika fiskaleko hainbat arrazoi direla medio.

Horrenbestez, arautegi berriak mantendu egingo du osorik salbuetsita dauden errenten katalogoa: batzuk, gizartearen duten islagatik —esaterako, sari bereziak, beka publikoak edo laguntza publikoak—; beste batzuk, kalte-ordain izaera izateagatik —adibidez, ordainketa bakarreko modalitatean jasotako langabezia prestazioak eta administrazio publikoek ordaindutako kalte-ordainak—. Halakoek ez dute zerga betebeharririk izango. Bada, errenta horiekin batera, foru legegileak sendotu egin du zenbateko batera arte salbuetsita egongo diren errenten zerrenda; zenbateko horretatik aurrera, baina, gaitasuna zergapetu egingo da. Hala egin du, adibidez, justizia sozialagatik eta tributu karga banatzeagatik, orain arte errenta salbuetsi osotzat jo diren langileak kaleratu eta kargugabetzeagatik ematen diren kalte-ordainekin. Ondorioz, haien zenbateko salbuetsia ezingo da 180.000 euro baino handiagoa izan. Halaxe arautu zen uztailaren 17ko 5/2013 Foru Arauan —zerga iruzurraren aurkako neurriei, kredituak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzkoan—, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Errenta salbuetsien arloan sartzen den berrikuntzarik handiena iruzurraren aurka borrokatzeko helburu iraunkorrari lotuta dago, borroka horren ardatzean, beste tresna batzuen artean, zerga administrazioak zergadunaren gaitasun ekonomikoari buruz duen informazio kopurua baitago. Informazio horrek, hain zuzen ere, edozein kontzepturengatik eta edozein

administrazio publiko edo entitatetatik jasotzen diren errenta guztiak hartu behar ditu aintzat, bai eta zergadunari eragiten dioten eta haren tributatzeko betebeharra modulatzan duten inguruabar pertsonal eta patrimonialak ere, tributatuak direla-eta haiei ematen zaien tratamendua edozein dela ere.

Horretarako, foru arauaren proposamen honek, bere azken zatian, administrazio publikoei informazioa emateko betebeharrak berriak ezartzen dizkie edozein motatako diru laguntza edo errentak —salbuetsiak edo ez— ordaintzen dituzten entitateei, informazioa emateko eredu tributario bat erabiliz. Zerga administrazioak, horrela, zergadunak lortzen dituen errenta guztien gaineko informazioa izango du eskura, eta, horri esker, errazago egingo zaio beste administrazio publikoekin batera borrokatzea laguntza eta diru laguntza jakin batzuk iruzurrez jasotzen dituzten pertsonen kontra.

III. titulua zergadunari buruzkoa da eta IV.a, luzeena, berriz, oinarri ezargarriari buruzkoa. Eta oinarri ezargarriaren barruan zehazten dira aurreikuspen hauei buruzko zehaztapenak: arau orokorrak, lan etekinak, jarduera ekonomikoak, kapitalaren etekinak, ondare irabazi eta galerak, errenten egozpen eta esleipena, denboraren arabera egozketa, baloratzeko erregela bereziak, errenta motak, eta errenten integrazioa eta konpentsazioa.

Etekin irregularren arloan, goitik behera berrikusten da etekinok integartzeko sistema: integrazio murrizturako egungo portzentajeak mantentzen dira, eta 300.000 euroko muga kuantitatiboa ere bai.

Jarduera ekonomikoen etekinei dagokienez, bukatu egin da Gipuzkoako Lurralde Historikoko araudian orain dela 10 urte baino gehiago hasitako bidea, alegia, zenbatespen objektiboko metodoaren aplikazio eremua aldi berean murriztekoa, pertsona fisikoak diren enpresaburuen tributazioa haien jardueraren benetako etekinera hurbiltzearen. Horrenbestez, indargabetu egiten da metodo hori, eta halako jarduera ekonomikoen etekina, 2014ko urtarilaren 1etik aurrera, zuzeneko zenbatespenaren metodoa erabiliz zehaztuko da, modalitate arruntan eta erraztuan.

Pertsona fisikoak diren enpresaburuen tributazioa eta sozietate diren erakundearen tributazioa parekatzearen, jarduera ekonomikoetatik eratorritako oinarri ezargarri negatibo aplikatu gabeak konpentsatzeko pertsona fisikoek duten epea bost urtetik hamabost urtera handituko da, bai eta jarduera ekonomiko horietan sortutako kenkariak aplikatzeko epea ere, kuota nahikoa ez izateagatik ezin izan baziren aplikatu.

Orobat azpimarratu behar da aldatu egin direla higiezinaren errentamendua edo salerosketa jarduera ekonomikotzat jotzeko irizpideak. Aurrerantzean, orain arte bezala, beharrezkoa izango da gutxienez pertsona bat kontratatuta izatea, lanaldi osoan eta dedikazio eskusiboarekin, baina, hemendik aurrera, ez dira halako pertsonatzat hartuko zergadunaren ezkontidea, izatezko bikotea, aurrekoak, ondorengoak edo bigarren mailara arteko alboko ahaideak, ez eta zergadunari lotutzat jotzen diren pertsonak ere. Aurrekoa osatzeko eta horrelako jarduerak gaur egungo egoera profesionalean nola egiten diren aintzat hartuta, aurrerantzean ez da bete behar jarduera horren kudeaketa horretarako modu eskusiboan erabiltzen den lokal batean egiteko betebeharra: kendu egingo da betebeharrak hori.

Kapitalaren etekinei dagokienez, etxebizitzaren azpierreteamenduaren tratamendua parekatu egiten da etxebizitzaren errentamenduak duenarekin, eta azaroaren 24ko 29/1994 Legeko 2. artikuluan xedatutakoaren arabera joko dira halakotzat. Gastu kengarriak muga izango du, azpierreteamendutik datozen etekinaren % 20, hain zuzen, eta, horrela, mugatu egingo da etekin negatiboa edo zero etekina sortzeko zegoen aukera, kasu batzuetan fiktizioa ere bazena.

Aurrekoa osatzeko, kostubidearen presuntzioa ezarri da, zerga administrazioak jasota duenerako zergadunaren titulartasuneko higiezinak errentamenduan laga direla eta ez dela inolako etekinik konputatu. Presuntzio hori higiezinaren balorazioaren % 5 izango da, Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren Foru Arauan ezarritakoarekin bat.

Zergaren oinarri ezargarriko murrizpenen arauketan ere zenbait aldaketa egin dira. Gizarte aurreikuspenaren arloan, oro har, 5.000 euroko muga mantentzen zaie ekarpen indibidualei, eta baita ere integrazio portzentaje murriztua bost urtean behin ezin aplikatu izatea, kontingentziak gertatzeagatik jasotako zenbatekoen kasuan eta, hala badagokio, aurreikuspen sistemetako eskubide ekonomikoak erreskatatzen direnean. Edonola ere, enpresen kontribuzioen muga 8.000 eurokoa da, eta ekarpen zein kontribuzioen murrizpenen baterako muga 12.000 eurotan mantentzen da.

Sistema ixteko tresna moduan, tributuen arloko logika duen prebentzio bat ezartzen da, eta, haren bidez, mugatu egiten da oinarri ezargarri orokorreko murrizpenen tratamendua, zergaldi berean aldi berean daudenean gizarte aurreikuspeneko erakundeei egiten zaizkien ekarpenak, batetik, eta erretiro kontingentziaren edo erreskateen ondorioz kapital gisa jasotzen diren prestazioak, bestetik. Salbuespen izango dira, dena dela, enplegu planei eta desgaitasuna duten pertsonen gizarte aurreikuspeneko tresnei egindako ekarpenak.

VI. tituluan, kuota osoari buruzkoan, funtsezko aldaketa bat egiten da. Horrela, aurreko arauketan kenkari orokor bat zegoen, oinarri likidagarri orokorrean tarte salbuetsia kentzea leuntzen zuena. Arauketa berrian, oinarri likidagarri orokorreko konpentsazio hori aplikatu ordez kopuru berean gutxitu egingo da kuota, neurri horrek zergaren oinarri likidagarri orokorrari dagokion tarifa aplikatzen duten zergadunei zuzenduta egon behar baitu, eta ez aurrezpenaren oinarri likidagarriari dagokiona aplikatzen dutenei. Hori dela-eta, kuota oso orokorra txikitu baino ez da egingo, baina hori aplikatzearen ondorioz kuota ezingo da negatiboa izan.

Ekitatearen izenean, indarrean dagoen tarifa handitu egin da, eta tarte berriak sartu dira tasa altuenetan. Oinarri likidagarri orokorrean 92.310 eurotik aurrera. Tasa marginal altuena % 49 izango da 179.460 eurotik aurrera. Halaber, aurrezpenaren oinarri likidagarria berriro diseinatu da, zeinak % 25eko tributazioa ezarriko duen 30.000 eurotik aurrera.

VII. titulua kuota likidoari eta kenkariari buruzkoa da: familiarrak eta pertsonalak, desgaitasuna duen pertsonaren ondare babestuari egindako ekarpenenak, ohiko etxebizitzarenak, jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak, dohaintzenak eta beste batzuk. Kenkari pertsonalei dagokienez, mugatu egiten da adinagatik egiten zena, eta 30.000 euro baino txikiagoak diren errentak dituzten zergadunei bakarrik aplikatuko zaie. Pertsonen desgaitasun edo mendetasunagatik dagoen kenkariari dagokionez, pertsona horrekin batera bizitzeko betebeharra ezartzen da, logikoa denez, eta kenkarirako eskubidea ematen duten pertsonak egoitzetan bizi badira, kenkaria mailarik gertueneko ahaideek egingo dute, baldin eta, agiriak aurkeztuta, frogaturik uzten badute ahaidearen egoitzako egonaldi gastuak eurek ordaindu dituztela.

Etxebizitzarako dauden kenkarietan, ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik dagoen kenkaria zergaldian ordaindutako zenbatekoen % 20 izango da aurrerantzean ere, urteko 1.600 euroko mugarekin. Era berean, hogeita hamar urtetik beherakoei eta familia ugarien titularrei portzentaje handitua ezartzen jarraituko da. Etxebizitza eskuratzearen kasuan, etxebizitzan ekitaldian zehar inbertitutako zenbatekoei eta zergaldian ordaindutako interesei egiten zaien kenkaria % 15etik % 18era igoko da, eta urteko muga 1.530 eurokoa izango da. Hogeita hamar urtetik beherakoei eta familia ugarien titularrei ezarriko zaien portzentaje handitua % 20tik % 23ra igoko da, eta urteko muga 1.955 eurokoa izango da. Zergadun bakoitzari etxebizitza eskuratzeagatik kenduko zaizkion zenbatekoen batura igo egingo da,

30.000 eurotik 36.000 eurora. Bi kenkari horietan portzentaje handituak ezarri ahal izateko adina hogeita hamabost urtetik hogeita hamar urtera jaitsiko da.

Kenkarien atala amaitzeko, mugatu egiten dira langileek enpresan parte hartzeagatik dagoen kenkaria, eta dohaintzen ondoriozko kenkaria, langileen sindikatuei ordaindutako kuoten ondoriozko kenkaria eta alderdi politikoei ordaindutako kuoten eta eginiko ekarpenen ondoriozko kenkaria, eta, aurreko araudiak biltzen dituen zerga onuren eraginkortasuna handitzearen, kendu egiten da jarduera ekonomiko berrien hasieran inbertitzeko kreditu entitateetan egindako gordailuek zuten kenkaria.

Oraingo egoera ekonomikoarekiko koherentziagatik, bi zerga pizgarri berri sartzen dira. Batetik, kultura ekintzailea bultzatzeko eta norberaren konturako lana sustatzeko helburuarekin, jarduera ekonomikoetatik irabaziaz izan dituzten lehenengo bi ekitaldietan zehar eratorritako etekin garbiaren murrizpen bat ezartzen da, eta jarduera ekintzailea hasi zenetik bost urteko denbora muga du. Bestetik, enplegua eta balio erantsia sortzen duten enpresa proiektuen garapena bultzatzeko helburuarekin eta sorrera berriko enpresek pertsona fisikoak diren zergadunengandik datozen funts propioak erakartzearen alde egiteko, % 20ko kenkaria ezartzen da hurbileko inbertsiogilearentzat edo *business angel*-entzat.

Negoziatzeko onartuta dauden baloreen ondoriozko ondare irabaziei aplikatu beharreko araubideari dagokionez, haientzako tratamendu berria jaso da xedapen gehigarri batean, zeinaren bidez baloreok eskualdatzen dituzten zergadunek aukeratu dezaketen edo baloreon eskualdaketa ondorengo irabazia kalkulatzeko dagoen araubide orokorra aplikatzea, edo eskualdaketa balioaren gaineko % 3ko karga berezia aplikatzea, baldin eta balio hori 10.000 euro baino txikiagoa bada zergaldi bakoitzean eskualdatutako balore guztiei dagokienez. Aukera horren bidez, batetik, burtsan transakzio txikiak egiten dituzten zergadunek modu errazean likidatu ahal izango dute zerga, eta, bestetik, zerga administrazioak beste tresna bat izango du zerga errazago kudeatzeko.

X. titulua baterako tributazioaren ingurukoa da, eta berritasun azpimarragarri bat jasotzen du, zeinak mugatu egiten dituen modalitate horretan tributatzeko aukerak. Atzemandako zenbait portaerek erakusten dute hautsi egiten dela aukera horrek duen espiritua; hortaz, kautela bat ezartzen da, zeinak ezinezko egiten duen modalitate horretan tributatzea gurasoek elkarrekin bizitzen jarraitzen badute, nahiz eta legezko banantzea gertatu edo ebazpen judizialaren bidez adierazi ez dagoela haien arteko loturarik.

Azkenik, eta xedapen iragankorrei dagokienez, azpimarratu behar da zenbait neurri ezartzen direla orain indargabetuko den 10/2006 Foru Arauak dituen idazpenetan jasotako erregulazio jakin batzuen babesean sortutako egoerak babesteko. Horrela, trantsizio neurriak onartu dira aldatu diren zenbait tributu tratamendutan, eta haien artean, 2014koaren aurreko zergaldietan murriztu gabe dauden gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako gehiegizko ekarpenei dagokiena nabarmendu behar da. Halaber, jarduera ekonomikoaren hasieran inbertitzeko kreditu erakundeetan jarritako gordailuek duten kenkariaren araubide iragankorra azpimarratu behar da, bai eta enpresa berri edo osatu berrien kapitalizazioa errazteko neurriak ere, zeinak babestu egin nahi dituen foru arauaren proposamen hau indarrean jarri aurretik kontzeptu honengatik ekarpenak egin dituzten zergadunak. Alpagarria da, baita ere, mantendu egiten dela 2012ko urtarrilaren 1a baino lehen eginiko ohiko etxebizitzaren eskuraketei une hartan ezargarri zitzaizkien araubidea.

I. TITULUA. ZERGAREN IZAERA ETA APLIKAZIO EREMUA

1. artikulua. Xedea.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga zuzeneko tributu bat da, izaera pertsonal eta subjektiboa duena eta pertsona fisikoen errentak kargatzen dituen foru arau honetan xedatutako eran.

2. artikulua. Aplikazio subjektiboko eremua.

Foru arau honetan xedatutakoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondoko zergapekoei aplikatuko zaie:

1. Zergadun gisa:

a) Hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera ohiko bizilekua Gipuzkoan duten pertsona fisikoei.

Familia unitateko zergadunek ohiko bizilekua lurralde desberdinetan eduki eta batera tributatzea aukeratzen badute foru arau honetako 96. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Gipuzkoako Foru Aldundian tributatuko dute oinarri likidagarririk handieneko kidearen ohiko bizilekua Gipuzkoan dagoenean.

Oinarri likidagarririk handiena kalkulatzearen ondorioetarako, bizilekua Gipuzkoan ez duten zergadunei propio dagokien araudia aplikatuko zaie.

b) Foru arau honetako 4. artikularen 1. eta 2. apartatuetan ezarritakoaren arabera ohiko bizilekua atzerrian duten pertsona fisikoei, apartatu horietan jasotako eran.

2. Kontura ordaindu behar duen pertsona gisa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergagatik atxikipenak eta konturako sarrerak egitera behartuta daudenei, baldin eta konturako ordainketa horien zenbatekoak Gipuzkoako Foru Aldundian ordaindu behar badira Ekonomia Itunaren 7.etik 11. artikulura bitartean xedatutakoarekin bat etorritik.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa xedatuta ere, atxikipenak eta konturako sarrerak administrazio kontseilueta, hauen ordezkari batzordeetako eta beste ordezkari organoetako administrazioaile eta kideek jasotako ordainsarien gainean egiten direnean, etekinak edozein motatako entitateen funts propioetan parte hartzeagatik lortzen direnean, eta, orobat, interesak eta gainerako kontraprestazioak obligazioetatik eta antzeko tituluetatik datozenean, foru arau honetan xedatutakoa aplikatuko da baldin eta entitate ordaintzaileari Sozietateen gaineko Zergaren Gipuzkoako araudia aplikagarri bazaio.

3. artikulua. Ohiko bizilekua.

1. Pertsona fisiko batek ohiko bizilekua Gipuzkoako Lurralde Historikoan duela ulertuko da honako erregelak elkarren segidan aplikatuz:

1.a Zergaldiko egun gehienak Euskal Autonomia Erkidegoan emanik, Gipuzkoan egindako egun kopurua Euskal Autonomia Erkidegoko beste bi lurralde historikoetako bakoitzean egindakoa baino handiagoa denean.

Lurralde jakin batean zenbat denbora eman den zehazteko, kanpoan eman diren aldi baterako egonaldiak konputatuko dira, salbu eta frogatzen bada zerga egoitza beste herrialde batean dagoela. Zerga egoitza paradisua fiskaltzat kalifikatutako herrialde edo lurraldeetako

batean dagoenean, urte naturaleko 183 egun bertan eman direla frogatzeko exijitu ahal izango du zerga administrazioak. Bestelakorik frogatzen ez bada, pertsona fisiko bat Gipuzkoan bizi dela joko da pertsona horren ohiko etxebizitza lurralde honetan dagoenean.

2.a Interesen gune nagusia Gipuzkoan duenean. Kasu honetan ulertuko da pertsona fisiko batek Gipuzkoan dituela bere interesik gehienak: zerga honen oinarri ezargarriaren zatirik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan lortua izanik, Gipuzkoan lortutako oinarri ezargarriaren zatia beste bi lurralde historikoetako bakoitzean lortutakoarena baino handiagoa denean. Bi ondorio horietarako, kapital higigarritik eratorritako errentak eta ondare irabaziak eta egotzitako oinarri ezargarriak hortik kanpo geratzen dira.

3.a Zerga honen ondorioetarako aitortu duen azken egoitza Gipuzkoan dagoenean.

Lehenengo erregela aplikatuta ere zergadunaren ohiko bizilekua zein lurraldetan dagoen —komun edo foralean— zehaztea ezinezkoa gertatzen bada, orduan bigarren erregela aplikatuko da. Lehen eta bigarren erregeletan xedatutakoa behin aplikatu ondoren zirkunstantzia bera gertatzen denean, orduan hirugarren erregela aplikatuko da.

2. Lurralde espainiarrean egoiliar diren pertsona fisikoek ez badute bertan ematen 183 egun baino gehiago urte naturalaren barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliartzat hartuko dira beren jardura enpresarial edo profesionalen gune nagusi edo basea edo beren interes ekonomikoena lurralde horretan kokaturik dagoenean.

Aurreko paragrafoan jasotakoaren arabera pertsona fisikoen ohiko bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan dagoenean, pertsona horiek Gipuzkoan bizi direla joko da beren jardura enpresarial edo profesionalen gune nagusi edo basea edo beren interes ekonomikoena lurralde horretan kokatzen bada.

3. Pertsona fisiko bat lurralde espainiarreko egoiliarra dela uste bada, legez banandu gabeko ezkontideak eta bere menpe dauden adingabeko seme-alabek ohiko bizilekua Gipuzkoan dutelako, pertsona fisiko horren ohiko bizilekua Gipuzkoan dagoela ulertuko da. Uste horren aurka kontrako froga aurkez daiteke.

4. Ohiko bizilekua aldatzen denean, honako irizpideak izango dira kontuan:

a) Gipuzkoan bizi den zergadunak ohiko bizilekua beste lurralde batera —komun edo foralera— aldatzen badu, edo ohiko bizilekua beste lurralde batean —komun edo foralean— izanik bizileku hori Gipuzkoara aldatzen badu, egoitza berriari dagokion lekuan beteko ditu, une horretatik aurrera, bere zerga obligazioak, egoitza berria konexio puntutzat hartzen denean.

Horretaz gain, eta ondoren datorren b) letran ezarritakoaren indarrez iritzi behar bada egoitza ez dela lekuz aldatu, zergadunek beren ohiko bizilekua dagoen lurraldeko zerga administrazioari aurkeztuko dizkiote aitopenenak, berandutza interesak ere bertan ordainduta.

b) Bizileku aldaketek ez dute ondoriorik izango helburu nagusia zerga gutxiago ordaintzea denean.

Bizileku berrian egiten diren egonaldiak gutxienez eta etenik gabe hiru urtetik gorakoak direnean ulertuko da bakarrik bizileku aldaketa egon dela. Honako zirkunstantzia hauek gertatzen direnean, ordea, ez da bizileku aldaketarik egongo:

1.a Bizilekua aldatu den urtean edo hurrengoan zerga honen oinarri ezargarria bizilekua aldatu aurreko urtekoa baino gutxienez % 50 handiagoa denean.

Familia unitatea osatzen duten pertsona fisikoek tributazio modu desberdinak — banakakoa edo baterakoa— aukeratu badituzte aurreko paragrafoan aipatu diren urteetan, tributazio erak homogeneizatu egingo dira paragrafo horretan aipatzen diren oinarriak alderatzeko, eta, horretarako, behar diren indibidualizazio arauak aplikatuko dira, hala badagokio.

2.a Egoera hori gertatzen den urtean, zerga honengatik ordaindutakoa aldaketa egin aurreko lurraldean aplikatzen den araudiaren arabera ordainduko zena baino txikiagoa denean.

3.a Aurreko 1. zirkunstantzian aipatutako egoera gertatu eta hurrengo urtean, edo horren ondorengoan, ohiko bizilekua berriz ere hasierako lurraldean kokatzen denean.

5. Espainiak izenpetutako nazioarteko itunetatik eratortzen diren arau bereziak ezin aplikatu daitezkeenean, ohiko bizilekua Gipuzkoan duten atzerritarrak ez dira zergaduntzat joko —elkarrekikotasun baldintzarekin—, betiere zirkunstantzia hori foru arau honetako ondoko artikuluan jasotzen diren kasuetako baten ondorioz gertatzen bada.

4. artikulua. Zergak derrigorrez ordaintzeko kasu bereziak.

1. Nazionalitate espainiarra duten pertsonen, legez banandu gabeko haren ezkontideari edo adingabeko seme-alabei foru arau hau aplikatuko zaie, baldin eta, zerga honetarako Gipuzkoan onartuta dagoen zerga araudira lotuta egonik, ohiko bizilekua atzerriara aldatzen badute gisa honetako pertsonak izateagatik:

a) Espainiako misio diplomatikoetako kideak, barruan sartuta bai misioburua eta bai pertsonal diplomatiko, administratibo, tekniko edo zerbitzuetakoa.

b) Espainiako bulego kontsularretako partaideak, barruan sartuta bai haien burua eta bai haiei atxikitako funtzionarioak nahiz zerbitzuko langileak. Kanpoan uzten dira ohorezko kontsulordeak, ohorezko kontsulatu-agentek eta horien menpeko langileak.

c) Espainiako Estatuko kargu edo enplegu ofizialen titular direnak, nazioarteko erakundeen aurrean kreditatutako delegazio eta ordezkaritza iraunkorretako partaide gisa aritzen direnean edo atzerrian dauden delegazio edo misioetan begirale lana egiten dutenean.

d) Atzerrian izaera diplomatiko edo kontsularrik gabeko kargu edo enplegu ofizial bat betetzen duten funtzionario aktiboak.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoarentzat lan egiten duten funtzionarioak edo kontratupeko langileak, Euskal Autonomia Erkidegoak atzerrian dituen bulegoetara bidaliak izan badira.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoa ez da aplikatuko ondoko kasuetan:

a) Bertan aipatzen diren pertsonak aktiboan dauden funtzionario publikoak ez direnean edo kargu edo enplegu ofizialik ez dutenean, eta aurreko apartatu horretan aipatutako baldintzetako edozein bete baino lehen ohiko bizilekua atzerrian dutenean.

b) Legez bananduta ez dauden ezkontideak edo adingabeko seme-alabak izanez gero, ezkontideetako batek —ama zein aita izan— aurreko 1. apartatuan zerrendatutako baldintzak bete baino lehenago jarri dutenean ohiko bizilekua atzerrian.

3. Lurralde espainiarrera aldatzeagatik zerga egoitza Gipuzkoan kokatzen duten pertsona fisikoek aukera izango dute Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergagatik tributatzeko, bizilekua aldatzen den zergaldian eta hurrengo bostetan, Pertsona Fisikoen

Errentaren gaineko Zergaren zergadunak izateari utzi gabe, betiere honako baldintzak betetzen badira erregelamenduz ezartzen den eran:

a) Bereziki kualifikatutako lanak egiteko etortzea lurralde espainiarrera, baldin eta lan horiek, zuzenean eta nagusiki, ikerketa eta garapen jarduerarekin erlazionatuta badaude. Ondorio horietarako, ikerketa eta garapen kontzeptuak Sozietateen gaineko Zergaren foru arauan definitutakoak dira.

b) Lurralde espainiarrera etorri aurreko hamar urteetan Espainian egoiliarrek ez izatea.

c) Toki aldaketa hori lan kontratu baten ondorioz gertatzea. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da Espainiako enplegu-emaile batekin harreman laboral bat, arrunta zein berezia, nahiz harreman estatutario bat hasten denean, edo, toki aldaketa enplegu-emaileak aginduta izanik, honen aldetik toki aldaketaren gutuna dagoenean, eta zergadunak ez dituenean lortzen lurralde espainiarrean kokatutako establezimendu iraunkorraren bidez lortutakotzat kalifikatuko liratekeen errentak.

d) Lanak benetan Espainian egitea. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da lanen zati bat atzerrian egina izan arren, betiere lan horiei dagozkien ordainsarien batura urte natural bakoitzean jasotako lan kontraprestazio guztien % 15etik gorakoa ez bada. Ez da kontuan hartuko ordainsari horiek lurralde espainiarrean lortutako errentatzat hartzen diren Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Legeko testu bategineko 13. artikulua 1. apartatuko c) letran jasotakoaren arabera. Lan kontratuan ezarritakoaren indarrez zergadunak funtzioak hartzen baditu bere gain taldeko beste enpresa batean eta lurralde espainiarretik kanpo, Merkataritza Kodeak 42. artikuluan jasotako eran, aurreko muga % 30ekoa izango da.

Atzerrian egindako lanengatik jasotako berariazko ordainsarien zenbatekoa frogatzerik ez dagoenean, lan horiei dagokien ordainsaria kalkulatzeko langileak atzerrian eman dituen egunen kopurua hartuko da kontuan.

e) Lan horiek egitea egoitza Espainian duen enpresa edo entitate batentzat edo, bestela, lurralde espainiarrean egoiliarra ez den entitate batek bertan kokatua duen establezimendu iraunkor batentzat. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da zerbitzu horien onuradunak honako hauek direnean: egoitza Espainian duen enpresa edo entitate bat edo, bestela, lurralde espainiarrean egoiliarra ez den entitate batek bertan kokatua duen establezimendu iraunkorra. Toki aldaketa enpresa talde baten barruan gertatu bada, Merkataritza Kodeak 42. artikuluan ezarritakoari jarraiki, eta bakar-bakarrik ondorio hauetarako, beharrezkoa izango da langilea egoitza Espainian duen taldeko enpresak kontratatzea edo lurralde espainiarrera egin beharreko toki aldaketa enplegu-emaileak agintzea.

f) Lan harreman horretatik eratortzen diren lan etekinak Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergatik salbuetsita ez egotea.

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergagatik tributatzea aukeratzen duen zergaduna obligazio errealegatik Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergari lotuta geratuko da.

5. artikulua. Itunak eta hitzarmenak.

Foru arau honetan jasotakoak ez du ezertan ere eragotziko Espainiako barne ordenamenduaren parte diren nazioarteko itun eta hitzarmenetan xedatutakoak.

II. TITULUA. ZERGA-GAIA

6. artikulua. Zerga-gaia.

1. Zergadunak errenta bat lortzea hartzen da zerga-gaitzat, errenta hori non sortu den eta ordaintzailearen egoitza non dagoen kontuan izan gabe.

Foru arau bidez ezartzen diren errenta egozpenak ere errenta lorpentzat joko dira.

2. Zergadunaren errentatzat hartuko dira:

- a) Lanaren etekinak.
- b) Jarduera ekonomikoen etekinak.
- c) Kapitalaren etekinak.
- d) Ondarearen irabazi eta galerak.
- e) Foru arau bidez ezartzen diren errenta egozpenak.

3. Oinarri ezargarria zehaztu eta Zerga kalkulatzeko aldera, bi motatakoa izango da errenta: orokorra eta aurrezpenarena.

7. artikulua. Errenten zenbatespena.

Lanaren eta zerbitzuen prestazioak eta ondasun eta eskubideen lagapenak ordaindutzat joko dira, foru arau honetan ezarritako eran.

8. artikulua. Zergari lotu gabeko errentak.

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari lotuta dauden errentak ez dira egongo zerga honi lotuta.

9. artikulua. Errenta salbuetsiak.

Errenta hauek egongo dira salbuetsita:

1. Epaileen erabaki adela bide, mantenurako urteko gisa gurasoengandik jasotzen direnak.

Tratamendu bera emango zaie abenduaren 7ko 1618/2007 Errege Dekretuak — Elikagaien Ordainketa Bermatzeko Funtzaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoak—, araututako Elikagaien Ordainketa Bermatzeko Funtsetik jasotako kopuruei.

2. Terrorismo ekintzen ondorioz jasotako prestazio publikoak.

3. Gizarte Segurantzak edo haren ordezkoko entitateek ezintasun iraunkor absolutuagatik edo elbarritasun handiagatik zergadunari aitortzen dizkioten prestazioak, bai eta 55 urte baino gehiago dituzten zergadunek ezintasun iraunkor osoagatik jasotako prestazioak ere.

Ezintasun iraunkor osoaren kasuetan, salbuespena ez zaie aplikatuko foru arau honetako 18. artikulua a) letran aurreikusitakoez bestelako lan errentak edo jarduera ekonomikoen errentak jasotzen dituzten 55 urtetik gorako zergadunei. Ondorio horietarako, ez dira lan etekintzat joko lehendik emandako zerbitzuen trukean jasotako izaera sinbolikoko sariak —diruzkoak zein gauzazkoak—, urteko 600 euroko mugarekin. Kopuru hori erregelamendu bidez aldatu ahal izango da.

Dena den, aurreko paragrafoan aipatutako bateraezintasuna ez da prestazioa lehendabiziko aldiz jasotzen den zergaldian aplikatuko.

Era berean, aurreko paragrafoetan aipatutako egoera berdinengatik jasotako prestazioak badira, honako hauek egongo dira salbuetsita:

- Norberaren konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzaren erregimen berezian sartuta ez dauden profesionalei onartutako prestazioak, Gizarte Segurantzaren erregimen berezi horren ordezkotza gisa jarduten diren gizarte aurreikuspeneko mutualitateek onartuak direnean.

- Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateek kooperatibetako bazkideei onartutako prestazioak.

Aurreko paragrafoan jasotako bi kasuetan, Gizarte Segurantzak zeinahi den kontzeptugatik onartzen duen gehieneko prestazioa izango da zenbateko salbuetsiaren muga. Soberakinak lan etekin moduan tributatu du, eta, Gizarte Segurantzaren prestazioak eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko mutualitate edo entitateenak aldi berean jaso direnean, soberakina azken horien prestazioetan gertatu dela ulertuko da.

Halaber, zahartasun eta elbarritasunari buruzko derrigorrezko aseguruaren pentsioak salbuetsita egongo dira pentsioen zergatia zergadunaren elbarritasuna denean.

4. Klase pasiboen erregimenean ezgaitasun edo ezintasun iraunkorragatik jasotako pentsioak, baldin eta arrazoiak izan den lesio edo gaixotasunak pentsioaren jasotzailea erabat ezgaitu badu edozein lanbidetan jarduteko, edo, bestela, zergaduna 55 urtetik gorakoa bada eta ez badu foru arau honetako 18.a) artikuluan aipatutakoen bestelako lan etekinik edo jarduera ekonomikoen etekinik jasotzen.

Aurreko paragrafoko azken xedapenak aipatutako bestelako errentak jasotzeko bateraezintasunaren ondorioetarako, ez dira lan etekintzat joko lehendik emandako zerbitzuen trukean jasotako izaera sinbolikoko sariak —diruzkoak zein gauzazkoak—, beti ere, urteko 600 euroko mugarekin. Kopuru hori erregelamendu bidez eguneratu ahal izango da.

Horrez gain, bateraezintasun hori ez da ezarritako zergadunak 55 urtetik gora izan eta pentsioa lehen aldiz jasotzen duen zergaldian.

5. Langilea kaleratu edo kargugabetzeagatik ematen diren kalte-ordainak, Langileen Estatutuan, bere erregelamenduzko garapenean edo, halakorik balego, sententziak betearazteko araudian nahitaezko izaeraz ezarritako zenbatekoan. Ezin izango da halakotzat hartu hitzarmen, itun edo kontratu bidez ezarritakoa. Era berean, Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak 103. artikulua 2. apartatua xedatutakoaren aplikazioz, kooperatiban baja hartzeagatik bazkideak jasotzen dituen kalte-ordainak ere salbuetsita egongo dira, lan araudiak Langileen Estatutuko 52. artikulua c) letran aipatzen den kargugabetze kasuetarako nahitaezko izaeraz ezartzen duen zenbatekoan.

Aurreko paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, Langileen Estatutuaren 51. artikulua xedatutakoaren arabera egiten diren kaleratze kolektiboen kasuan, edo aipaturiko estatutuaren 52. artikulua c) letran aurreikusitako arrazoiak direla medio amaitutako kontratuetan, betiere bai kasu batean bai bestean arrazoiak ekonomikoak, teknikoak, antolaketakoak, produkziokoak edo halabeharrezkoak badira, edo sektore publikoko lan arloko langileei dagokionez Estatutuak hogeigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako kaleratzeetan, jasotako kalte-ordaina salbuetsita geratuko da estatutu horretan bidegabeko kaleratzeetarako zehaztutako nahitaezko mugak gainditzen ez dituen zatian. Ordezkapen kontratu baten indarrez lan harremana deuseztatu eta jarduera laborala lehenago uzteagatik langileek jasotzen dituzten kopuruak ere muga horiekin egongo dira salbuetsita.

Aurreko paragrafoetan aurreikusitako edozein kasutan salbuetsitako gehieneko kopurua ez da 180.000 euro baino gehiago izango. Muga hori bakarra izango da kaleratze edo kargugabetze bakoitzeko, edozein dela ere kalte-ordaina ordaintzeko modua.

6. Pertsonen eragindako kalte fisiko, psikiko edo moralengatik erantzukizun zibilaren ondorioz ematen diren kalte-ordainak, legez edo judizialki onartzen den zenbatekoan.

7. Aurreko zenbakian adierazitako kalte mota berdinengatik aseguru kontratuen bidez jasotzen diren zenbatekoak, 150.000 euroraino. Lesioak prestazioaren jasotzailea desgaitzen badu edozein lanbide edo jardueratan aritzeko, kopuru hori 200.000 eurokoa izango da, eta gainera, jasotzaileak beste pertsona bat egotea behar badu eguneroko eginbehar oinarritzkoenetarako, orduan 300.000 eurokoa izango da muga.

8. Literatura, arte edo zientzia sariak edo giza eskubideen defentsari eta sustapenari lotutako sariak, erregelamenduz zehazten diren baldintzetan.

9. Beka publikoak eta irabazi asmorik gabeko entitateek emandakoak, betiere Espainian nahiz atzerrian hezkuntza sistemaren maila eta gradu guztietan, unibertsitateko hirugarren zikloraino, ikasketak egiteko jasotzen badira. Irabazi asmorik gabeko entitateen kasuan, beren bekak salbuetsita daude, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko araudia aplikaziozkoa zaienean.

Honako hauek ere salbuetsita egongo dira: urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuak —ikertzaile bekadunaren Estatutua onartzen duenak— definitzen duen alorreko ikerketetarako herri administrazioek eta aurreko paragrafoan aipatutako irabazi asmorik gabeko entitateek emandako bekak, eta orobat, entitate horiek herri administrazioetako funtzionarioei eta gainerako langileei nahiz unibertsitateetako irakasle eta ikertzaileei ikerketak egiteko emandakoak.

10. Pertsonak etxean hartzeagatik herri erakundeetatik jasotzen diren zenbatekoak.

11. 1936-1939 bitarteko gerra zibilaren ondorioz zauriak edo mutilazioak jasan zituzten pertsonen alde onartutako pentsioak, dela Estatuko Klase Pasiboen erregimenaren bitartez, dela horretarako egindako legeria bereziaren babesean.

12. Ekainaren 20ko 1/1994 Errege Dekretu Legegileak onartutako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testu bategiren II. tituluaren IX. kapituluak arautzen dituen familia laguntzak, eta Gizarte Segurantzaren eta klase pasiboen erregimen publikoetatik jasotzen diren zurtasun pentsioak eta hartzeko pasiboak nahiz hogeita bi urtetik beherako biloben eta anai-arreben alde edo lan orotarako desgaitutakoen alde onartutakoak.

Era berean, norberaren konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzaren erregimen berezian sartuta ez dauden profesionalei erregimen berezi horren ordeko gisa jarduten diren gizarte aurreikuspeneko mutualitateek onartzen dizkieten prestazioak, eta, orobat, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateek kooperatibetako bazkideei onartutakoak salbuetsita egongo dira, betiere aurreko paragrafoan aipatutako egoera berdinengatik jasotako prestazioak badira. Gizarte Segurantzak zeinahi den kontzeptuagatik onartzen duen gehieneko prestazioa izango da zenbateko salbuetsiaren muga. Soberakinak lan etekin moduan tributatuko du, eta, Gizarte Segurantzaren prestazioak eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko mutualitate edo entitateenak aldi berean jaso direnean, soberakina azken horien prestazioetan gertatu dela ulertuko da.

Salbuetsita daude, baita ere, jaiotzagatik, erditze anitzagatik, adopzioagatik, adopzio anitzagatik, kargupeko seme-alabengatik eta zurtasunagatik jasotzen diren gainerako prestazio publikoak.

Amatasuna dela-eta autonomia erkidegoetatik edo toki erakundeetatik jasotzen diren prestazio publikoak ere salbuetsita egongo dira.

13. Kasuan kasuko entitate kudeatzaileak onartutako langabezia prestazioak, ekainaren 19ko 1.044/1985 Errege Dekretuaren bidez ezarritako ordainketa bakarreko modalitatean jasotzen direnean, baldin eta jasotako zenbatekoak aipatutako errege dekretuan ezarritako helburuetara bideratzen badira eta bertan aipatzen diren kasuetan ematen.

Zergaduna sozietate laboraletan edo lan elkartuko kooperatibetan sarturik badago edo ekarpen bat egin badu merkataritzako erakunde baten kapitalera, aurreko paragrafoan adierazi den salbuespena aplikatu ahal izateko ezinbestekoa izango da akzioari edo partaidetzari bost urtez eustea. Langile autonomoen kasuan, nahitaezkoa izango dute bost urteko epean ere jarduerarekin jarraitzea.

14. Maiatzaren 28ko 9/1993 Errege Lege-Dekretuan —Osasun Sistema Publikoaren jardueren ondorioz giza immunoeskasiaren birusa (GIB) dutenei laguntzak ematekoa— eta ekainaren 5eko 14/2002 Legeko 2. artikuluan —hemofilia edo bestelako jaiotzetiko koagulopatiak dituzten pertsonentzako gizarte laguntzak ezartzekoa— xedatutakoa aplikatzeagatik jasotako gizarte laguntzak.

15. Goi-mailako kirolariei ematen zaizkien laguntza ekonomikoak, eskudun diren erakundeek ezarritako prestakuntza programetara egokitutakoak direnean, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan.

16. Nazioarteko bake misioetan edo nazioarteko misio humanitarioetan parte hartzeagatik jasotzen diren aparteko haborokin eta prestazio publikoak, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan.

17. Atzerrian egindako lanengatik jasotzen diren lan etekinak, honako baldintza hauek betetzen badira:

1.a Lan horiek Espainian egoitzarik ez duen enpresa edo entitate batentzat edo atzerrian finkatutako establezimendu iraunkor batentzat egitea, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan. Bereziki, gertatzen bada lanak hartu behar dituen entitateak lotura bat duela langilea enplegatu duen entitatearekin edo haren zerbitzuak jasotzen dituen enpresarekin, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 44. artikulua 1. apartatuan aurreikusitako baldintzak bete beharko dira.

2.a Lanak egiten diren lurraldean zerga honen antzeko edo pareko zerga bat aplikatzea, eta herrialde edo lurralde hori paradisu fiskaltzat kalifikatuta ez egotea. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da, lanak egiten diren herrialde edo lurraldeak nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmena sinatua duenean Espainiarekin eta hitzarmen horretan informazioa elkarri trukatzeko klausula jasotzen denean.

Atzerrian emandako egunetan sortu diren ordainsariei aplikatuko zaie salbuespena, eta urtean 60.100 eurokoa izango da gehienez.

Gehienezko zenbateko hori proportzionalki gutxituko da, atzerrian guztira zerbitzuak eskaini diren urteko egun kopuruaren arabera. Erregelamenduzko eran ezarri ahal izango da nola kalkulatu den egun bakoitzeko salbuesten den zenbatekoa.

Atzerrian destinaturik dauden zergadunentzat, salbuespen hori bateraezina izango da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak tributaziotik kanpo uzten

dituen soberakinen araubidearekin, atzerrian jasotako errenten zenbatekoa edozein dela ere. Zergadunak salbuespen honen ordezkari soberakinen araubidea aplikatzea hautatu ahal izango du.

Langilearen atzerriratzeak bera enplegatu duen enpresak edo entitateak nazioz gaindikoa zerbitzu prestazio bat egiteagatik gertatu behar du. Enpresa edo entitate horrek Espainian eduki behar du egoitza.

Salbuespen hau ez zaie mugaldeko langileei aplikatuko.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren 115. artikuluko 3. apartatuan aurreikusitakoaren ondorioetarako, zergadunak adierazi egin beharko du salbuespen hau edo soberakinen araubidea aplikatzea hautatu duela, hori aplikatu nahi den ekitaldiko autolikidazioa aurkeztean. Zergaldi baterako egindako hautua aldatu egin ahal izango da epe honetan: zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea bukatzen den egunera arte, edota zerga administrazioak behin-behineko likidazioa egiten duen egunera arte, azken hau bestea baino lehenagokoa bada.

18. Errenta positiboak, horiek agerian jartzeko arrazoia hauetako bat denean:

a) Europar Batasuneko nekazaritza politikatik datozen laguntzak jasotzea, betiere honako hauengatik jasotzen badira: esne, mahats, udare, mertxika edo nektarina ekoizpena behin betiko uzteagatik; bananondo, sagasti, udareondo, mertxikondo eta nektarinondoak erauzteagatik; edo azukre erremolatxa eta azukre kanaberaren laboreak behin betiko uzteagatik.

b) Europar Batasuneko arrantza politikatik datozen laguntzak jasotzea, haien zergatia, betiere, honako hauetako bat bada: arrantza behin betiko uztea, itsasontzi baten arrantza jarudera behin betiko galdiaraztea, edo itsasontzia eskuz aldatzea hirugarren herrialde batean sozietate mistoak eratzeak edo sozietate horiek eratu direlako.

c) Arrantzontzi bat besterentzea, baldin eta hura besterendu eta urtebeteko epean, erosleak arrantzontzia desegiten badu eta hori egiteagatik Europar Batasunak laguntza ematen badio arrantza jardura uzteagatik.

d) Laguntza publikoak jasotzea, sute, uholde edo hondorapenak ondare elementuetan eragindako kalteak konpontzeko direnean.

e) Errepide bidezko garraio jardura uzteagatik laguntzak jasotzea, baldin eta administrazio eskudunak laguntza horiek emateko araudian ezarritako baldintzak betetzen dituzten garraiolariei ordaindutakoak badira.

f) Kalte-ordain publikoak jasotzea abereak nahitaez hiltzeagatik, betiere epidemiak edo gaixotasunak desagerrarazteko jarduketan barruan egiten bada. Letra honetan xedatutakoak ugalketarako animaliei baino ez die eragingo.

g) Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsetik (FEAGA), Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetik (LGENF), Europako Arrantza Funtsetik (EAF) edo horien ordezkari xede bereko funtsetatik datozen laguntzak jasotzea.

Zenbaki honetan aipatzen den errenta kalkulatzeko kontuan hartuko dira bai jasotako laguntzen zenbatekoa eta bai ondarezko elementuetan gertatzen diren ondare galerak, halakorik bada. Aurreko c) letraren kasuan, ondare irabaziak ere konputatuko dira. Diru laguntza horien zenbatekoa aipatutako elementuetan izandako galerena baino txikiagoa denean, diferentzia negatiboa oinarri ezargarrian sartu ahal izango da. Galerarik ez badago, laguntzen zenbatekoa bakarrik salbuetsiko da zergatik.

Jasotzen diren laguntza publikoak ez badira zenbaki honetan aipatutakoak, eta haien helburua ondare elementuek sute, uholde, hondorapen edo bestelako arrazoi naturalengatik jasandako kalteak konpontzea bada, konponketa kostua gainditzen duen zatiagatik sartuko dira oinarri ezargarrian. Konponketa gastuak, laguntza horren zenbatekoraino, ez dira inoiz ere kengarriak izango eta ez dira hobekuntza gisa konputatuko.

Laguntza publikoak jasotzen badira zergadunaren ohiko etxebizitza edo jarduera ekonomikoaren lokala aldi baterako edo behin betiko utzi beharra konpentsatzeko, eta horiek jasotzeko arrazoiak aurreko berberak badira, laguntza horiek salbuetsita egongo dira.

19. Mendiko finkak ustiatzen dituztenei emandako diru laguntzak, betiere finka horien kudeaketa administrazio eskudunak onartutako planekin bat egiten bada —basoak kudeatu eta mendiak antolatzeke plan teknikoekin nahiz plan desokratikoekin edo basoberritzeko planekin—, eta batez besteko ekoizpenaldia hogeita hamar urtekoa edo handiagoa bada.

20. Epaimahaikidegaiek eta epaimahaikide titular eta ordezkoez beren eginkizunak betetzeko jasotako zenbatekoak.

21. Zerbitzu publikoen funtzionamenduak pertsonengan eragindako kalte fisiko, psikiko edo moralengatik herri administrazioek emandako kalte-ordainak, baldin eta martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuak, herri administrazioen prozeduren erregelamendua erantzukizun patrimonialaren gaitan onartzekeak, jasotzen dituen prozeduren arabera ezarritakoak badira.

22. Lurperatze edo ehorzketagatik jasotako prestazioak, izandako gastu guztien zenbatekoraino.

23. Biziarteko errenta aseguruak eratzean agerian jartzen diren errentak, baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautu eta Sozietateen, Ez-egoiliarren eta Ondarearen gaineko Zergen legeak zati batean aldatzen dituen Legeak hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen dituen aurrezpen sistematikoko banakako planetatik Badajoz, foru arau honetako laugarren xedapen gehigarrian jasotako berezitasunak kontuan hartuta.

24. Foru arau honek 34. artikuluko a) eta b) letretan aipatzen dituen dibidenduak eta mozkin-partaidetzak, 1.500 euroko mugarekin urtean.

Salbuespen hau ez zaie aplikatuko inbertsio kolektiboko erakundeek banatutako dibidendu eta mozkinak ordaindu aurreko lehen bi hilabeteetan eskuratutako balore edo partaidetzetatik datozeinei, baldin eta data horren ondoren, baina epe berberaren barruan, balore homogeneousak eskualdatu badira. Baloreak edo partaidetzak ez badira negoziagarriak definituta dauden bigarren mailako balore merkatu ofizialetan —Europako Parlamentuak eta bertako Kontseiluak apirilaren 21ean emandako 2004/39/EE Zuzentarauan daude definituta, finantza tresnen merkatuari buruzkoan—, epea urtebetekoa izango da.

Era berean, salbuespen hau ez zaio aplikatuko kooperatibek ekarpenak direla-eta bazkideei ordaindutako interesari.

25. Pertsona desgaituek errenta moduan jasotako prestazioetatik eratortzen diren lan etekinak, betiere foru arau honen 72. artikuluan aipatzen diren ekarpenei badagozkie. Lanbidearteko gutxieneko soldata hiru halako izango da muga.

26. Familia inguruneko zaintzarako eta laguntza pertsonalizaturako ematen diren prestazio ekonomiko publikoak, zerbitzuari lotutakoak, betiere Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Legearen ondorio badira.

Era berean, salbuetsita dago Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Legearen 14. artikuluko 4. apartatuan familia inguruneko zaintzetarako aurreikusitako prestazio ekonomikoaren onuraduna den mendeko pertsonari emandako arreta dela-eta zaintzaile ez-profesionalak jasotzen duen ordainsaria, muga izanik onuradunari aitortutako prestazio ekonomikoaren zenbatekoa.

Aurreko paragrafoan jasotako salbuespenaren ondorioetarako, mendeko pertsonaren zaintzaile ez-profesionaltzat hartuko da ezkontidea, izatezko bikoteko laguna edo odolkidetasuna, ezkontza edo adopzio bidezko ahaidetasuneko hirugarren mailarainoko senidea, hura barne.

27. Erregelamendu bidez ezartzen diren laguntza publikoak, lurralde mailako herri administrazioek emanak direnean.

28. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren organo eskudunak baimendutako behi esnearen erreferentziazko kopuruen transferentziak direla-eta agerian jartzen diren errenta positiboak.

29. Amnistiaren urriaren 15eko 46/1977 Legeak jasotako kasuen ondorioz espetxeetako askatasun gabetzea konpentsatzeko Estatuko edo autonomia erkidegoetako legerian jasota dauden kalte-ordainak, eta baita ere gerra zibilean eta diktaduran jazarpenera edo indarkeria jasan zutenen eskubideak aitortu eta handitzen dituen eta haien aldeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 26ko 52/2007 Legean aurreikusitakoak.

30. Askatasun eta eskubide demokratikoen defentsa eta errebindikazioan heriotza eta desgaitasuna eragin duten lesioengatiko kalte-ordainak, gerra zibilean eta diktaduran jazarpenera edo indarkeria jasan zutenen eskubideak aitortu eta handitzen dituen eta haien aldeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 26ko 52/2007 Legean aurreikusitakoak.

31. Ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuan —Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortu eta biktima horiei ordainak ematekoan— aurreikusita dauden konpentsazio ekonomikoak.

32. Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikotik eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren azaroaren 29ko Agindutik —lehen aipatutako abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoko 27. artikuluan aurreikusitako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei dirulaguntza emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duena— eratorritako laguntzak. Era berean, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren xede bera duten lurraldeetako herri administrazioen laguntzak ere salbuetsita egongo dira.

III. TITULUA. ZERGADUNAK

10. artikulua. Zergadunak.

1. Foru arau honetako 2. artikulua 1. zenbakiko a) eta b) letretan aipatzen diren pertsona fisikoak dira zergadunak.

2. Nazionalitate espainiarra duten pertsona fisikoek, Gipuzkoako zerga araudiaren mende egonik, frogatzen badute beren zerga egoitza berria paradisu fiskaltzat kalifikatutako

herrialde edo lurralde batean dagoela, ez diote zerga honen zergadunak izateari utziko. Erregela hau egoitza aldatzen den zergaldian eta hurrengo lauetan aplikatuko da.

11. artikulua. Errentak esleitzea.

1. Sozietate zibilen —nortasun juridikoa izan ala ez—, banatu gabeko herentzien, ondasun erkidegoen eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 35. artikulua 3. apartatuan jasotako gainerako entitateen errentak bazkide, oinordeko, erkide edo partaideei esleitzeko zaizkie, hurrenez hurren, foru arau honetako IV. tituluko VI. kapituluaren 2. sekzioan ezarritakoari jarraikiz.

2. Errentak esleitzeko araubidea ez zaie Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateei aplikatuko, hauek Sozietateen gaineko Zerga ordainduko baitute.

3. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak ez dira Sozietateen gaineko Zergari lotuta egongo.

12. artikulua. Errentak indibidualizatzea.

1. Errenta bat zergadunak lortutakotzat joko da errentaren jatorri edo iturriaren arabera, senar-emazteen edo izatezko bikotearen araubide ekonomikoa, halakorik bada, zeinahi dela ere.

2. Etekinak jasotzeko eskubidea sortu duenari esleitzeko zaizkio bakar-bakarrak lanaren etekinak. Alabaina, foru arau honetako 18. artikulua a) letran aipatzen diren prestazioak euren alde aitortuak dituzten pertsona fisikoei esleitzeko zaizkie.

3. Jarduera ekonomikoen etekinak jarduera horiei atxikitako produkzio bideak edo giza baliabideak ohikotasunez, pertsonalki eta zuzenean bere kabuz antolatzen dituenak lortutakoak direla jotzen da.

Bestelako frogarik ezean, baldintza horiek jarduera ekonomikoen titular gisa ageri diren pertsonak betetzen dituztela joko da.

4. Kapitalaren etekinak zergadunei esleitzeko zaizkie, baldin eta zergadunak etekin horiek sortu dituzten ondare elementuen, hau da, ondasun edo eskubideen titularrak badira.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, ondasunak eta eskubideak zergadunei esleitzeko zaizkie, kasu bakoitzean aplikagarriak diren titulartasun juridikoari buruzko arauari jarraiki, eta haiek emandako edo administrazioak aurkitutako frogen arabera.

Hala dagokionean, aplikagarriak izango dira ezkontideen edo izatezko bikoteen araubide ekonomikoa arautzen duten xedapenetan jasotako ondasun eta eskubideen titulartasun juridikoari buruzko arauak, bai eta familiako kideen arteko ondare harremanei kasu bakoitzean aplikagarri zaizkien legeria zibileko manuetan ere.

Dagokion ezkontzaren araubide ekonomikoa edo ondasun araubidea arautzen duten xedapen edo itunei jarraiki bi ezkontideentzat edo izatezko bikoteko kideentzat komunak diren ondasun eta eskubideen titulartasuna erdi bana esleitzeko zaio bakoitzari, non eta beste partaidetza kuota bat ez duten justifikatzen.

Ondasun edo eskubideen titulartasuna ez denean behar bezala egiaztatzen, zerga administrazioak titulartzat jo ahal izango du zerga erregistro batean edo izaera publikoko beste batzuetan halakotzat azaltzen dena.

5. Ondare irabazi eta galerak zergadunek lortutakotzat joko dira Kapitalaren etekinak zergadunei esleituko zaizkie, baldin eta zergadunak etekin horiek sortu dituzten ondasunen, eskubideen edo gainerako ondare elementuen titularrak badira, aurreko apartatuan jasotakoaren arabera.

Justifikatu gabeko ondare irabaziak aitortutako ondasun edo eskubideen titularren arabera esleituko dira.

Aldez aurreko eskualdaketa batetik eratortzen ez diren ondasun eta eskubideen eskurapenak ondasun eta eskubide horiek lortzeko eskubidea duen edo zuzenean irabazi dituen pertsonaren ondare irabazitzat hartuko dira.

IV. TITULUA OINARRI EZARGARRIA

I. KAPITULUA ARAU OROKORRAK

13. artikulua. Oinarri ezargarria zer den.

Oinarri ezargarria zergadunak zergaldian lortutako errentaren zenbatekoa izango da, eta titulu honetan xedatutakoaren arabera zehaztuko da.

14. artikulua. Oinarri ezargarria zehaztea.

1. Oinarri ezargarria kalkulatzeko zuzeneko zenbatespenerako araubidea erabiliko da, eta, bestela, zeharkako zenbatespenerako araubidea, Zergen Foru Arau Orokorrean xedatutakoari jarraikiz.

2. Oinarri ezargarria kuantifikatzeko, ondorengo hurrenkerari jarraituko zaio:

1.a Errentak jatorriaren arabera kalifikatuko dira.

2.a Etekin garbiak, ondare irabazi eta galerak eta egotzi beharreko errentak titulu honetan aurreikusitako erregelen arabera kuantifikatuko dira.

3.a Errentak integratu eta konpentsatuko dira, beren jatorria zein den eta errenta orokor bezala edo aurrezpenaren errenta bezala sailkatuta dauden begiratuta.

Eragiketa horien emaitza oinarri ezargarri orokorra eta aurrezpenaren oinarri ezargarria izango dira.

II. KAPITULUA LANAREN ETEKINAK

15. artikulua. Lanaren etekinak zer diren

Lanaren etekintzat kontraprestazio eta onura guztiak hartuko dira, euren izena edo izaera zeinahi dela ere, diruzkoak nahiz gauzazkoak izan, betiere lan pertsonaletik edo

zergadunaren harreman laboral zein estatutariotik zuzenean edo zeharka eratorritakoak badira eta jarduera ekonomikoen etekinak ez badira.

Gauzen bidezko ordainketatzat jotzen dira ondasunak, eskubideak edo zerbitzuak dohainik edo merkatuko ohiko prezioetik behera nor bere xedeetarako erabili, kontsumitu edo lortzea, nahiz eta ematen dituenarentzat gastu erreala ez izan.

Errentak ordaintzen dituenak zergadunari zenbatekoak eskudirutan ematen dizkionean zergadunak ondasun, eskubide edo zerbitzuak eros ditzan, errenta diruzkoa dela joko da.

16. artikulua. Diruzko lan etekinak.

Besteak beste, honako hauek izango dira diruzko lan etekinak:

- a) Soldatak eta lansariak.
- b) Langabeziagatiko eta langile autonomoen jarduera eteteagatiko prestazioak.
- c) Ordezkaritza gastuengatik ematen diren ordainsariak.

d) Bidai gastuetarako dietak eta ordainketak, salbu eta lokomozio gastuak eta ostatuetan egiten diren mantenu eta egonaldikoak, erregelamendu bidez ezartzen diren muga barruan.

e) Aurreko artikuluan zerrendatu diren harremanetatik eratorritako sari eta kalte-ordainak.

17. artikulua. Gauzen bidezko lan etekinak.

1. Besteak beste, honako hauek izango dira gauzen bidezko lan etekinak:

a) Borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetako bazkide babesleek ordaindutako kontribuzio edo ekarpenak eta, orobat, azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak —Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak— arautzen dituen pentsio planen sustatzaileek edota Europako Parlamentuak eta bertako Kontseiluak 2003ko ekainaren 3an enpleguko pentsio funtsen jarduerari eta ikuskapenari buruz emandako 2003/41/EE Zuzentarauan aurreikusitako enpresa sustatzaileek egindakoak.

b) Enpresaburuek pentsioengatik hartutako konpromisoei aurre egiteko ordaindutako kontribuzio edo ekarpenak, azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak —Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak— lehen xedapen gehigarrian eta berau garatzeko araudian aurreikusitako eran, betiere ordainketa horiek guztiak prestazioekin lotutako pertsonen egozten bazaizkie. Enpresen gizarte aurreikuspeneko planekin zerikusirik ez duten aseguru kolektiboko kontratuetan borondatezkoa izango da egozpen fiskal hori, baina ordaindutako gainerako primei buruz hartzen den erabakia aseguru kontratua amaitu arte mantendu beharko da. Dena den, arrisku aseguruen kontratuetan derrigorrezkoa izango da egozpen fiskala egitea, hurrengo apartatuko f) letran xedatutakoa eragotzi gabe. Aseguru kontratuetan aldi berean erretiroa eta heriotza edo lanerako ezintasuna estaltzen direnean, egozpen fiskala ez da inolaz ere nahitaezkoa izango.

c) Etxebizitza erabiltzea karguren bat betetzeagatik edo enplegatu publiko nahiz pribatua izateagatik.

d) Ibilgailuak erabiltzea edo ematea.

e) Maileguak ematea diruaren legezko interes tasa baino txikiagoarekin.

f) Mantenu, ostatu, turismo bidaia eta antzekoengatik emandako prestazioak.

g) Aseguru edo antzeko beste kontratuengatik enpresak ordaindu dituen primak edo kuotak, hurrengo apartatuko e) eta f) letretan xedatutakoa izan ezik.

h) Zergadunaren, ezkontidearen edo izatezko bikotearen mantenu eta ikasketa gastuak, nahiz ahaidetasun harreman batengatik harekin lotuta dauden pertsonenak —ezkon ahaideenak edo izatezko bikotea osatzeak ekar ditzakeen bestelakoenak— ordaintzera zuzendutako kopuruak.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa hala izanik ere, honako hauek ez dira gauzen bidezko lan etekintzat hartuko:

a) Enpresako kantina edo jantokietan nahiz izaera sozialeko ekonomatoetan langileei prezio beheratuan produktuak saltzea. Zerbitzua eskaintzeko zeharkako formulak erabiltzea enpresako jantokietan produktuak prezio beheratuan saltzea dela joko da, haien zenbatekoa erregelamendu bidez ezartzen den zenbatekoa baino handiagoa ez denean.

b) Enplegatutako langileek gizarte eta kultura zerbitzuetarako ondasunak erabiltzea. Besteak beste, honako hauek hartuko dira halakotzat: enpresek edo enplegu-emaleek langileen seme-alabei haur hezkuntzako lehen zikloaren zerbitzua ematera bideratzen dituzten espazio eta lokalak, herri administrazio eskudunak behar bezala homologatuak beti, zerbitzu hori behar bezala baimendutako hirugarrenekin emateko egindako kontratazioa, edo zerbitzu hori eskaintzeko zeharkako formulak, betiere hauen zenbatekoak erregelamendu bidez ezartzen den kopurua gainditzen ez duenean.

c) Langileak prestatu, trebatu edo birziklatzeko kopuruak, euren jardueren garapenengatik edo lanpostuen ezaugarriengatik beharrezkoak gertatzen direnean.

d) Langileak teknologia berrietan trebatzeko kopuruak, erregelamendu bidez ezartzen den eran.

e) Langilearen lan istripuetarako edo erantzukizun zibileko aseguru kontratua dela-eta enpresak ordaindu dituen primak edo kuotak.

f) Arrisku garbiko aldi baterako aseguru kolektiboko kontratuengatik ordaindutako primak, heriotza edo elbarritasun kasuetarako direnean, erregelamendu bidez ezartzen den mugaraino.

18. artikulua. Beste lan etekin batzuk.

Honako hauek ere lan etekintzat hartuko dira:

a) Ondoko prestazioak:

1.a Gizarte Segurantzaren eta Klase Pasiboen erregimen publikoetatik jasotako pentsio eta hartzeko pasiboak, eta ezintasun, erretiro, istripu, gaixotasun, alarguntza edo antzeko egoerengatik erakunde publikoek emandako gainerako prestazioak, foru arau honetako 9. artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa hala izanik ere, jarduera ekonomikoetan aritzen direnek prestazio edo zenbatekoak jasotzen badituzte Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrak

jarduera horietarako aldi baterako ezintasuna dakarten kontzeptuetako bat dela-eta, jarduera horien etekin gisa konputatuko dira.

2.a Funtzionarioen derrigorrezko mutualitate orokorretatik, umezurtzen ikastetxeetatik eta antzeko beste erakundeetatik onuradun gisa jasotzen diren prestazioak.

3.a Jarraian zerrendatzen diren prestazio hauek:

a) Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako bazkide osoek eta haien onuradunek jasotako zenbatekoak, borondatezko edo derrigorrezko bajagatik, entitatea desegin edo likidatzeagatik, edota gaixotasun larriaren kasuan nahiz iraupen luzeko langabezia egoeretan jasotakoak barne.

Dena den, borondatezko edo derrigorrezko bajagatik nahiz entitatea desegin edo likidatzeagatik jasotako zenbatekoak oso-osorik sartzen badira, bi hilabeteko epea igaro baino, lehen borondatezko gizarte aurreikuspeneko beste entitate batean, ez dira zergaren oinarri ezargarrian sartuko.

b) Pentsio planen onuradunek jasotako prestazioak, barruan sartuta, baita ere, gaixotasun larrien kasuan edo iraupen luzeko langabezia egoeretan modu aurreratuan erabiltzen diren kopuruak, eta Europako Parlamentuak eta bertako Kontseiluak 2003ko ekainaren 3an enpleguko pentsio funtsen jarduerari eta ikuskapenari buruz emandako 2003/41/EE Zuzentarauan araututako pentsio planetatik jasotakoak.

4.a Gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin hitzartutako aseguru kontratuen onuradunek jasotako prestazioak, baldin eta haien ekarpenak, zati batean behintzat, jarduera ekonomikoen etekin garbia kalkulatzeko gastu kengarritzat hartu ahal izan badira edo zerga honen oinarri ezargarria murriztu badute.

Kontratu horietatik eratortzen diren erretiro eta elbarritasun prestazioak oinarri ezargarrian integratuko dira, baldin eta jasotako zenbatekoa handiagoa bada foru arau honetako 70. artikulua 1. apartatuko 4. zenbakiko a) letran, zortzigarren xedapen gehigarrian edo bederatzigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako baldintzak ez betetzeagatik zergaren oinarri ezargarria murriztu edo gutxitu ez duten ekarpenak baino.

5.a Enpresen gizarte aurreikuspeneko planen onuradunek jasotako prestazioak.

6.a Enpresen gizarte aurreikuspeneko planekin zerikusirik ez duten aseguru kolektiboko kontratuen onuradunek erretiro eta elbarritasunagatik jasotako prestazioak, haien zenbatekoak fiskalki egotzitako kontribuzioak eta langileek zuzenean egindako ekarpenak gainditzten dituzten neurrian. Nahitaezkoa da, betiere, kontratu horietan enpresek pentsioei aurre egiteko hartu dituzten konpromisoak bideratzea azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak onartutako Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko lehenengo xedapen gehigarrian eta lege horren garapenerako araudian aurreikusitako eran.

7.a Aurreikuspen plan aseguratuaren onuradunek jasotako prestazioak, gaixotasun larrien kasuan edo iraupen luzeko langabezia egoeretan modu aurreratuan erabilitako kopuruak barne.

8.a Mendetasun aseguruen onuradunek jasotako prestazioak, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean xedatutakoaren arabera.

b) Europako Parlamentuko diputatuei, Gorte Orokorretako diputatu eta senatariei, Euskal Autonomia Erkidegoko legebiltzarkideei, beste autonomia erkidegoetako

legebiltzarkideei, Batzar Nagusietako batzarkideei, udaletako zinegotziei eta foru aldundietako nahiz beste toki erakundeetako kideei euren kargua dela eta ordainduriko zenbatekoak, erakunde horiek bidaia eta joan-etorrietako gastuetarako ematen duten zatia betiere kanpo utzita.

Era berean, administrazio publikoek lehen aipatutako pertsonen edo goi karguei zein behin-behineko langileei kargugabetzeagatik emandako ordainsari, kalte-ordain, prestazio ekonomiko eta pentsioak.

c) Nazioarteko erakundeetan aritzen diren funtzionario espainiarrei egindako ordainketak, nazioarteko hitzarmen edo itunetan aurreikusitakoa eragotzi gabe.

d) Legez aitortutako erlijioetako ministro edo apaiz lanak betetzeagatik lortutako kopuruak.

e) Administrazio kontseiluetako eta hauen ordezkari batzordeetako administratzaile eta kideek nahiz bestelako ordezkari organoetako partaideek jasotako ordainketak.

f) Sozietateen sortzaile edo sustatzaileek euren zerbitzu pertsonalen ordainsari gisa berentzat gordetzen dituzten eskubide ekonomiko bereziak.

g) Bekak, foru arau honetako 15. artikuluan deskribatutako harremanetako batetik datozenean, foru arau honetako 9. artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe.

h) Jarduera humanitarioetan edo gizarte laguntzakoetan jarduteagatik jasotzen diren ordainketak, foru arau honetako 9. artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe.

i) Ezkontidearengandik edo izatezko bikotearengandik jasotzen diren pentsio konpentsagarriak, eta urteko mantenurako ordainketak, foru arau honetako 9. artikuluen 1. apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe.

Ez dira halakotzat joko foru arau honetako 69. artikuluen bigarren paragrafoan xedatutakoa aplikagarria denean.

j) Izaera bereziko lan harremanetatik eratorritako ordainketak.

19. artikulua. Lanaren etekin osoa.

1. Lanaren etekin osoa kapitulu honetako aurreko artikuluetan definitu diren etekin guzti-guztiek osatzen dute oro har.

2. Alabaina, apartatu honetan zerrendatzen diren kasuetan, lanaren etekin osoa kapitulu honetako aurreko artikuluetan definitu diren etekinen zenbateko osoari portzentaje hauek aplikatuz kalkulatu da:

a) Lanaren etekinak bi urtetik gorako epean sortu direnean eta aldizka edo noizean behin lortu ez direnean, % 60 aplikatu da; portzentaje hori % 50ekoa izango da sorreraldia 5 urtetik gorakoa denean edo etekinak denboran era irregular nabarmenean lortutakotzat kalifikatzen direnean erregelamenduz. Era berean, % 40ko integrazio portzentajea aplikatu dakioke lan harremana elkarren arteko adostasunez desegitean enpresak langileei ordaindutako diru kopuru osoari edo horren zati bati, erregelamendu bidez onartzen diren baldintzetan.

Etekinak zatika kobratzen badira, etekinaren sorreraldia konputatzerakoan kontuan hartuko da zenbat urtetan zatikatzen den kobrantza, erregelamendu bidez ezartzen den eran.

Apartatu honetan aipatzen diren % 100etik beherako integrazio portzentaje guztiak aplikatuko zaizkion etekinen kopurua ezingo da izan urteko 300.000 eurotik gorakoa. Kopuru horretatik gorakoa % 100ean integratuko da.

% 100 baino txikiagoko integrazio portzentaje desberdinak ezar dakizkiekeen etekinak jaso direnean, aurreko paragrafoan aurreikusitako 300.000 euroko muga konputatzearen ondorioetarako, integrazio portzentaje txikiak dagozkien etekinak hartuko dira kontuan lehenengo.

b) Foru arau honetako 18. artikulua a) letran aurreikusitako prestazioen kasuan, 6. zenbakikoak kanpoan utzita, kapital moduan jasotzen badira, jasotako zenbatekoa % 100ean integratuko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa hala izanik ere, kapital moduan jasotako kopurua % 60an integratuko da, kontingentzia desberdin bakoitzagatik jasotzen den lehen prestazioaren kasuan, betiere lehen ekarpenaz geroztik bi urte baino gehiago igaro badira. Prestazioak elbarritasunagatik edo mendetasunagatik jasotzen badira, bi urteko epe hori ez da exijituko.

Apartatu honetan finkatutako tratamendua gaixotasun larria eta iraupen luzeko langabezia gertatzen direnean ere aplikatuko dira.

Letra honetan aurreikusten den % 60ko integrazio portzentajea kasu honi ere aplikatuko zaio: estalitako kontingentziak edo azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak —Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak— 8. artikulua 8. apartatuan xedatutako egoerak gertatzeaz bestelako arrazoiengatik jasotako lehen kopuruari.

Apartatu honetan xedatutako ondorioetarako, jasotako lehen kopurutzat zergaldi berean kapital moduan jasotako kopuruen batura hartuko da.

% 100etik beherako integrazio portzentajea aplikatuko zaizkien etekinen kopurua ezingo da izan urteko 300.000 eurotik gorakoa. Kopuru horretatik gorakoa % 100ean integratuko da.

c) Etekinak foru arau honetako 18. artikulua a) letraren 6. zenbakian aipatzen diren aseguru kolektiboko kontratuengatik kapital moduan jasotako prestazioetatik baldin badatoz eta, betiere, enpresarien ekarpenak prestazioak jasotzen dituzten pertsonen egotzi bazez, honela jotuko da:

a') Erretiro prestazioen kasuan:

- % 60, haiei dagozkien primak prestazioak jaso baino gutxienez bi urte lehenago ordaindu badira.

- % 25, haiei dagozkien primak prestazioak jaso baino gutxienez bost urte lehenago ordaindu badira. Lehen prima ordaindu denetik zortzi urte baino gehiago igaro badira eta kontratuaren iraupenean zehar ordaindutako primen aldizkakotasun eta erregularutasun nahikoa gordetzen badute erregelamendu bidez ezarritako eran, kontratu hauengatik jasotako prestazioen etekin osoari portzentaje hori bera aplikatuko zaio.

b') Elbarritasun prestazioen kasuan:

- % 25, elbarritasuna erregelamendu bidez ezarritako modu eta mailetan gertatzen denean edo prestazioak zortzi urtetik gorako antzinatasunaz hitzartutako aseguru

kontratuetatik datozenean, baldin eta kontratuaren iraupenean zehar ordaindutako primak aldizkakotasun eta erregularitasun nahikoa gordetzen badute erregelamendu bidez ezartzen den eran;

- % 60, aurreko baldintzak betetzen ez direnean.

Tratamendu hori bera kapital moduan jasotzen diren elbarritasun prestazioei aplikatuko zaie arrisku garbiko aldi baterako aseguru kolektiboko kontratuetatik eratorritakoak direnean. Foru arau honetako 17. artikuluko 2. apartatuko f) letran aipatutako aseguru kontratuak dira.

Kapital moduan jasotako prestazioak foru arau honen 18. artikuluko a) letraren 6. zenbakian aipatzen diren aseguru kolektiboko kontratuetatik datozenean, eta enpresarien ekarpenak prestazioak jasotzen dituzten pertsonen egotzi ez zaizkienean, % 60 aplikatuko da:

- elbarritasun prestazioak direnean.
- haiei dagozkien primak prestazioak jaso baino gutxienez bi urte lehenago ordaindu direnean.
- c) letra honetan aipatzen diren portzentajeak aplikatzeko, formula erraztuak finkatu ahal izango dira erregelamendu bidez ezartzen den eran.

Foru arau honen 18. artikuluko a) letran aipatzen diren prestazioak errenta moduan jasotzen direnean eta egotzitako kontribuzio enpresarialek oinarri ezargarria murrizten dutenean, oso-osorik konputatuko dira.

19.bis artikulua. Kaleratze kolektiboengatik edo arrazoi objektiboetan oinarritutako kontratu amaierengatik langileek aldizka jasotzen dituzten lansari osagarriak.

1. Foru arau honen 9. artikuluko 5. zenbakiaren arabera salbuetsi daitezkeen zenbatekoak eragotzi gabe, eta betiere hurrengo apartatuan aipatutako beharkizunak betetzen badira, hurrengo apartatuan aipatzen diren langileek jasotako kopuruaren % 70 lan etekin gisa integratuko dira, eta urteko muga lanbidearteko gutxieneko soldata bider 2,5 eginez ateratzen den zenbatekoa izango da

Muga hori gaingintzen duten kopuruak —aipatutako % 70eko portzentajea aplikatu aurretik ezartzen da muga hori— oso-osorik integratuko dira zergaren oinarri ezargarrian.

2. Aurreko apartatuan aipatutako portzentajea aplikagarria izango da, betiere, honako baldintzak betetzen badira:

a) Kopuru horiek jasotzea Langileen Estatutuko 51. artikuluan xedatutakoaren arabera egindako kaleratze kolektibo batengatik edo lan harremana Estatutu horren 52.c) artikuluan ezarritakoaren indarrez amaitzeagatik, betiere baldin eta kaleratzearen arrazoiak ekonomikoak, teknikoak, antolaketakoak, produkziokoak edo halabeharrezkoak badira.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, herri administrazioek Langileen Estatutuko 51. artikuluan ezarritako arrazoietako batean oinarrituta giza baliabideen arloan egiten dituzten plan estrategikoak aipatu diren kaleratze kolektiboekin edo lan harremanaren amaitzeekin parekatuko dira.

b) Enplegu Institutu Nazionaletik, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaletik edo honen ordezkari entitateetatik jasotako zenbatekoen kopuru osagarriak izatea. Jasotako zenbatekoek tratamendu bera izango dute nahiz eta zergadunak, arrazoi bereziak tarteko, ekitaldian erakunde horietatik inolako prestaziorik lortu ez.

c) Kopuru horiek aldizka —aldi baterakoak nahiz biziartekoak izan— zein modu kapitalizatuan jasotzea, ordaintzailea edozein dela ere.

Kopuruak modu kapitalizatuan jasotzen badira, artikulua honetan aipatu den tratamendua soilik aplikatuko da baldin eta zergadunarentzat tratamendu hori lan errenta irregularretarako aurreikusitako araubide orokorra baino aldekoagoa bada.

20. artikulua. Akzioen gaineko aukerak.

1. Lanaren etekinak jarduten den entitatearen, sozietate taldeko edozein entitatearen, edo harekin lotuta dagoen beste edozein entitatearen akzioen gaineko aukerak baliatzeagatik jartzen badira agerian, honako berezitasun hauek hartu beharko dira kontuan lanaren etekin osoa kalkulatzeko:

a) Bakar-bakarrik ulertuko da etekinaren sorreraldia bi edo bost urtetik gorakoa dela eta ez dela lortzen aldizka edo behin eta berriz, baldin eta aukera eskubidea erabiltzen bada hura eman zenetik, hurrenez hurren, bi edo bost urte baino gehiago igarota, eta, gainera, eskubideak urtero ematen ez badira.

b) Aurreko artikulua 2. apartatuko a) letran aipatzen diren integrazio portzentajeak aplikatzeko kontuan hartuko den etekinaren zenbatekoak ezingo du gainditu erregelamenduz finkatzen den kopurua etekinaren sorreraldiko urte kopuruarekin biderkatuta ateratzen den emaitza.

2. Aurreko apartatua aipatutako mugaren zenbatekoa bikoiztu egingo da akzioen gaineko aukeren salmentek baldintza hauek betetzen dituztenean:

a) Erositako akzioak edo partaidetzak mantendu egin beharko dira, erosteko aukera gauzatzen denetik kontatzen hasi eta 3 urtez gutxienez.

b) Erosteko aukeren eskaintza baldintza beretan egin beharko zaie enpresako, enpresa taldeko edo enpresa azpitaldeetako langile guztiei.

21. artikulua. Lanaren etekin garbia.

Etekin osoei gastu kengarrien eta hobariaren zenbatekoa kenduz kalkulatu da lanaren etekin garbia.

22. artikulua. Gastu kengarriak.

Gastu kengarritzat honako hauek hartuko dira soil-soilik:

a) Gizarte Segurantzari edo funtzionarioen derrigorrezko mutualitate orokorre egingako kotizazioak, eskubide pasiboengatik murrizketak eta umezurtzen eskolei edo antzeko erakundeei egingako kotizazioak, eta, orobat, zergadunek Gizarte Segurantzaren ordeko entitate edo erakundeei ordaindutako zenbatekoak, hari dagozkion zenbait kontigentziaren prestazioa indarrean dagoen araudiaren arabera beren gain hartu dutenean.

b) Herri hauteskundeetan aukeratutako kargu politikoek beren erakunde politikoari derrigorrez egingako diru ekarpenak, bai eta izendapen libreko kargu politikoek egingakoak ere.

Kopuru horien muga lanpostu hori betez lortutako etekin osoen % 25 izango da, betiere etekin horiek zergadunaren errenta iturri nagusia baldin badira.

Foru arau honetako 115. artikuluko i) letran aipatzen den eredu informatiboan sartuta dauden zergadunek baino ezingo dute aplikatu letra honetan jasotakoa.

23. artikulua. Lan etekinaren hobaria.

1. Lan etekin osoaren eta gastu kengarrien arteko diferentzia positiboak honako hobari hauek izango ditu:

a) Diferentzia 7.500 eurokoa edo txikiagoa bada, 4.650 euroko hobaria egingo da.

b) Diferentzia 7.500,01 eta 15.000 euro bitartekoa bada, honako hobaria aplikatuko da: 4.650 euro ken aipatutako diferentziari 7.500,00 euro gutxitu ondoren ateratzen den emaitza 0,22rekin biderkatuz ateratzen den zenbatekoa.

c) Diferentzia 15.000 eurotik gorakoa bada, 3.000 euroko hobaria egingo da.

2. Oinarri ezargarrian lanetik ez datozen errentak konputatzen badira, eta horiek 7.500 eurotik gorakoak badira, hobaria 3.000 eurokoa izango da.

3. Aurreko apartatuetan aipatu diren hobariak honela gehituko dira:

a) % 100, minusbaliotasun maila % 33koa edo handiagoa eta % 65ekoa baino txikiagoa duten langile aktibo desgaituentzat

b) % 250, minusbaliotasun maila % 33koa edo handiagoa eta % 65ekoa baino txikiagoa duten langile aktibo desgaituentzat, baldin eta mugikortasun mugatuko egoeran badaude. Mugikortasuna mugatua dutela ulertuko da abenduaren 23ko 1.971/1999 Errege Dekretuak —minusbaliotasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoak— III. eranskinean jasotzen duen baremoaren A, B edo C letretako egoeretan sartuta daudenean edo baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen dituztenean. Orobat, % 65eko edo hortik gorako minusbaliotasuna duten langile aktibo desgaituentzat ere % 250 gehituko da hobaria.

4. Artikulu honetan aurreikusitako hobaria aplikatzeak ezingo du ekarri lanaren etekin garbia negatiboa izatea.

III. KAPITULUA JARDUERA EKONOMIKOEN ETEKINAK

24. artikulua. Jarduera ekonomikoen etekin osoen kontzeptua.

1. Jarduera ekonomikoen etekin osotzat honako hauek hartuko dira: lan pertsonaletik eta kapitaletik —bietatik aldi berean edo horietako batetik bakarrik— eratorriak izanik, zergadunak produkzio bideak eta giza baliabideak, edo bietako bat bakarrik, bere kontura antolatzea dakartenak, ondasun edo zerbitzuen produkzio edo banaketan esku hartzeko.

Bereziki, halakotzat jotzen dira erauzketa jardueren etekinak eta fabrikazio, merkataritza edo zerbitzu prestazioenak, artisautza, nekazaritza, basogintza, abeltzaintza, arrantza, eraikuntza, meatzaritza eta jarduera profesionalak barne.

2. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Tarifetako bigarren eta hirugarren sekzioetan sailkatzen direnak baino ez dira joko jarduera profesionaltzat.

3. Ondasun higiezinak alokatzea edo saldu zein erostea jarduera ekonomikotzat hartuko da bakar-bakarrik jarduera burutzeko gutxienez langile bat aritzen bada lan kontratuarekin,

lanaldi osoan eta jarduera horretarako dedikazio eskusiboarekin. Ondorio horietarako, honako hauek ez dira kontratatutako pertsonatzat hartuko: batetik, zergadunaren ezkontidea, izatezko bikotekidea —maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat eratutako bikotea bada—, aurrekoa, ondorengoa edo bigarren graduako alboko ahaidea —ahaidetasunaren jatorria odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa edo adopzioa izan daiteke—; bestetik, zergadunarekin lotutako pertsonatzat jotzen direnak, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluko 3. apartatuan ezartzen denaren arabera.

25. artikulua. Etekin garbia kalkulatzeko erregela orokorrak.

1. Etekin garbia kalkulatzeko zuzeneko zenbatespenaren metodoa erabiliko da, eta honako modalitate hauek izango ditu:

a) Arrunta.

b) Erraztua. Zergadunak egindako jarduera guztiak hartuta, aurreko lehen urtean 600.000 eurotik gorako eragiketa bolumena izan ez duten jarduera ekonomiko jakin batzuei aplikatuko zaie modalitate hau.

Jarduera ekitaldiaren barruan egiten hasi bada, aurreko paragrafoan aipatu den kopurua konputatzeko ekitaldi horretan egindako eragiketen bolumena hartuko da kontuan.

Jarduera hasi den ekitaldia urtebetekoa baino txikiagoa bada, aurreko kopurua konputatzeko, egindako eragiketak urtearekin parekatuko dira.

Modalitate hau aplikatu ahal izateko, zergadunak espresuki adierazi beharko du hala nahi duela, erregelamendu bidez ezartzen den eran.

2. Zergadunak ondasun, eskubide edo zerbitzuak hirugarren batzuei dohainik laga edo maileguan ematen dizkienean, tartean kontraprestazioa dagoenean eta kontraprestazio hori ondasun, eskubide eta zerbitzuek merkatuan duten balio arrunta baino dezente baxuagoa denean eta, orobat, jardueraren xede diren ondasun, eskubide edo zerbitzuak norberaren kontsumo eta erabilerarako bideratzen direnean, foru arau honetako 58. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

3. Jarduera ekonomikoen etekin garbia kalkulatzeko, haiei atxikitako ondare elementuetatik eratortzen diren ondare irabazi edo galerak kontuan hartuko dira, eta Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak jasotakoaren arabera kuantifikatuko dira.

Halaber, aipatutako foru arauko 36. artikuluan aparteko mozkinen berrinbertsioari buruz xedatutakoa aplikatuko zaie. Berrinbertsioa aukeratu nahi bada, hura aplikatuko den ekitaldiko autolikidazioan adierazi behar da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren 115. artikulua 3. apartatuan ezarritakoaren ondorioetarako. Zergaldi baterako egindako aukera geroago aldatu ahal izango da, hain zuzen ere, zergaren autolikidazioa egiteko borondatezko epea amaitu ondoren, baldin eta zerga administrazioak aurretiazko errekerimendurik egin ez badu.

Apartatu honetan xedatutakoa aplikatuta irabazi edo galerak sortzen badira, horiek jarduera ekonomikoaren etekin arruntari gehitu edo kenduko zaizkio etekin garbia kalkulatzeko.

4. Jarduera ekonomikoaren etekin garbia bi urtetik gorako epean sortu denean eta aldi behin edo modu errepikarian lortu ez denean, % 60 aplikatuko da; portzentaje hori % 50ekoa izango da sorreraldia 5 urtetik gorakoa denean edo etekina denboran era irregular nabarmenean lortutakotzat kalifikatzen denean erregelamenduz.

Zatika kobratzen bada, sorreraldia konputatzerakoan kontuan hartu beharko da zenbat urtetan zatikatzen den kobrantza, erregelamenduz ezartzen den eran.

Apartatu honetan aipatzen den etekin garbiaren zenbatekoa, integrazio portzentajeak aplikatuko zaizkiona, ezin da izan urteko 300.000 eurokoa baino handiagoa. Zenbateko horren gaineko soberakina % 100ean integratuko da.

Jasotako etekinei % 100etik beherako integrazio portzentajeak aplikagarri zaizkienean, aurreko paragrafoan aurreikusitako 300.000 euroko muga konputatzerakoan, aurrenik kontuan hartuko dira integrazio portzentajerik txikienak aplikagarri dituztenak.

5. Jarduera ekonomiko bati ekiten dioten zergadunek haren etekin garbi positiboa % 10ean murriztu ahal izango dute, aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatu ondoren, aplikatzea badagokie, etekina positiboa den lehenengo zergaldian eta hurrengo zergaldian, beti ere, etekin garbi positibo hori ematen duen lehenengo zergaldia jarduera hasi zenetik lehen bost zergaldien barruan badago.

Horretarako, ez da ulertuko jarduera ekonomikoari ekiten zaiola, baldin eta zergadunak zuzenean edo zeharka lehenago garatu izan badu jarduera hori. Zergadunak jarduera bera garatzen duela ulertuko da Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Tarifetan talde berean sailkatuta baldin badago.

Murrizpen hau ez da aplikatuko zergaldian, baldin eta hasitako jarduera ekonomikotik eratorritako sarreraren % 50 baino gehiago pertsona edo entitate batetik badatoz, eta zergadunak pertsona edo entitate horrengandik lan etekinak lortu baditu jardueraren hasierako dataren aurreko urtean.

26. artikulua. Jarduerari atxikitako ondare elementuak.

1. Honako hauek joko dira jarduera ekonomiko bati atxikitako ondare elementutzat:

a) Zergadunak jarduera garatzeko erabiltzen dituen ondasun higiezinak.

b) Jardueraren zerbitzura dauden langileen zerbitzu ekonomiko eta soziokulturaletara bideratutako ondasunak. Aldiz, aisialdi eta jolaserako ondasunak edo, oro har, jarduera ekonomikoaren titularrak erabilera pribaturako erabiltzen dituenak ez dira jarduerari atxikitat joko.

c) Etekinak lortzeko beharrezko diren bestelako ondare elementuak. Entitate baten funts propioetan parte hartzea eta kapitalak hirugarrenei lagatzea adierazten duten aktiboak ez dira inoiz jarduera ekonomikoari atxikitako elementuak izango.

2. Jarduera ekonomikoaren xederako partzialki baino erabili ezin daitezkeen ondare elementuak direnean, jardueran benetan erabiltzen den zatia bakarrik egongo da atxikita. Ondare elementuak zatiezinak direnean ezin dute inoiz atxikipen partzialik izan.

Erregelamenduz finkatu ahal izango da zein baldintzatan jo daitezkeen ondare elementu jakin batzuk jarduera ekonomiko bati atxikitat, nahiz eta premia pribatuetarako erabili eta erabilera hori osagarria eta garrantzirik gabea izan.

3. Ondare elementuak jarduerari atxikitat joko dira titulartasuna bi ezkontideek edo izatezko bikoteko bi kideek duten kontuan hartu gabe.

4. Zergadunak ondare elementuak atxikitzeak edo aktibo finkoei atxikipena kentzeak ez du ondare aldaketarik ekarriko, betiere ondasun edo eskubideek haren ondarearen parte izaten jarraitzen badute.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, jarduera ekonomikoari atxikita dauden elementuei atxikipena kentzen bazaie eta zergadunaren ondare pertsonalera bideratzen badira, haien eskurapen balioa honako hau izango da ondarearen geroko aldaketen ondorioetarako:

a) Etekin garbia kalkulatzeko zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate arrunta erabiltzen bada, atxikipena kentzen zaien unean zeukaten kontabilitate balio garbia.

b) Gainerako kasuetan, eskurapen prezioaren eta dagoeneko egin diren edo egin beharko ziren amortizazioen arteko aldea.

Elementuak jarduerari atxikita egon diren denboran zergadunak etekinak kalkulatzeko bere jarduera ekonomikoari aplikatu dion modalitateak ezinezkoa egin badu, epe horretan guztian edo haren zati batean, elementu horien amortizazioagatik berariazko kenkaria aplikatzea, ulertu beharko da gehieneko epealdietan egin den kenkaria gutxieneko koefizienteak aplikatuz ateratzen den amortizazioa dela, Sozietateen gaineko Zergaren araudian jasotakoa, alegia.

5. Ondasun edo eskubideak besterentzen badira desatxikipena gertatu denetik oraindik hiru urte igaro ez direnean, desatxikipenik ez dela izan ulertuko da.

Jarduera uzten den kasuetan, ondare elementuak aldeztu aurretik desatxiki direla ulertuko da, salbu eta jarduera utzi ondorengo hiru urteko epean edozein jarduera ekonomikori berriro ekiten badio zergadunak.

Aitzitik, jarduera ekonomikoari ondare pertsonaleko ondasun edo eskubideak atxikitzen bazaizkio, beren eskurapen balioagatik hartuko dira kontuan.

Aipatu den azken hori ez dela izan ulertuko da, ondorio guztietarako, baldin eta ondasunak eta eskubideak atxikipenetik hiru urte igaro baino lehen besterentzen badira besterentze horren zenbatekoa Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak 36. artikuluan ezarritako eran berrinbertitu gabe.

27. artikulua. Etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate arrunta erabiliz kalkulatzeko arauak.

Etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate arruntaren bidez kalkulatzeko, foru arau honetako 25. artikuluan jasotzen diren erregela orokorrak eta Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan xedatutakoa aplikatuko dira, eta gainera, honako erregela bereziak hartuko dira kontuan.

1.a Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 31. artikuluan 4. apartatuan aipatzen dituen kontzeptuak eta enpresari edo profesionalak berak gizarte aurreikuspeneko mutualitateei egindako ekarpenak ez dira gastu kengarriak izango, foru arau honetako 70. artikuluan jasotakoa eragotzi gabe.

Hala ere, norberaren konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzako erregimen berezian sartu gabeko profesionalak diru kopuruak ordaintzen dituztenean gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin sinatutako aseguru kontratuengatik, ordaindutako kopuru horiek gastu kengarritzat joko dira, Gizarte Segurantzak estaltzen dituen kontingentziak hartzen dituen zatian, baldin eta, Aseguru Pribatuen Antolamendu eta Ikuskapenari buruzko azaroaren 8ko 30/1995 Legeak hamabosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitako obligazioa

betetzeko, mutualitate horiek Gizarte Segurantzako erregimen bereziaren ordeztzen badira. Urteko muga 4.500 eurokoa izango da.

2.a Behar bezala frogatzen bada, lan kontratua dela medio eta besteren konturako langileei aplikagarri zaien Gizarte Segurantzako erregimenari afiliatuta, ezkontideak, izatezko bikoteak edo zergadunarekin bizi diren adingabeko seme-alabek hark garatutako jarduera ekonomikoan modu jarraituan lan egin ohi dutela, etekinak kalkulatzeko garaian, haietako bakoitzarekin hitzartutako ordainsariak kengarriak izango dira euren kualifikazio profesionalari eta egindako lanari dagozkionak merkatukoak baino handiagoak ez badira.

Kopuru horiek ezkontideak, izatezko bikoteak edo adingabeko seme-alabek lan etekin gisa lortutako kopuruak direla joko da zerga ondorio guztietarako.

3.a Zergadunaren ezkontideak, izatezko bikoteak edo harekin bizi diren adingabeko seme-alabek ondasun edo eskubideak lagatzen dituztenean jarduera ekonomikoaren zerbitzura jartzeko, jardueraren titularraren etekinak kalkulatzeko hitzartutako kontraprestazioagatik egingo da kenkaria, betiere merkatuko balioa gainditzen ez badu. Kontraprestaziorik egon ez bada, merkatuko balioagatik egin ahal izango da kenkaria. Kontraprestazioa edo merkatu balioa ezkontideak, izatezko bikoteak edo adingabeko seme-alabek lortutako kapital etekina dela joko da zerga ondorio guztietarako.

Erregela honetan xedatutakoa ez da aplikatuko ondasun eta eskubideak bi ezkontideenak edo izatezko bikoteko bi kideenak direnean.

4.a Honako gastu hauek kengarri izango dira, behean azaltzen diren zenbateko eta baldintzen arabera, baldin eta jarduera ekonomikoari loturik badaude:

a) % 50, zergadunak jatetxe, ostalaritza, bidaia eta joan-etorriari loturiko harreman publikoak direla-eta egiten duen jarduera bakoitzeko. Kontzeptu horiek guztiak baturik, zergadunak zergaldian zehar dituen diru sarrera guztien % 5 izango da muga, jarduera bakoitzaren arabera zehaztua. Atxikitako ondare elementuen besterentzeetatik datozen kontraprestazioen zenbatekoa kenduko da kalkulua egiteko.

b) Opariak eta bestelako eskuerrakutsiak, baldin eta hartzaile bakoitzari dagokionaren aleko prezioa ez bada —zergaldi bakoitzeko— 300 euro baino gehiago, eta hartzailearen nortasuna agiriren batean jasota geratzen bada. Baldin eta aipaturiko gastuak goian zehazturiko zenbatekoa baino gehiago badira, zenbateko horretaraino soilik izango dira kengarri.

5a. Bat. Oro har, ez dira kengarri izango turismoko ibilgailuekin eta beren atoeekin, ziklomotorrekin eta motozikletekin zerikusia duten gastuak; alegia, halakoak erostea, inportatzea, alokatzea, konpontzea, mantentze lanak egitea, haien balio galera eta haiek erabiltzearekin zerikusia duen beste edozein gastu.

Ondorio horietarako, turismoko ibilgailu, atoi, ziklomotor eta motozikletatzat hartuko dira martxoaren biko 339/1990 Errege Dekretu Legegileak, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartzen duenak, eranskinean hala definitzen dituenak, eranskin horretan ibilgailu misto gisa definitutakoak eta, nolanahi ere, lur orotariko ibilgailuak edo «jeep» motakoak.

Bi. Zergadunak dudarik gabe frogatzen duenean ibilgailua eskusiboki dagokiola bere jarduera ekonomikoari, gastu horiek kengarri izango dira, baina honako muga hauekin:

a) Bi zenbateko hauetatik txikiena: edo 5.000 euro, edo zergadunak erabili duen amortizazio portzentajea bider 25.000 euro eginik ateratzen den zenbatekoa, alokairuaren, lagapenaren edo balio galeraren kontzeptuan.

Jarduera bati bakarrik atxikitako ibilgailu bat eskualdatzean edo aktibotik baja ematean, horretatik eratorritako irabazia edo galera kalkulatzeko, ibilgailuaren erosketa prezioa edo produkzio kostua aintzat hartuko da, behin aurreko paragrafoan jasotakoaren arabera kendutako amortizazioak gutxituta; gainera, erregela hauek aplikatuko dira.

- Galera bat agerian jartzen bada, hura kengarria izango da, muga hau ezarrita: 25.000 eurotik a) letra honek lehen paragrafoan jasotakoaren arabera ibilgailua eduki den denboran kendutako kopuruak gutxituta ateratzen den zenbatekoa.

- Irabazi bat lortzen bada, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 40. artikulua 9. apartatuan jasotako moneta zuzenketa kalkulatzeko, kontuan hartuko dira erosketa prezioa edo produkzio kostua, gehienez 25.000 euroraino, eta a) letra honen lehen paragrafoan xedatutakoari jarraituz kendutako amortizazioak. Horrela kalkulaturako moneta zuzenketaren zenbatekoa ezin izango da handiagoa izan eskualdaketa harengatik lortutako irabazia baino.

b) 6.000 euro, ibilgailuok erabiltzeari loturiko beste kontzeptu guztiengatik.

Zergadunak ez badu urteko aldi batean ibilgailu hori erabiltzen, erabili duen denborarekiko proportzionalki kalkulaturako dira zenbaki honetan aipaturiko mugak.

Hiru. Erregela honen bi zenbakian aipatzen diren mugak honako ibilgailu hauen erabilerari dagozkionean, ez dira aplikatuko erregela honetan aipatzen diren gastuak, zeren ibilgailu horiek eskusiboki jarduera ekonomikoaren garapenari atxikitzen zaizkiola joko baita:

1. Merkantzien garraioan erabilitako ibilgailu mistoak.

2. Bidaiariak kontraprestazio bat ordainduta garraiatzeko zerbitzuetan erabiltzen direnak.

3. Fabrikatzaileek probak, saioak, erakusketak edo salmenten sustapena egiteko erabilitakoak.

4. Ordezkariek edo merkataritza agenteek beren joan-etorri profesionaletan erabiltzen dituztenak, baina, halakoetan, aurreko bi zenbakiko a) letran ezartzen den muga aplikatuta.

5. Gidariei edo pilotuei kontraprestazio bat ordainduta irakasteko zerbitzuetan erabilitakoak.

6. Zaintza zerbitzuetan erabilitakoak.

7. Eskuarki ibilgailuak alokatzen jarduten duten erakundeek kontraprestazio bidezko alokairu jarduera horretan soil-soilik erabiltzen dituztenak.

6.a Ez dira kengarriak izango laketontziekin edo itsas kiroletako ontziekin zein aireontziekin zerikusia duten gastuak, baldin eta halakoen erosketa, alokatze, konponketa, mantentze lan, balio galera eta erabilerarekin zerikusia duten gastuak badira.

Garraiobide horiek jarduera ekonomiko bati bakarrik atxikirik badaude, aurreko paragrafoan aipatzen diren gastuak kengarriak izango dira, baina zergaldi bakoitzean lortutako diru sarrerei dagokien gehieneko mugara arte. Hala ere, muga hori ez da aplikagarria izango, baldin eta zergadunak egiaztatua badu badituela jarduera ekonomiko horretan —alegia,

garraiobideok ustiatzea— denboran zehar jarraituki jarduteko behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak.

7.a Ez dira kengarri izango urriaren 29ko 7/2012 Legearen 7. artikuluan eskudiruzko ordainketez xedatzen dena hausten duten eragiketetatik eratorritako gastuak. Lege horrek aurrekontuen araudia aldatu eta finantza araudia egokitzen du, iruzurraren kontrako prebentzio ekintzak eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzak areagotzearen.

8.a Eroskeria ez da kengarri izango.

9.a Zergadunek betetzen badituzte zergadun bat mikroenpresa eta enpresa txiki edo ertaintzat hartzeko Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 13. artikuluan ezartzen diren baldintzak, bada, orduan zergadun horiei halako enpresa bakoitzarentzat foru arau horretako 21. artikulua 1. apartatuko b) letran eta 2. eta 3. apartatuetan eta 22. artikulua 3. apartatua xedatzen dena aplikatuko zaie.

13. artikuluan ezarritako baldintzak betetzeari dagokionez, zergadunak egiten dituen jarduera ekonomiko guztiak hartuko dira kontuan.

28. artikulua. Etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua erabiliz kalkulatzeko erregelak.

1. Honela jokatu da etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuan kalkulatzeko:

a) Lehendabizi, sarrerak eta gastuak kalifikatu eta kuantifikatuko dira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan eta aurreko artikuluko erregelatan xedatutakoaren arabera. Kanpoan utziko dira hornidurak, amortizazioak, foru arau honek 27. artikulua 5. erregelako bi apartatuaren a) letran eta hiru apartatuaren a) letran aipatzen dituen alokairu, lagapen edo balio galerako gastuen kontzeptuei dagozkien kopuruak eta jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabazi eta galerak.

b) Aurreko letran aipatu diren sarrera eta gastuen arteko diferentzia kalkulatu da, eta hortik ateratzen den emaitzari % 10 kenduko zaio amortizazioengatik, hornidurengatik eta gastu frogagaitzengatik.

c) Aurreko b) letran esandakoaren arabera ateratzen den emaitzari jarduerari atxikitako ondare elementuen irabazi eta galerak gehitu edo kenduko zaizkio, foru arau honetako 25. artikulua 3. apartatua xedatutakoari jarraikiz.

2. Zuzeneko zenbatespen erraztuan dauden enpresari edo profesionalek osatutako kolektibo jakin batzuen kasuan, erregela bereziak ezarri ahal izango dira, erregelamenduzkoa den eran, gastu kengarri jakin batzuk kuantifikatzeko, artikulua honen 1. apartatuko b) letran aipatu den portzentajea ere barne dela.

IV. KAPITULUA KAPITALAREN ETEKINAK

1. SEKZIOA ARAU OROKORRAK

29. artikulua. Definizioa.

1. Kapitalaren etekin osotzat hartuko dira zuzenean edo zeharka ondare elementu, ondasun edo eskubideetatik datozen onura edo kontraprestazio guztiak, duten izendapena edo

izaera dutela ere, diruzkoak izan edo gauzazkoak izan, baldin eta elementu, ondasun edo eskubide horien titularra zergaduna bada eta zergadunak berak egindako jardura ekonomikoei atxikita ez badaude.

Hala eta guztiz ere, ondare irabazi edo galera gisa zergapetuko dira ondare elementuen titulartasuna eskualdatzeak dakartzan errentak, nahiz eta jabariaren erreserbarako ituna hitzartuta egon, non eta foru arau honek ez dituen kapitalaren etekintzat hartzen errenta horiek.

2. Gauzazko errentatzat hartzen dira doan edo merkatuko ohiko prezioetik behera ondasun, eskubide edo zerbitzuak xede partikularretarako erabiltzea, kontsumitzea edo lortzea, nahiz eta haiek ematen dituenari benetako gasturik ez eragin.

Errentak ordaintzen dituenak zergadunari eskudirutan ordaintzen dionean horrek ondasun, eskubide edo zerbitzuak eros ditzan, errenta diruzkoa dela joko da.

3. Edonola ere, hauek hartuko dira kapitalaren etekintzat:

a) Ondasun higiezin landatar nahiz hiritarretatik datozen etekinak, zergadunak egindako jardura ekonomikoei atxikita ez badaude.

b) Kapital higigarritik eta, oro har, zergadunaren titulartasunekoak diren gainerako ondasun edo eskubideetatik datozen etekinak, zergadunak berak egindako jardura ekonomikoei atxikita ez badaude.

2. SEKZIOA KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK

30. artikulua. Kapital higiezinaren etekin osoen kontzeptua.

1. Kapital higiezinaren etekin osotzat hartuko dira ondasun higiezin hiritar nahiz landatarrak edota horien gaineko eskubide errealak lagatzetik datozen etekinak, eta barne hartuta egongo dira ondasun horiek errentan edo azpierrean ematetik edota erabiltzeko edo gozatzeko eskubide edo ahalmenak lagatzetik datozen etekin guztiak, horien izena edo izaera edozein izanik ere.

2. Etekin osotzat konputatuko da erabilpen edo gozamen eskubide edo ahalmen eratuaren errentari, azpierreari, lagapen hartzaile edo onuradunarengandik kontzeptu guztiengatik jasotzen den zenbatekoa, barne hartuta, hala badagokio, higiezinarekin batera lagatako ondasun guztiei dagokiena, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpoan utzita.

3. Hala ere, foru arau honek 32. artikuluan 2. apartatuan aipatzen dituen etekinak bi urtetik gorako epean sortu badira, eta ez badira lortzen aldiaren behin edo modu errepikarian, % 60ko integrazio portzentajea aplikatuta lortuko da etekin osotzat; portzentaje hori % 50ekoa izango da sorreraldia bost urtetik gorakoa denean edo etekinak denboran zehar era irregular nabarmenean lortutakotzat erregelamenduz hartzen direnean.

Etekinak zatika kobratzen badira, sorreraldia konputatzerakoan kontuan hartuko da zenbat urtetan zatikatzen den kobrantza, erregelamenduz ezartzen den moduan.

Apartatu honetan jasotako etekinen zenbatekoa, zeinari aplikatuko baitzaizkio integrazio portzentajeak, ezingo da izan urteko 300.000 eurokoa baino handiagoa. Zenbateko horren gaineko soberakina % 100ean integratuko da.

Jasotako etekinei % 100etik beherako integrazio portzentajeak aplikagarri zaizkienean, aurreko paragrafoan aurreikusitako 300.000 euroko muga konputatzerakoan, aurrenik kontuan hartuko dira integrazio portzentajerik txikienak aplikagarri dituztenak.

Etekinak ondasun higiezinaren erabilera edo gozamenerako eskubide errealak eratzetik datozenean, edonola ere, haien zenbatekoaren % 100 konputatuko da.

31. artikulua. Etekin garbia.

Kapital higiezinaren etekin garbia kalkulatzeko, ondorengo artikuluan aipatzen diren kontzeptuetan gutxitu behar dira etekin osoak.

32. artikulua. Gastu kengarriak eta hobaria.

1. Etxebizitzetatik datozen kapital higiezinaren etekinen kasuan, higiezin bakoitzeko lortutako etekin osoen % 20ko hobaria aplikatuko da.

Era berean, bakar-bakarrik kengarria izango da etekinen sorburu diren ondasunak, eskubideak edo erabilera nahiz gozamen ahalmenak eskuratu, birgaitu edo hobetzeko inbertitutako besteren kapitalen interesen zenbatekoa, bai eta gainerako finantzaketa gastuak ere.

Etxebizitza bakoitzeko hobariaren eta gastu kengarriaren arteko baturak ezingo du, higiezin bakoitzarentzat, etekin garbi negatiborik eman.

Apartatu honetan sartuta daudela ulertuko da, bakar-bakarrik, Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeak 2. artikuluan etxebizitza errentamendutzat hartutakoetatik datozen etekinak.

2. Aurreko apartatuan sartu gabe dauden kapital higiezinaren etekinetan, etekin osoari gastu kengarri hauen zenbatekoa gutxituko zaio:

a) Etekinak lortzeko beharrezko diren gastuak, etekinen sorburu diren ondasunak, eskubideak edo erabilera nahiz gozamen ahalmenak eskuratu, birgaitu edo hobetzeko inbertitutako besteren kapitalen interesen zenbatekoa eta gainerako finantzaketa gastuak barne direla.

b) Etekinen iturri diren ondasunak erabiltzeagatik edo denbora igarotzeagatik horiek jasandako narriaduraren zenbatekoa, erregelamenduz zehazten diren baldintzetan.

Erabilera edo gozamenerako eskubide edo ahalmenen titulartasunetik datozen etekinen kasuan, ordaindutako eskurapen balioen dagokien zati proportzionala izango da kengarria, balio galeraren kontzeptupean, erregelamenduz zehazten diren baldintzetan.

Gastu kengarrien baturak ezingo du ekarri, ondasun higiezin bakoitzerako, etekin garbi negatiborik.

3. SEKZIOA KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKINAK

33. artikulua. Kapital higigarriaren etekinen kontzeptua.

1. Kapital higigarriaren etekin osotzat hartuko dira hauek:

a) Edozein entitate motaren funts propioetako partaidetzaz lortutako etekinak.

b) Kapital propioak hirugarrenei lagaz lortutako etekinak.

c) Kapitalizazio eragiketetatik, bizitza edo elbarritasun aseguruaren kontratuetatik eta kapital ezarpenetatik eratorritako errentetatik datozen etekinak.

d) Kapital higigarriaren beste etekin batzuk.

2. Ez da kapital higigarriaren etekintzat hartuko ohiko jarduera ekonomikoa garatzean egindako eragiketen prezioa geroratu edo zatikatzeagatik lortutako kontraprestazioa, dena delako kontzeptuagatik zergapetzea eragotzi gabe.

34. artikulua. Edozein entitate motaren funts propioetako partaidetzaz lortutako etekinak.

Etekin hauek hartuko dira, diruzkoak izan edo gauzazkoak izan, edozein entitate motaren funts propioetako partaidetzaz lortutako etekintzat:

a) Dibidenduak, batzarretara joateko primak eta edozein entitate motaren mozkin partaidetzak.

b) Mota guztietako aktiboetatik datozen etekinak. Nolanahi ere, ez da halakotzat hartuko akzio liberatuen ematea, baldin eta horiek ahalmena ematen badute estatutuen arabera edo sozietateko organoen erabakiz entitate baten mozkinetan, salmentetan, eragiketetan, diru sarreretan edo antzeko kontzeptuetan parte hartzeko, lan pertsonalaren ordainketarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik.

c) Entitatearen funts propioetan dagoen partaidetza adierazten duten balore edo partaidetzak erabili edo gozatzeko eskubideak eratu edo lagatzeagatik lortzen diren etekinak, horien izena edo izaera edozein dela ere.

d) Entitate batetik jasotako beste edozein onura, aurrekoekin zerikusirik ez duena, bertako bazkide, akziodun, asoziatu edo partaide izateagatik.

e) Akzio edo partaidetzen jaulkipen primaren banaketa. Banaketatik lortutako zenbatekoak eragindako akzio edo partaidetzen eskurapen balioa gutxituko du, hura deuseztatu arte, eta handik atera daitekeen soberakina kapital higigarriaren etekin gisa zergapetuko da.

35. artikulua. Kapital propioak hirugarrenei lagaz lortutako etekinak.

1. Kapital propioak hirugarrenei lagaz lortutako etekintzat hartuko dira mota guztietako kontraprestazioak, horien izena edo izaera edozein izanik ere, diruzkoak izan edo gauzazkoak izan —esaterako, interesak eta lagapenaren ordainsari gisa itundutako beste edozein ordainketa mota—, bai eta besteren kapitalen erakarpena eta erabilpena adierazten duten edozein motatako eskualdaketa, itzulketa, amortizazio, truke edo bihurketatik datozen kontraprestazioak ere.

2. Bereziki, halakotzat hartuko dira hauek:

a) Edozein giro tresnatatik datozen etekinak, merkataritzako eragiketek sortutakoak barne, endosatzen edo eskualdatzen den unetik aurrera, non eta endosua edo lagapena ez den gauzatzen zuzkitzaile edo hornitzaileen kredituaren ordainketa gisa.

b) Mota guztietako finantza erakundeetako kontuetatik datorren kontraprestazioa, horren izena edo izaera edozein izanik ere, aktibo finantzarioen eragiketetan oinarritutakoak barne.

c) Aktibo finantzarioak berrerosketa itunarekin aldi baterako lagatzeko eragiketetatik datozen errentak.

d) Entitate finantzario batek bere titulartasuneko kreditua erabat edo zati batean eskualdatu, laga edo transferitzearen ondorioz ordaindutako errentak.

3. Baloreak eskualdatu, itzuli, amortizatu, trukatu edo bihurtuz gero, etekintzat hartuko da baloreen eskualdatze, itzultze, amortizatze, trukatzeko edo bihurtze balioaren eta eskuratze edo harpidetze balioaren arteko diferentzia.

Truke edo bihurtze balioetatik hartuko da jasotzen diren baloreen balioa.

Eskuratze eta besterentze gastu osagarriak, era berean, etekina kuantifikatzeko konputatuko dira, behar bezala frogatzen badira.

Aktibo finantzarioak eskualdatzetik datozen etekin negatiboak zergadunaren ondarean mantentzen diren aktibo finantzarioak eskualdatu ahala integratuko dira, zergadunak aktibo finantzario homogeneoak eskuratu dituenean eskualdaketa horien aurreko edo ondorengo bi hilabeteetan.

4. Kapital higigarriaren etekinik ez dagoela ulertu behar da, zergadunaren heriotza dela-eta artikulua honetan aipatzen diren besteren kapitalak erakarri eta erabiltzeko aktiboak kostu gabe eskualdatzen direnean.

36. artikulua. Kapitalizazio eragiketetatik, bizitza edo elbarritasun aseguruaren kontratuetatik eta kapital ezarpenen errentetatik datozen etekinak.

1. Halakotzat hartzen dira kapitalizazio eragiketetatik edo bizitza aseguru edo elbarritasun aseguruaren kontratuetatik lortutako diruzko edo gauzazko etekinak, non eta ez diren lan etekin gisa zergapetu behar foru arau honek 18. artikuluko a) letran jasotakoaren arabera. Bereziki, erregela hauek aplikatuko zaizkie kapital higigarriaren etekin horiei:

a) Kapital geroratua jasotzen denean, jasotako kapitalaren eta ordaindutako primen arteko diferentzia izango da kapital higigarriaren etekina.

b) Biziarreko errenta berehalakoen kasuan, ez badira herentzia, legatu edo beste edozein ondorengotza tituluren bidez eskuratuak, kapital higigarriaren etekintzat hartuko da portzentaje hauek urteko zenbateko bakoitzari aplikatuz ateratzen den emaitza:

- % 40, jasotzailea 40 urtetik beherakoa denean.
- % 35, jasotzailea 40 eta 49 urte bitartekoa denean.
- % 28, jasotzailea 50 eta 59 urte bitartekoa denean.
- % 24, jasotzailea 60 eta 65 urte bitartekoa denean.
- % 20, jasotzailea 66 eta 69 urte bitartekoa denean.
- % 8, jasotzailea 70 urtekoa edo hortik gorakoa denean.

Errenta eratzerakoan errentadunak zenbat urte dituen kontuan hartuta aplikatuko dira portzentajeak, eta errentaren indarraldi osoan mantenduko dira aldatu gabe.

c) Aldi baterako errenta berehalakoen kasuan, ez badira herentzia, legatu edota beste edozein ondorengotza tituluren bidez eskuratuak, kapital higigarriaren etekintzat hartuko da portzentaje hauek urteko zenbateko bakoitzari aplikatuz ateratzen den emaitza:

- % 12, errentaren iraupena bost urte edo txikiagoa denean.
- % 16, errentaren iraupena bost urtetik gorakoa eta hamar urtekoa edo hortik beherakoa denean.
- % 20, errentaren iraupena hamar urtetik gorakoa eta hamabost urtekoa edo hortik beherakoa denean.
- % 25, errentaren iraupena hamabost urtetik gorakoa denean.

d) Errenta geroratuak, biziartekoak edo aldi baterakoak jasotzen direnean, ez badira herentzia, legatu edota beste edozein ondorengotza tituluren bidez eskuratuak, kapital higigarriaren etekintzat hartuko da aurreko b) eta c) letretan aurreikusitako portzentajeak urteko zenbateko bakoitzari aplikatuz ateratzen den emaitza, errenta eratu arte lortutako errentagarritasunaren zenbatekoa gehituz; errenta hori erregelamendu bidez zehazten den moduan kalkulatu da. Errentak dohaintzaz edo doan eta inter vivos egindako beste edozein negozio juridiko bidez eskuratu direnean, kapital higigarriaren etekina izango da, bakar-bakarrik, aurreko b) eta c) letretan jasotako dena delako portzentajea urteko zenbateko bakoitzari aplikatuz ateratzen den emaitza.

Aurreko paragrafoan jasotakoa hala izanik ere, zergaren oinarri ezargarrian integratuko dira kapital higigarriaren etekin gisa, erregelamendu bidez finkatzen den moduan, foru arau honek 18.a) artikuluan aipatutakoak ez diren eta haien indarraldian aseguru kontratuaren horniduretan inolako mobilizaziorik izan ez duten bizitza edo elbarritasun aseguru buruzko kontratuen onuradunek errenta moduan jaso dituzten erretiro eta elbarritasun prestazioak, horien zenbatekoa kontratua dela-eta ordaindutako prima baino handiagoa den momentutik aurrera. Errentak eskuratu badira dohaintzaz edo doan eta inter vivos egindako beste edozein negozio juridiko bidez, aldiz, oinarrian integratuko dira prestazio horiek, errenten eraketa uneko balio aktuariala baino handiagoak direnean. Kasu horietan, ez dira aplikatuko aurreko b) eta c) letretan jasotako portzentajeak. Erretiro prestazioen kasuan araubide hau aplikatuko bada, beharrezkoa da aseguru kontratua gutxienez erretiro data baino bi urte lehenago hitzartuak izatea.

e) Herentzia, legatu edota beste edozein ondorengotza tituluren bidez eskuratu ez diren aldi baterako edo biziarteko errenten kasuan, errenta erreskate eskubidea erabiltzean iraungi denean, kapital higigarriaren etekina kalkulatzeko, erreskatearen zenbatekoari batu behar zaizkio momentu horretara arte ordaindutako errentak eta, ondoren, baturatik kendu behar dira ordaindutako primak eta apartatu honen aurreko letren arabera kapital higigarriaren etekin gisa zergapetu diren diru kopuruak. Errentak dohaintzaz edo doan eta inter vivos egindako beste edozein negozio juridiko bidez eskuratuak badira, gainera, errentak eratu arte metatutako errentagarritasunaren zenbatekoa kenduko da.

f) Kapital moduko prestazioak aurreikusten dituzten bizitza edo elbarritasun aseguruak, kapital hura biziarteko edo aldi baterako errentak eratzen zuzentzen denean, aurreko d) letren lehen paragrafoan jasotakoaren arabera zergapetuko dira, betiere bihurtzeko aukera hori aseguru kontratuan jasotzen bada. Inoiz ez da aplikatuko letra honetan jasotakoa, kapitala edozein bitarteko erabiliz jartzen denean zergadunaren eskura.

2. Kapital ezarpenetik datozen biziarteko edo aldi baterako errenten kasuan, non eta ez diren eskuratu herentziaz, legatuz edo beste edozein ondorengotza titulu bidez, kapital higigarriaren etekintzat hartuko da aurreko apartatuko b) eta c) letretan bizitza aseguruaren kontratuetatik datozen biziarteko edo aldi baterako errenta berehalakoetarako jaso diren portzentajeak urteko zenbateko bakoitzari aplikatuz ateratzen den emaitza.

37. artikulua. Kapital higigarriaren beste etekin batzuk.

Halakotzat hartzen dira etekin hauek, diruzkoak izan edo gauzazkoak izan:

a) Jabetza intelektualetik datozen etekinak, zergaduna autorea ez denean, eta zergadunak egindako jarduera ekonomikoei atxikita ez dagoen jabetza industrialetik datozenak.

b) Laguntza teknikoa ematetik datozen etekinak, non eta ez den jarduera ekonomiko baten esparruan ematen.

c) Ondasun higigarri, negozio edo meategiak errentan ematetik datozen etekinak, bai eta azpierrentatzaileak azpierrentamendutik jasotzen dituenak ere, betiere jarduera ekonomikorik osatzen ez badute.

d) Irudiaren ustiapenerako eskubidea lagatzetik edo irudia erabiltzea onartu edo baimentzetik datozen etekinak, non eta ez dituen lortzen irudia ustiatzeko eskubidea sortzen duenak edota jarduera ekonomiko baten esparruan.

38. artikulua. Kapital higigarriaren etekin osoak.

Kapital higigarriaren etekin osoa, oro har, sekzio honen aurreko artikuluetan zehaztutako etekin guztiez osatuko da.

39. artikulua. Etekin garbia.

1. Kapital higigarriaren etekin garbia bat etorriko da etekin osoen baturarekin, artikulua honetako hurrengo apartatuan jasotakoa izan ezik.

2. Etekinak badatoz laguntza teknikoa ematetik, ondasun higigarri, negozio edo meategiak errentan ematetik edo azpierrentan ematetik, etekin garbia lortzeko, etekin osoetatik kendu behar dira haiek lortzeko beharrezkoak diren gastuak, eta, hala badagokio, diru sarreraren iturri diren ondasun edo eskubideek jasandako hondamenaren zenbatekoa ere bai.

Gastu kengarrien baturak ezingo du inola ere etekin garbi negatiboa eman, aurreko 37. artikuluan zehaztutako etekin bakoitzarentzat.

Apartatu honetako lehenengo paragrafoan xedatutakoa hala izanik ere, Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan aipatzen diren etxebizitzaren azpierrentamendutik datozen etekinak direnean, etekin garbia lortzeko % 20ko hobaria soilik aplikatuko da, azpierrentamenduaren gai izandako higiezin bakoitzagatik lortutako etekin osoen gainean.

3. Hala ere, foru arau honek 37. artikuluan jasotako etekinetatik datorren etekin garbia denean eta ez denean lortzen aldiari behin edo modu errepikarian, % 60 integratuko da, bi urtetik gorako epean sortu bada. Integrazio portzentajea % 50ekoa izango da, aldiz, sorreraldia bost urtetik gorakoa bada edo etekinak denboran era irregular nabarmenean lortutakotzat hartzen badira erregelamenduari jarraiki.

Etekinak zatika kobratzen badira, kobrantza zenbat urtetan zatikatzen den kontuan hartu behar da sorreraldia konputatzerakoan, erregelamenduz ezartzen den moduan.

Integrazio portentajeak aplikatuko zaizkion eta apartatu honetan aipatzen den etekinen zenbatekoa ezingo da izan urteko 300.000 eurotik gorakoa. Zenbateko horren gaineko soberakina % 100ean integratuko da.

Jasotako etekinei % 100etik beherako integrazio portzentajeak aplikagarri zaizkienean, aurreko paragrafoan aurreikusitako 300.000 euroko muga konputatzerakoan, aurrenik kontuan hartuko dira integrazio portzentajerik txikienak aplikagarri dituztenak.

V. KAPITULUA ONDARE IRABAZIAK ETA GALERAK

40. artikulua. Kontzeptua.

Zergadunaren ondarearen balioan zeinahi aldaketa gertatzeagatik agerian jartzen diren bariazioak dira ondare irabaziak eta galerak, foru arau honek etekintzat jotzen dituenean izan ezik.

41. artikulua. Kasu bereziak.

1. Honako kasuetan ez da aldaketarik izango ondarearen osaketan:

a) Gauza komuna zatitzen denean.

b) Irabazpidezko ondasunen sozietatea desegin edo ezkontideen partaidetza araubide ekonomikoa iraungitzen denean eta, orobat, izatezko bikoteen ondare araubide ekonomikoa iraungitzen denean, baldin eta itundu duten ondare araubide ekonomikoa aurrekoetako edozein bada.

c) Ondasun erkidegoak desgitean edo erkideak banantzen direnean.

Apartatu honetan aipatzen diren kasuek ezingo dute inola ere ekarri jasotako ondasunen edo eskubideen balioa eguneratzea.

2. Hurrengo kasuetan ez da egongo ondare irabazi edo galerarik:

a) Kapital murrizketetan. Kapital murrizketak, edozein xede duela ere, balore edo partaidetzak amortizatzea dakarrenean, eskuratutako lehenak joko dira amortizatutzat, eta hauen eskurapen balioa proportzionalki banatuko da zergadunaren ondarean segitzen duten gainontzeko balore homogeneoen artean. Kapital murrizketak ez badie zergadunaren balore edo partaidetza guztiei maila berean eragiten, lehenengo eskuratutakoei dagokiela ulertuko da.

Kapital murrizketaren helburua ekarpenak itzultzea denean, honen zenbatekoak edo jasotako ondasun edo eskubideen merkatuko ohiko balioak gutxitu egingo du ukitutako balore edo partaidetzen eskurapen balioa, aurreko paragrafoan ezarritako erregelari jarraikiz, balio hori deuseztatu arte. Gerta litekeen soberakina kapital higigarriaren etekin gisa integratuko da, eta edozein motatako entitateen funts propioetan parte hartzeagatik lortu dela joko da. Integrazioa jaulkipen primen banaketarako ezarritako era berberari jarraikiz egingo da, kapital murrizketa banatu gabeko mozkinen ondorio denean izan ezik. Horrelakoetan, kontzeptu honengatik jasotzen diren kopuru guztiak foru arau honek 34. artikuluan a) letran xedatutakoaren arabera zergapetuko dira. Ondorio horietarako, iritziko da kapital murrizketek, beren xedea zeinahi dela ere, banatu gabeko mozkinetatik ez datorren kapital sozialaren zatiari eragiten diotela lehenik, kapital soziala deuseztatu arte.

b) Zergadunaren heriotzaren ondorioz egiten diren kostu gabeko eskualdaketetan.

c) Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren Foru Arauak 27. artikuluan aipatzen dituen enpresa edo partaidetzen kostu gabeko eskualdaketetan, ezkontidearen, izatezko bikotearen edo aurreko zein ondorengo ahaideen alde egiten direnean, betiere hurrengo baldintzak betetzen badira.

Lehenena. Eskualdatzaileak hirurogeita bost urte edo gehiago izatea edo ezintasun iraunkorra edukitzea, dela absolutua dela elbarritasun handikoa.

Bigarrenena. Eskualdatzaileak, zuzendaritza lanak bete izan baditu, eskualdaketaren unetik beretik lan horiek egiteari eta dagozkien ordainsariak jasotzeari uztea.

Ondorio horietarako, sozietatearen administrazio kontseiluko kide hutsa izatea ez da zuzendaritza funtzioen barruan sartuko.

Hirugarrena. Dohaintzaren eskritura publikoa egin ondorengo bost urteetan eskuratzailerak bere eskuetan eduki behar ditu jasotako enpresa edo partaidetzak, salbu eta epe horren barruan hiltzen bada. Halaber, eskuratzailerak ezin izango du erabilpen egintzarik edo sozietate eragiketarik gauzatu zuzenean edo zeharka, eskurapen balioa nabarmen murriztu dezaketenean.

Adierazitako epea betetzen ez bada, eskualdatzaileak zerga egoera erregularizatu beharko du epea bete ez den ekitaldiko autolikidazioan, eta ondare irabazia edo galera ekitaldi horretan gertatu dela joko da.

Eskuratuak izan eta gero zergadunak ondare elementuak lotzen badizkio jarduera ekonomikoari, ezinbestekoa izango da elementu horiek gutxienez bost urtez eta etenik gabe egon izana jarduerari lotuta eskualdaketa egin aurretik.

c) letrak aurreikusitakoa gorabehera, partaidetzen eskualdaketetan, ulertuko da ondare irabazia edo galera dagoela jarduera ekonomikoari atxiki gabeko aktiboen balorearen — jardueratik ez datozen zorren zenbatekoa gutxituta— eta erakundearen ondare garbiaren balorearen artean dagoen proportzioari dagokion zatian. Arau horiek berak ezarriko dira partaidetutako entitatearen partaidetzak baloratzeko, erakunde edukitzailearen partaidetzen balorea zehazteko.

d) Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren Foru Arauak 27. artikuluan aipatzen dituen enpresa edo partaidetzen eskualdaketetan, enpresako langile baten edo batzuen alde egiten direnean, baldin eta aurreko letran ezarritako baldintzak betetzen badira, berezitasun hauek kontuan hartuta:

Lehenena: Aurreko letrako hirugarren baldintzaren lehen paragrafoan aipatutako bost urteko epea enpresaren edo beronen partaidetzen eskualdaketa datatik aurrera zenbatuko da; eskualdaketa eskritura publikoan edo agiri pribatuan jaso beharko da, eta eskritura edo agiri hori zerga administrazioari aurkeztuko zaio.

Bigarrenena: Enpresa edo beronen partaidetzak eskualdatu aurretik, enpresako edo entitateko langile guztiei eskaintza bat egin beharko zaie, guztiei baldintza berdinetan, eta inor diskriminatu gabe.

Partaidetzen eskualdaketen kasuan ere aplikatu behar da c) letrako azken paragrafoan aurreikusitakoa.

e) Ezkontideen ondasun banaketako araubide ekonomikoa edo izatezko bikoteak adostutako ondare araubidea iraungitzen denean, baldin eta legeak edo epaileek aginduta esleipenak egiten badira eta horien zioak ezkontideen edo izatezko bikotekideen arteko pentsio konpentsagarriarekin zerikusirik ez badu.

Letra honetan aipatutako kasuak ezingo du inola ere ekarri esleitutako ondasun edo eskubideen balioak eguneratzea.

f) Pertsona desgaituen alde eratutako ondare babestuei egindako ekarpenetan.

42. artikulua. Ondare irabazi salbuetsiak.

Ondare irabaziak zergatik salbuetsita egongo dira, hauen ondorio direnean:

a) Foru arau honetako 90. artikuluan aipatutako entitateei dohaintzak egiteagatik.

b) Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen arabera mendetasun larria edo handia duten pertsonen ohiko etxebizitza kostu bidez eskualdatzeagatik.

c) 65 urtetik gorako pertsonen ohiko etxebizitza kostu bidez eskualdatzeagatik. Ohiko etxebizitzaren eskualdaketa eta eskualdaketa bakarrean lortutako irabaziaren lehen 400.000 euroei aplikatuko zaie salbuespena.

d) Foru arau honetako 102. artikuluko 3. apartatuan aurreikusitako ordainketa egiteagatik.

e) Zergadunaren ohiko etxebizitza finantza entitate batek sustatutako prozedura judizial baten barruan eskualdatzeagatik, betiere ohiko etxebizitza hori zergadunaren titulartasuneko etxebizitza bakarra bada.

Aurreko paragrafoan jasotakoa berdin aplikatuko da ohiko etxebizitza saltzeko Hipoteka Legearen 129. artikuluan aurreikusitako prozedura erabiltzen denean, notario bidezko epaiketatik kanpoko salmenta, alegia.

Erregelamendu bidez mugak ezarri ahal izango dira letra honetan aurreikusten den salbuespena aplikatzeko.

43. artikulua. Ondare galera konputaezinak.

Honako hauek ez dira ondare galera gisa konputatuko:

a) Frogatu gabekoak.

b) Kontsumoaren ondorio direnak.

c) Inter vivos egintzetan kostu gabeko eskualdaketenatik sortutakoak, edo liberalitateen ondorio direnak.

d) Ondasun higiezinaren kostu bidezko eskualdaketak direla medio sortutakoak, higiezin horiek salbuetsita zegoen kostu gabeko eskurapen batetik badatoz.

Hala ere, letra honetan xedatutakoa ez da aplikatuko zergadunak frogatzen duenean ondasun higiezinaren balioa aparteko zirkunstatziengatik gutxitu dela, edo, bestela, galera hori ondasuna besterentzeak edo eskuratzeak sortutako gastuetatik bakarrik datorrenean.

e) Jokoa izandako galeretatik datozenak.

f) Ondare elementuak eskualdatzeagatik gertatutakoak, baldin eta eskualdatzaileak berriro eskuratzen baditu eskualdaketaren dataren hurrengo urtearen barruan. Ondare galera hau ondare elementua geroago eskualdatzen denean integratuko da.

g) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan —finantza tresnen merkatuei buruzkoan— definituta dauden bigarren mailako balore merkatu ofizialetako batean negoziatzeko onarturiko balio edo partaidetzak eskualdatzetik sortutakoak, baldin eta eskualdaketa horien aurreko edo ondorengo bi hilabeteetan zergadunak balio homogeneoak eskuratu baditu.

h) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan —finantza tresnen merkatuei buruzkoan— definituta dauden bigarren mailako balore merkatu ofizialetako batean negoziatzeko onartu ez diren balio edo partaidetzak eskualdatzetik sortutakoak, baldin eta eskualdaketa horien aurreko edo ondorengo urtean zergadunak balio homogeneoak eskuratu baditu.

Aurreko g) eta h) letretan aurreikusitako kasuetan, zergadunaren ondarean mantentzen diren balore edo partaidetzak eskualdatu ahala integratuko dira ondare galerak.

44. artikulua. Ondare irabazi edo galeren zenbatekoa. Arau orokorra.

1. Ondare irabazi edo galeren zenbatekoa hau izango da:

a) Kostu bidezko edo kostu gabeko eskualdaketetan, ondare elementuen eskurapen balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko diferentzia. Bidezkoa denean, eskurapen balioa eguneratuta egongo da hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Gainerako kasuetan, ondare elementuen edo, halakorik balitz, zati proportzionalen merkatuko balioa.

2. Eskualdatutako ondare elementuetan hobekuntzak egin badira, besterentzearen baliotik bereiziko da zein zati dagokion haren osagai bakoitzari.

45. artikulua. Kostu bidezko eskualdaketak.

1. Eskurapen balioa honako hauen batura izango da:

a) Ondasuna eskuratzeko ordaindutako benetako zenbatekoa.

b) Eskuratzailleak eskuratutako ondasunetan egindako inbertsio eta hobekuntzen kostua eta eskurapenari atxikitako gastu eta zergak, interesak kanpoan utzita.

Bidezkoa denean, balio horri erregelamenduzko eran egindako amortizazioen zenbatekoa gutxituko zaio, eta, edonola ere, gutxieneko amortizazioa konputatuko da.

2. Aurreko apartatuan aipatutako eskurapen balioa erregelamenduz finkatzen diren koefizienteak aplikatuz eguneratuko da. Horretarako, kontuan hartuko da batik bat ondare elementuen eskurapen egunetik kontsumorako prezioen indizeak izan duen bilakaera eta eskualdaketaren ekitaldirako espero dena. Koefizienteak honela aplikatuko dira:

a) Aurreko apartatuko a) eta b) letretan aipatutako zenbatekoen gainean, zein urtetan ordaindu diren kontuan izanik.

b) Amortizazioen gainean, dagokien urtea kontuan izanik.

3. Eskualdaketa balioa besterentzearen benetako zenbatekoa izango da. Balio honi aurreko 1. apartatuko b) letrak aipatzen dituen gastu eta zergak kenduko zaizkio, behin eskualdatzaileak horiek ordaindu ondoren.

Besterentze balioaren benetako zenbatekotzat ordaindutakoa hartuko da, betiere merkatuko ohiko balioaren azpitik ez badago, kasu honetan azken hori hartuko baita.

46. artikulua. Kostu gabeko eskualdaketak.

Eskurapena edo eskualdaketa kostu gabekoa denean, aurreko artikuluko arauak izango dira aplikagarriak, eta balore bakoitzaren benetako zenbatekotzat Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren arauak aplikatuz ateratako balioak hartuko dira.

Foru arau honetako 41. artikuluko 2. apartatuaren c), d) eta f) letretan aipatutako kostu gabeko eskuraketetan, dohaintza-hartzailea dohaintza-emailearen lekuan subrogatuko da ondasunen eskurapen balio eta datei dagokienez.

47. artikulua. Berariazko balorazio arauak.

1. Ondarearen balioa arrazoi hauengatik aldatzen denean:

a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan —finantza tresnen merkatuei buruzkoan— definituta dauden balore merkatuetako batean negoziatzeko onartutako baloreak, sozietate edo entitateen funts propioetan parte hartzea adierazten dutenak, kostu bidez eskualdatzeagatik, irabazia edo galera eskurapen balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko aldea izango da. Eskualdaketa balio hori eskualdaketa egunean merkatuan duen kotizazioa izango da edo, kotizazioa baino handiagoa izanez gero, hitzartutako prezioa.

Balore horietatik datozen harpidetza eskubideak eskualdatzeagatik lortutako zenbatekoa ondare irabazitzat hartuko da eskualdatzailearentzat, eskualdaketa hori egiten den zergaldian.

Zati batean liberatutako akzioak direnean, haien eskurapen balioa zergadunak benetan ordaindutako zenbatekoa izango da.

Erabat liberatutako akzioak direnean, bai haien eskurapen balioa eta bai euren sorburu direnena kalkulatzeko, kostu osoa titulu zahar eta liberatuen artean banatu beharko da.

b) Ondarearen balioa aldatzen bada Europako Parlamentuak eta bertako Kontseiluak apirilaren 21ean emandako 2004/39/EE Zuzentarauan —finantza tresnen merkatuei buruzkoan— definituta dauden balore merkatuetako batean negoziatzeko onartu gabeko baloreak, sozietate edo entitateen funts propioetan parte hartzea adierazten dutenak, kostu bidez eskualdatzeagatik, irabazia edo galera eskurapen balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko aldea izango da.

Benetan ordaindutako zenbatekoa alderdi independenteek merkatuko baldintza arruntetan hitzartuko luketenarekin bat datorrela frogatu ezean, eskualdaketa balioak ezingo du honako bi hauetako handiena baino txikiagoa izan:

- Zergaren sortzapen eguna baino lehen itxitako azken ekitaldiari dagokion balantzetik ateratzen den teorikoa.

- Zergaren sortzapen eguna baino lehen itxi diren hiru ekitaldi sozialetako mozkinen batez bestekoa % 20an kapitalizatzen ateratzen den balioa. Azken ondorio horretarako, banatutako dibidenduak eta erreserbetarako esleipenak mozkin gisa konputatuko dira, balantzeak erregularizatu edo eguneratzekoak kanpoan utzita.

Horrela kalkulaturako eskualdaketa balioa kontuan hartuko da eskuratzailerari dagozkion balore edo partaidetzen eskurapen balioa zehazteko. Balore edo partaidetza hauetatik datozen harpidetza eskubideak eskualdatzeagatik lortutako zenbatekoa ondare irabazitzat hartuko da eskualdatzailearentzat, eskualdaketa gertatzen den zergaldian.

Zati batean liberatutako akzioak direnean, haien eskurapen balioa zergadunak benetan ordaindutako zenbatekoa izango da.

Erabat liberatutako akzioak direnean, bai haien eskurapen balioa eta bai euren sorburu direnena kostu osoa titulu zahar eta liberatuen kopuruaren artean banatzen aterako da.

c) Ondarearen balioa aldatzen bada ondare sozietateen kapitaleko balore edo partaidetzak eskualdatzeagatik, irabazia edo galera Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauko bosgarren xedapen gehigarriko 2. apartatuan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

d) Balioa aldatzen bada inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarearen akzio edo partaidetzak kostu bidez eskualdatu edo berreskuratzeagatik, ondare irabazia edo galera eskurapen balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko aldea izango da. Eskualdaketa balioa eskualdaketa edo berreskurapena egiten den egunean aplikagarria den likidazio balioak emango du, edo horren ezean, argitaratutako azken likidazio balioak. Likidazio baliorik ez badago, zergaren sortzapen eguna baino lehen itxitako azken ekitaldiko balantzetik ateratako balio teorikoa hartuko da.

Partaidetzak berreskuratzea ez den kasuetan, horrela kalkulaturako eskualdaketa balioa ezingo da izan ondoko bi hauetako handiena baino txikiagoa:

- Eskualdaketa benetan itundutako prezioa.

- Europako Parlamentuak eta bertako Kontseiluak apirilaren 21ean emandako 2004/39/EE Zuzentarauan —finantza tresnen merkatuei buruzkoan— definituta dauden bigarren mailako balore merkatu ofizialetan duten kotizazio balioa eta, bereziki, Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 31. artikuluko 4. apartatuan aurreikusitakoarekin bat etorritik baimendutako baloreak negoziatzeko sistema antolatuetan dutena.

Eskurapen balioa kalkulatzeko, 1. apartatu honetako a) letran xedatutakoa aplikatuko da, hala dagokionean.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoa hala izanik ere, eskualdatzen dena inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamenduak —azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretuaren bidez onartuak— 49. artikuluan aipatzen dituen inbertsio funts kotizatuak partaidetzak badira eta eskualdaketa balore burtsan egin bada, eskualdaketa balioa 1. apartatu honetako a) letran jasotakoaren arabera kalkulatu da.

e) Balioa aldatzen bada sozietateei diruzkoak ez diren ekarpenak egiteagatik, irabazia edo galera emandako ondasun edo eskubideen eskurapen balioaren eta honako kopuru hauetako handienaren arteko aldea eginez zehaztuko da:

Lehena: Ekarpengatik jasotako akzio edo partaidetza sozialen balio nominala edo, bestela, horretatik dagokion zatia. Balio honi jaulkipen primen zenbatekoa gehituko zaio.

Bigarrena: Jasotako tituluen kotizazio balioa, ekarpena gauzatzen den egunean edo aurreko lehenean.

Hirugarrena: Emandako ondasun edo eskubidearen merkatuko balioa.

Honela kalkulaturako eskualdaketa balioa kontuan hartuko da diruzkoa ez den ekarpenaren ondorioz jasotako tituluen eskurapen balioa zehazteko.

f) Bazkideak banandu edo sozietateak desagiten direnean, honako hau hartuko da ondare irabazi edo galeratzat, sozietateari dagozkionak eragotzi gabe: sozietatearen likidazio kuotaren balioa edo jasotako ondasunen merkatuko balioa ken tituluen edo kapital partaidetzaren eskurapen balioa.

Sozietateen zatiketa, bategite edo xurgapen kasuetan, zergadunaren ondare irabazi edo galera konputatzeko honako diferentzia hau hartuko da kontuan: bazkidearen partaidetzaren erakusgarri diren titulu, eskubide edo baloreen eskurapen balioa ken jasotako nahiz emandako titulu, esku-diru edo eskubideen merkatuko balioa.

g) Balio aldaketa intsuldaketa baten ondorioz gertatzen bada, ondare irabazia lagatzaileari konputatuko zaio, intsuldaketan dagokion zenbatekoan.

Intsuldaketa eskubidea prezio bidez eskuratu denean, prezio hori eskurapen baliotzat hartuko da.

h) Balio aldaketa ondare elementuetan galera edo ezbeharrengatik aseguratutako kalte-ordain edo kapitalen ondorioz gertatzen bada, ondare irabazia edo galera jasotako kopuruaren eta kalteari dagokion eskurapen balioaren zati proportzionalaren arteko aldea izango da. Kalte-ordaina esku-dirutan ematen ez bada, jasotako ondasun, eskubide edo zerbitzuen merkatuko balioaren eta kalteari dagokion eskurapen balioaren zati proportzionalaren arteko aldea konputatuko da. Zergadunaren ondarearen balioan gehikuntza dagoenean baino ez da konputatuko ondare irabazia.

i) Balio aldaketa ondasunak edo eskubideak —baloreak barne— trukatzeari gertatzen bada, ondare irabazia edo galera kalkulatu da lagatutako ondasun edo eskubidearen eskurapen baliotik honako bi balio hauetako handiena kenduz.

- Emandako ondasun edo eskubidearen merkatuko balioa.

- Trukean jasotzen den ondasun edo eskubidearen merkatuko balioa.

j) Balio aldaketa biziarteko edo aldi baterako errentak iraungitzeagatik gertatzen bada, ondare irabazia edo galera konputatuko da, errenta horiek ordaintzera behartuta dagoenarentzat, jasotako kapitalaren eskurapen balioaren eta ordaindutako errenten baturaren arteko aldea kontuan izanik.

k) Balio aldaketa gertatzen bada ondare elementuak aldi baterako edo biziarteko errenta baten truke eskualdatu direlako, ondare irabazia edo galera kalkulatu da errentaren egungo finantza balio aktuarialaren eta eskualdatutako ondare elementuen eskurapen balioaren arteko aldea kontuan izanik.

l) Ondasun higiezinaren gaineko gozamen edo erabilera eskubide erreal baten titularrak eskubide hori eskualdatzen duenean, edo eskubide hori iraungitzen denean, ondare irabazia edo galera kalkulatzeko, foru arau honetako 45. artikulua 1. apartatuko a) letran aipatzen

den benetako zenbatekoa proportzionalki gutxituko da eskubide horren titularra izan den denboraren arabera.

m) Eskualdaketa batetik ez datozen ondasun edo eskubideak eransten direnean, ondare irabazia ondasun edo eskubide horien merkatuko balioa izango da.

n) Abenduaren 20ko 1.814/1991 Errege Dekretuak araututako futuro eta aukeren merkatuetan burututako eragiketetan, lortutako etekina ondare irabazi edo galeratzat hartuko da eragiketak zergadunak gauzatutako jarduera ekonomikoen garapenean hitzartutako eragiketa nagusi bat estaltzea ez dakarrenean; izan ere, kasu horretan, titulu honetako III. kapituluaren aurreikusitakoaren arabera tributatu dute.

2. Aurreko apartatuko a), b), c) eta d) letretan xedatutakoaren ondorioetarako, eta letra horietan adierazitako baloreen kostu gabeko eskualdaketen ondorioetarako, balore homogeenak daudenean, zergadunak eskualdatutakoak lehenik eskuratutakoak direla ulertuko da. Halaber, harpidetza eskubide guztiak eskualdatzen ez direnean, eskualdatutakoak lehenik eskuratutako baloreei dagozkiela ulertuko da.

Erabat liberatutako akzioak direnean, haien sorburu diren akzioei dagokien antzintasuna hartuko da kontuan.

3. Artikulu honen 1. apartatuko e), f) eta i) letretan baloreen trukeko xedatutakoak ez du eragotziko Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak VI. tituluaren VII. kapituluaren ezarritakoa.

4. Ondarearen balioaren aldaketa artikulu honetako 1. apartatuko a) letran xedatutakoaren ondorioa denean, zergadunak foru arau honetako hogeigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikatu ahal izango du.

48. artikulua. Berrinbertsioa inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak eskualdatzen direnean.

1. Inbertsio kolektiboko erakundeen partaidetza edo akzioak berreskuratu edo eskualdatzeagatik lortutako zenbatekoa inbertsio kolektiboko erakundeen beste akzio edo partaidetza batzuk eskuratu edo harpidetzeko erabiltzen badira erregelamendu bidez ezarritako prozedurari jarraikiz, sortutako ondare irabazi edo galera ez da konputatuko, eta harpidetutako akzio edo partaidetzak eskualdatu edo berreskuratu diren akzio edo partaidetzen balio eta data bera izango dute. Hori guztia honako kasuetan gertatuko da:

a) Inbertsio funts gisa kalifikatuta dauden inbertsio kolektiboko erakundeen partaidetzak berreskuratzen direnean.

b) Sozietate izaera duten inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak eskualdatzen direnean, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

- Akzioak eskualdatzen diren inbertsio kolektiboko erakundeak 500 bazkide baino gehiago izatea.

- Eskualdaketa egin aurreko hamabi hilabeteetan zergadunak inbertsio kolektiboko erakundean izan duen partaidetza ez izatea kapitalaren % 5etik gorakoa.

Apartatu honetan aurreikusitako araubidea ez da aplikatuko inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak berreskuratu edo eskualdatzetik datorren zenbatekoa zergadunaren esku jartzen bada edozein bitarteko dela medio. Erregimen hori ez da aplikatuko, era berean, eskualdatzen edo berreskuratzen nahiz, hala badagokio, harpidetzen

edo eskuratzen dena artikulua honek aipatzen dituen inbertsio kolektiboko erakundeen ondarea ordezkatzeko duten partaidetzak, inbertsio funts kotizatuak edo mota horrexetako sozietateen akzioak badira, azaroaren 4ko 1.309/2005 Errege Dekretuak onartutako Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamenduko 49. artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

2. Aurreko apartatua aipatutako araubidea aplikatu ahal izango zaie inbertsio kolektiboko erakundeen bazkide edo partaideei; hauek, dena den, hainbat baldintza bete behar dituzte, hots: balio higigarrietako inbertsio kolektiboko erakunde jakin batzuei buruzko lege, arau eta administrazio mailako xedapenak koordinatzen dituen Europar Legebiltzar eta Kontseiluaren ekainaren 13ko 2009/65/EE Zuzentarauak erregulatuak izatea; foru arau honetako 52. artikuluan aurreikusiak ez izatea; Europar Batasuneko estatu kideren batean eraberrita eta helbideratuta egotea; eta Balore Merkatuko Batzorde Nazionalaren erregistro berezian izena emanda agertzea, egoitza Espainian duten entitateek merkaturatzearen ondorioetarako.

Aurreko apartatua xedatutakoa aplikatzeko baldintza hauek bete beharko dira:

a) Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak Balore Merkatuko Batzorde Nazionalean izena emanda dauden entitate merkaturatzaileen bitartez eskuratu, harpidetu, eskualdatu eta itzuliko dira.

b) Inbertsio kolektiboko erakundea konpartimendu edo azpifuntsetan egituratuta badago, aurreko 1. apartatuko b) letran aipatu diren bazkide kopurua eta gehieneko partaidetza portzentajea merkaturatutako konpartimendu edo azpifunts bakoitzari dagokiola ulertuko da.

3. Inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide kopurua eta gehieneko partaidetza portzentajea zehazteko, erregelamendu bidez ezartzen den prozedurari jarraituko zaio. Ondorio horietarako, bazkide kopuruari buruz eta euren identitate nahiz partaidetza portzentajeari buruz dagoen informazioa ez da datu garrantzitsutzat hartuko.

49. artikulua. Berrinbertsioa ohiko etxebizitza eskualdatzen denean.

1. Zergadunaren ohiko etxebizitza eskualdatzeagatik lortutako ondare irabaziak zergapetu gabe geratuko dira, baldin eta eskualdaketa horretan lortutako zenbateko osoa beste ohiko etxebizitza bat eskuratzeko berrinbertitzen bada, erregelamenduz jasotako baldintzetan.

Ondorio horietarako, beharrezkoa da zergadunak bi etxebizitzaren jabetza osoa izatea, eta kontsiderazio hori ez da hutsalduta geratuko jabetza hori beste titularkide batzuekin partekatzeagatik.

2. Berrinbertitutako zenbatekoa eskualdaketa jasotako zenbateko osoa baino txikiagoa bada, lortutako ondare irabaziaren zati proportzionala, berrinbertitutako zenbatekoari dagokiona, baino ez da utziko zergapetu gabe.

3. Honako kasu honetan ere aurreko apartatueta ezarritakoa ezarritako zaie familiaren etxebizitza eskualdatzean lortutako ondare irabaziei: aurretik zergadunaren ohiko etxebizitza izan bazen, baina senar-emazteak banantzeko edo izatezko bikotea desegiteko prozedura batean epailearen erabakiaren ondorioz utzi bazion hori bizitzeari zergadunak.

50. artikulua. Justifikatu gabeko ondare irabaziak.

1. Ondare irabaziaz justifikatu gabekotzat hartuko dira ondasun eta eskubideen edukitza, aitorpena edo eskurapena zergadunak aitortutako errenta edo ondarearekin bat ez datorrenean, eta, orobat, existitzen ez diren zorrak zerga honen edo Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren edozein aitorpenetan sartu nahiz liburu zein erregistro ofizialetan adierazten direnean.

2. Justifikatu gabeko ondare irabaziaz azaldu diren zergaldiaren oinarri likidagarri orokorrean sartuko dira, non eta zergadunak ez duen behar bezala frogatzen preskribatuta dagoen zergaldi bateko data jakin batetik aurrera ondasun eta eskubideen titularra izan dela.

3. Dena dela, justifikatu gabeko ondare irabazitzat joko da —eta, oraindik baliodun izanik, erregula daitezkeen zergaldietatik zaharrenaren oinarri likidagarri nagusian sartuko— edozein ondasun edo eskubide edukitzea, aitortzea edo eskuratzea, baldin eta ez bada bete epearen barruan edota zerga administrazioak egiaztatze prozeduraren hasiera jakinarazi aurretik halakoen berri eman beharra ezartzen duen obligazioa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak hamaikagarren xedapen gehigarrian jasotzen duena.

Hala ere, apartatu honetan xedatzen dena ez da aplikatzekoa izango, baldin eta zergadunak egoki egiaztatzen badu ondasun edo eskubideen titulartasuna aitorturiko errentei dagokiela, edo baldin eta beste zergaldi batzuetan eskuraturiko errentei dagokiela, eta orduan ez zela zerga honen zergadun.

4. Artikulu honen aurreko zenbakian ezarritakoa aplikatzen bada, zerga arloko arau haustea egongo da, eta zehapenaren oinarriaren % 150eko diru isun proportzionala jarriko da.

Zehapenaren oinarria hau da: manu hori aplikatuz ateratzen den kuota osoaren zenbatekoa. Zehapenaren oinarria kalkulatzeko ez dira kontuan hartuko egiaztatu nahi den ekitaldian aurreko ekitaldietako zer zenbateko geratzen den konpentsatzeko, deduzitzeko edo aplikatzeko, zenbateko horiek oinarri ezargarria edo oinarri likidagarria edo kuota osoa gutxitzeko erabil badaitezke.

Apartatu honetan zehazten den zehapena bateraezina da manu horretan erregulatutako errentak lortzeari buruzko presuntzioa dela-eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorreko 195.etik 199.era arteko artikuluetan tipifikatutako arau hausteen ondorioz ezar litezkeen zehapenekin.

Apartatu honetan ezartzen dena betez jartzen diren zehapenei Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorreko 192. artikuluan ezartzen dena aplikatuko zaie.

VI. KAPITULUA ERRENTAK EGOZTEA ETA ESLEITZEA

1. SEKZIOA ERRENTAK EGOZTEA

51. artikulua. Errentak egozteko nazioarteko gardentasun fiskaleko araubidean.

1. Bere egoitza espainiar lurraldean ez duen entitate batek lortutako errenta positiboa zergadunei egotziko zaie, errenta hori artikulua honetako 2. apartatuan ezarritako motetako batean sartzen denean, eta zirkunstantzia hauek betetzen direnean:

a) Entitateek % 50eko partaidetza edo handiagoa edukitzea egoitza espainiar lurraldean ez duen entitatearen kapitalean, funts propioetan, emaitzetan edo boto eskubideetan, azken entitate horren ekitaldi soziala ixteko egunean, beraiek bakarrik edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 42. artikuluko 3. apartatuan ezarritakoaren arabera loturiko entitateekin batera, edo, bestela, zuzeneko nahiz zeharkako ahaidetasun harreman batengatik lotuta dauden beste zergadun batzuekin batera, ezkontidea edo izatezko bikotea barruan dela, bigarren mailaraino, hori barne.

Lotuta dauden entitate ez-egoiliarren partaidetza konputatzeko, lurralde espainiarrean egoiliarren diren pertsona edo entitate lotuetan zeharka ematen den partaidetzaren zenbatekoa hartuko da kontuan.

Sartu beharreko errenta positiboaren zenbatekoa emaitzetan duten partaidetzaren arabera zehaztuko da, eta, halakorik ezean, entitatearen kapitalean, funts propioetan edo boto eskubideetan duten partaidetzaren arabera.

b) Lurralde espainiarrean egoitzarik ez duen entitateak Sozietateen gaineko Zergaren antzeko edo pareko zerga batengatik ordaindutako zenbatekoa, ondorengo apartatuan jasotako errentetako bati egotzita badago, zerga horren arauei jarraituz ordaindu behar zenaren % 75 baino txikiagoa izatea.

2. Errenta positiboa egotziko da, bakar-bakarrik, iturri hauetako bakoitzetik datorrenean:

a) Ondasun higiezin landatar eta hiritarren edo horiei dagozkien eskubide errealeen titulartasunetik datorrenean, salbu foru arau honek 26. artikuluan xedatutakoaren arabera jarduera ekonomiko bati atxikita badaude edota Merkataritza Kodeak 42. artikuluari jarraituz titularraren sozietate talde berekoak diren entitate ez-egoiliarrei laga bazaie haien erabilera.

b) Edozein motatako entitateen funts propioetako partaidetzatik eta kapital propioak hirugarrenei lagatzetik datorrenean, foru arau honen 34. eta 35. artikuluetan jasotakoaren arabera.

Errenta positiboa ez da letra honetan sartuko, bere iturriak aktibo finantzario hauek direnean:

Lehena. Jarduera ekonomikoak egiteagatik sortutako legezko eta erregelamendu bidezko obligazioak betetzeko edukitakoak.

Bigarrena. Jarduera ekonomikoak direla-eta finkatutako kontratuzko harremanengatik sortutako kreditu eskubideak sortzen dituztenak.

Hirugarrena. Baloreen merkatu ofizialetan bitartekaritzako jardueren ondorioz edukitakoak.

Laugarrena. Kreditu eta aseguru entitateek euren jarduera ekonomikoen ondorioz edukitakoak, ondorengo c) letran finkatutakoa eragotzi gabe.

Kapital propioak hirugarrenei lagatzetik eratorritako errenta positiboa ondorengo c) letran aipatutako kreditu eta finantza jarduerak egiteagatik lortutakotzat joko da lagatzailea eta lagapen hartzailea sozietate talde bateko kide direnean, Merkataritza Kodeak 42. artikuluan dioen zentzuan, eta gutxienez lagapen-hartzailearen sarreraren % 85 jarduera ekonomikoetatik datorrenean.

c) Kreditu, finantza, aseguru eta zerbitzuak —esportazio jarduerekin zuzenean lotutakoak izan ezik— emateko jarduerak, zuzenean edo zeharka, egoitza lurralde espainiarrean duten eta Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 42. artikuluko 3. apartatuaren zentzuan lotuta dauden pertsona edo entitateekin egiten direnean, aipatu egoiliarren gastu kenkaridunak zehazten dituzten heinean.

Errenta positiboa ez da kontuan hartuko sarreraren % 50 baino gehiago entitate ez-egoiliarren egindako kreditu, finantza, aseguru eta zerbitzu jardueretatik datorrenean —

esportazio jarduerekin zuzenean lotutako zerbitzuak alde batera utzita—, eta Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 42. artikuluko 3. apartatuan jasotakoaren arabera lotuta ez dauden pertsona edo entitateekin egindako eragiketetatik lortu denean.

d) Aurreko a) eta b) letretan aipatutako ondasun eta eskubideen eskualdaketak, ondare irabazi eta galerak eragiten badituzte.

Ez dira kontuan hartuko aurreko a), b) eta d) letretan ezarritako errentak —erakunde ez-egoiliarrek lortutakoak—, baldin eta errenta horiek badatoz edo entitate horrek zuzenean edo zeharka % 5 baino gehiagoko partaidetza duen entitateetatik, edo % 3 baino gehiagoko partaidetza duen entitateetatik, partaidetutako sozietatearen akzioek bigarren mailako merkatu antolatu batean kotizatzen badute, eta, gainera, honako bi baldintza hauek betetzen direnean:

Lehena. Entitate ez-egoiliarrek partaidetzak zuzentzea eta kudeatzea, bitarteko material eta pertsonalen antolaketaren bitartez.

Bigarrena. Errentak sortzen dituzten entitateen diru sarreren % 85, gutxienez, jarduera enpresarialetatik etortzea.

Horretarako, honako errenta hauek enpresa jardueren ondoriozkoak direla ulertuko da: a), b) eta d) letretan aurreikusitako errentak, baldin eta errentok aurreko bigarren baldintza betetzen duten entitateetan badute jatorria, eta, zuzenean nahiz zeharka, entitate ez-egoiliarrena baldin bada entitate horietako partaidetzaren % 5 baino gehiago, edo partaidetzaren % 3 baino gehiago, partaidetutako sozietatearen akzioek bigarren mailako merkatu antolatu batean kotizatzen badute.

3. Aurreko apartatuko a), b) eta d) letretan jasotako errentak egotzi gabe geratuko dira, beren zenbatekoen batura entitate ez-egoiliarren errenta osoaren % 15 baino txikiagoa denean edo sarrera guztien % 4ra iristen ez denean.

Lurralde espainiarren egoitzarik ez duten entitateak sozietate talde bateko kide badira Merkataritza Kodeak 42. artikuluan dioen zentzuan, aurreko paragrafoan ezarritako mugak entitate horien multzoak lortutako errentari edo sarrerei aplikatu ahal izango zaizkie.

Inoiz ez da entitate ez-egoiliarren errenta osoa baino handiagoa den diru kopururik egotziko.

Sozietate ez-egoiliarrek Sozietateen gaineko Zergaren berdina edo antzekoa den zergaren batengatik ordaindutakoa ez da egotziko zergadunaren oinarri ezargarrian, sartu beharreko errenta zatiari dagokionez.

Aurreko 2. apartatuan aipatutako iturrietako bakoitzaren errentak oinarri ezargarri orokorrean egotziko dira, foru arau honek 62. artikuluan jasotakoaren arabera.

4. 1. apartatuko a) letraren barruan dauden zergadunei dagokiena egotziko zaie, entitate ez-egoiliarren zuzenean parte hartzen badute edota parte hartzea zeharkakoa bada, hau da, beste entitate ez-egoiliar bat edo batzuen bitartez egina. Azken kasu horretan, errenta positiboaren zenbatekoa zeharkako partaidetzari dagokiona izango da.

5. Espainian egoitza ez duen entitateak ekitaldia amaitu duen egunari dagokion zergaldian egotziko dira errentak. Ondorio horietarako, ekitaldia ezingo da hamabi hilabete baino luzeagoa izan, salbu zergadunak ekitaldi horretako kontuak onartzen diren egunari dagokion zergaldian errentak egozte aukeratzen duenean, baldin eta ekitaldi horren amaiera egunetik sei hilabete baino gehiago iragan ez badira.

Egindako hautua adierazi behar da horrek ondorioa sortu behar duen lehendabiziko zerga autolikidazioan, eta hiru urtez eutsi behar zaio.

6. Oinarri ezargarrian egotzi beharreko errenta positiboaren zenbatekoa Sozietateen gaineko Zergan oinarri ezargarria zehazteko finkatutako printzipio eta irizpideen arabera kalkulatu da. Errenta osotzat hartuko da printzipio eta irizpide horiek aplikatuz ateratzen den oinarri ezargarriaren zenbatekoa.

Ondorio horietarako, lurralde espainiarrean egoitzarik ez duen entitatearen ekitaldi soziala ixtean indarrean dagoen kanbio tasa erabiliko da.

7. Ez da egotziko dibidenduetan edo mozkin partaidetzetan egotzita dagoen errenta positiboari dagokion zatia. Tratamendu berbera emango zaie konturako dibidenduei.

Erreserbak banatzekotan, akordio sozialean jasotako izendapenari egingo zaio kasu, erreserba horietara zuzendutako azken kopuruak aplikatutzat hartuta.

Errenta positibo bera behin bakarrik egotzi daiteke, nola eta zein entitatetan sortzen den kontuan hartu gabe.

8. Dibidenduak edo mozkin partaidetzak banatzeagatik atzerrian ordaindutako zerga edo karga ken daiteke kuotatik, oinarri ezargarrian sartutako errenta positiboari dagokion zatian betiere. Atzerriko zerga ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmen bat aplikatuz edo dena delako herrialde edo lurraldearen barne legeriari jarraituz ordain daiteke.

Kenkari hori egingo da, nahiz eta zergak ez izan diru sarrera gauzatu zen zergaldi berekoak.

Inoiz ez dira kengarriak izango paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldeetan ordaindutako zergak.

Kenkari hau ezin da izan oinarri ezargarrian egotzitako errenta positiboarengatik Espainian ordaindu beharko litzatekeen kuota osoa baino handiagoa.

9. Partaidetzaren eskualdaketatik datorren errenta kalkulatzeko, partaidetza zuzena edo zeharkakoa dela ere, foru arau honetako 47. artikuluko 1. apartatuaren c) letran jasotako erregelak erabiliko dira, oinarri ezargarrian egotzitako errenta positiboari dagokionez. Artikulu horretan aipatzen diren mozkin sozialak egotzitako errenta positiboari dagozkionak izango dira.

10. Artikulu honetan jasotakoa aplikagarria zaien zergadunek Espainian egoitza ez duen entitateari buruzko datu hauek aurkeztu behar dituzte zerga honen autolikidazioarekin batera:

- a) Izena edo sozietate izena, eta sozietate helbidea.
- b) Administrazioaileen zerrenda.
- c) Balantzea, eta galera eta irabazien kontua.
- d) Egotzi behar diren errenta positiboaren zenbatekoa.
- e) Egotzi behar den errenta positiboari dagokionez ordaindutako zergen justifikazioa.

11. Entitate partaidetuaren egoitza paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldeetan dagoenean, hau ulertu behar da:

a) Aurreko 1. apartatuko b) letran jasotako zirkunstantzia betetzen dela.

b) Entitate partaidetuak lortutako errenta aurreko 2. apartatuan aipatzen diren errenta iturrietatik eratorria dela.

c) Entitate partaidetuak lortutako errenta partaidetzaren eskurapen balioaren % 15 dela.

Aurreko letretan aipatutako presuntzioek aurkako frogara onartuko dute.

Aurreko letretan aipatutako presuntzioak ez dira aplikatuko entitate partaidetuak errenta oinarri ezargarrian sartzera behartutako entitate batekin edo batzuekin kontuak bateratzen dituenean, Merkataritza Kodeak 42. artikuluan ezarritakoaren arabera.

12. Entitate partaidetuak Europar Batasuneko beste estatu kide bateko egoiliarra bada eta ez badago artikuluko 11. apartatuan aipatzen diren kasuetako batean, zergadunak aukera izango du artikuluko honetan ezartzen dena ez aplikatzeko, baina, horretarako, frogatu beharko du entitate partaidetua benetan ezarrita dagoela hark egoitza duen estatuan eta entitate horren egitura ez dela artifizia, Sozietateen gaineko Zergako tributazioa gutxitzeko helburu hutsarekin eratutakoa. Bada, frogatu beharko du zergadunaren zerga karga gutxitzea dakarten transakzioak benetan egin direla haren egoitzako estatuan eta transakzio horiek interes ekonomikoa dutela zergadunaren jarduerari dagokionez.

Bereziki, egitura hori artifizia hutsa ez dela frogatzeko, frogara elementu objektiboak aurkeztu behar ditu zergadunak, zeinetan azaldu behar den zenbateko presentzia fisikoa duen sozietate partaidetuak haren egoitzako estatuan, zein den sozietate partaidetuak egindako jardueraren benetako substantibotasuna eta zein den sozietate partaidetuaren jardunaren balio ekonomikoa, zergadunaren nahiz talde osoaren jardunari dagokionez.

13. Artikulu honetan jasotakoa gorabehera, indarrean jarraituko du barne ordenamenduaren parte bihurtu diren nazioarteko tratatu eta hitzarmenetan xedatutakoak.

52. artikulua. Paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldeetan eratu diren inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide edo partaideek zerga ordaintzea.

1. Paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldeetan eratu diren inbertsio kolektiboko erakundeetan parte hartzen duten zergadunek oinarri ezargarri orokorrean egotzi behar dute zergaldiaren amaiera egunean partaidetzak duen likidazio balioaren eta eskurapen balioaren arteko diferentzia positiboa.

Egotzitako diru kopurua eskurapen balio handiagotzat hartuko da.

2. Aipatutako inbertsio kolektiboko erakundeek banatutako mozkinak ez dira egotziko, eta akzioaren edo partaidetzaren eskurapen balioa gutxituko dute.

3. Aurkako frogarik ez badago, uste izango da aurreko 1. apartatuan aipatzen den diferentzia akzio edo partaidetzaren eskurapen balioaren % 15 dela.

4. Akzioak edo partaidetzak eskualdatu edo ordaintzetik eratorritako errenta foru arau honetako 47. artikuluan 1. apartatuaren d) letran xedatutakoaren arabera zehaztuko da, eta, horretarako, eskurapen baliotzat jo behar da aurreko apartatuetan jasotakoa ezartzetik ateratzen dena.

2. SEKZIOA ERRENTAK ESLEITZEA

53. artikulua. Errentak esleitzeko araubideari lotutako entitateak.

Errentak esleitzeko araubideari lotutako entitatetzat hartuko dira foru arau honek 11. artikuluan aipatzen dituenak eta, bereziki, atzerrian eratutako entitateak, horien izaera juridikoa Espainiako legeen arabera eratuta dauden errenta esleipeneko entitateen berdina edo antzekoa bada.

Esleipen araubideari lotutako entitateen errentak sekzio honetan ezarritakoari jarraituz esleitu zaizkie, hurrenez hurren, bazkide, oinordeko, erkide edo partaideei.

54. artikulua. Esleitutako errentaren kalifikazioa.

Esleipen araubideari lotutako entitateek bazkide, oinordeko, erkide edo partaideei esleitutako errenten izaera izango da horietako bakoitzarentzat eratortzen diren jardura edo errenta iturritik ondorioztatzen dena.

Errentak esleitzen dituen entitateak jardura ekonomiko bat egiten badu, jardura horri dagozkion etekinek izaera bera izango dute entitateko bazkide, oinordeko, erkide edo partaideentzat, jarduerari atxikitako produkzio bideen eta giza baliabideen antolaketan beren kontura, zuzenean, pertsonalki eta ohikotasunez esku hartzen dutenean.

Dena den, esleitutako etekinak kapital etekintzat hartuko dira bazkide, oinordeko, erkide edo partaideek ez badute antolaketa horretan esku hartzen eta entitatean duten partaidetza kapitala jartzera bakarrik mugatzen bada. Kasu horretan, uste izango da jarritako kapitalaren % 15 egotzi daitekeela gehienez.

55. artikulua. Esleitu daitekeen errenta eta konturako ordainketak kalkulatzeari.

1. Bazkide, oinordeko, erkide edo bazkide bakoitzari esleitu beharreko errentak kalkulatzeko, erregela hauek erabiliko dira:

1.a Errentak zerga honen arauari jarraituz zehaztuko dira, eta ez dira aplikatuko foru arau honetako 25. artikuluko 4. apartatuan, 30. artikuluko 3. apartatuan eta 39. artikuluko 3. apartatuan jasotako integrazio portzentajeak, berezitasun hauekin:

a) Esleitu daitekeen errenta Sozietateen gaineko Zergaren araudian jasotakoaren arabera zehaztuko da kasu honetan: errenten esleipen araubidean dagoen entitateko kide guztiak zerga horretako zergadun edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren establezimendu iraunkorreko zergadunak direnean, baina bakarrik lehenengo kasuan ez badira ondare sozietatetzat jotakoak.

b) Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren establezimendu iraunkorrik gabeko zergadunei esleitu dakiekeen errenta zehazteko, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren IV. kapituluan jasotakoari jarraituko zaio.

c) Errenten esleipen araubidean dagoen entitateko kideei —Sozietateen gaineko Zergaren zergadunak izan edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadun izan, establezimendu iraunkorrekoak zein establezimendu iraunkorrik gabeak, baina pertsona fisiko ez direnak— esleitu dakiekeen errenta kalkulatzeko, ez da aplikatuko foru arau honetako lehen xedapen iragankorrean ezarritakoa, errenta hori jardura ekonomikoen garapenari ez dagozkion osagaiak eskualdatzetik eratorri diren ondare irabazietatik sortutakoa bada.

2.a Aurreko 1. erregelan adierazitakoaren arabera zehaztuko da zerga honen edo Sozietateen gaineko Zergaren zergadun diren bazkide, oinordeko, erkide edo partaideei —atzerrian eratu den eta errenten esleipen araubidean dagoen entitate bateko kide direnean— esleitu dakiekeen errentaren zatia.

3.a Errentak esleitzen dituen entitateak atzerrian lortzen baditu errentak, eta atzerriko herrialde horrek ez badu Espainiarekin sinatuta ezarpen bikoitza saihesteko eta informazioa elkarri trukatzeko hitzarmenik, errenta negatiboak ez dira konputatuko herrialde berean lortu eta iturri beretik datozen positiboak baino handiagoak direnean.

Soberakina ondorengo lau urteen barruan konputatuko da, 3. erregelari adierazitakoaren arabera.

2. Zerga honen arauari jarraituz, errenta hauek atxikipenaren edo konturako sarreraren mendeko izango dira: errenten esleipen araubidean dauden entitateei ordaindutako errentak, kontuan hartu gabe beren kide bat edo guztiak zerga honen zergadun diren, Sozietateen gaineko Zergaren zergadun diren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadun diren ala ez. Atxikipen edo konturako sarrera hori bazkide, oinordeko, erkide edo partaidearen ezarpen pertsonaletik kenduko da, errentak egozten zaizkion proportzio berean.

3. Kasu bakoitzean aplikatu daitezkeen arau edo itunen arabera esleitzeko zaizkie errentak bazkide, oinordeko, erkide edo partaideei, eta zerga administrazioak ez badu horien berririk modu fidagarrian, zati berdinetan esleitzeko zaie.

4. Errenten esleipen araubidean dagoen entitate horretako kideek, zerga honen zergadun direnean, euren autolikidazioan foru arau honetako 25. artikuluko 4. apartatuan, 30. artikuluko 3. apartatuan eta 39. artikuluko 3. apartatuan jasotako integrazio portzentajeak erabili ahal izango dituzte.

5. Sozietateen gaineko Zergaren zergadunek eta establezimendu iraunkorra duten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek euren oinarri ezargarrian integratuko dute aipatutako akzio edo partaidetzetatik datozen kontabilizatutako edo kontabilizatu beharreko errenten zenbatekoa, errenten esleipen araubidean dagoen entitate bateko kide direnean eta entitate horrek inbertsio kolektiboko erakundeetan akzioak edo partaidetzak eskuratzen dituenen. Halaber, euren oinarri ezargarrian integratuko dute kapital propioetatik hirugarren batzuei lagatako kapital higigarriaren etekinen zenbatekoa, etekin horiek errenten esleipen araubidean den entitatearen alde sortu direnean.

56. artikulua. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek informatzeko duten obligazioa.

1. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek aitorpen informatiboa aurkeztu behar dute erregelamendu bidez ezartzen den edukiarekin. Bazkide, oinordeko, erkide edo partaideei esleitu beharreko errentak adieraziko dira aitorpen horretan, lurralde espainiarrean egoiliarrek izan edo ez.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den informatzeko obligazioa bete behar du errentak esleitzeko araubidean dagoen entitatearen ordezkariak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 45. artikuluen 3. apartatuan jasotakoaren arabera hala izendatua izan denean, edo, bestela, entitateak atzerrian eratu badira, zerga honen zergadun edo Sozietateen gaineko Zergaren zergadun diren entitateko kideek.

3. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek bazkideei, oinordekoei, erkideei edo partaideei jakinarazi beharko diete entitatearen errenta osoa eta haietako bakoitzari esleitu beharreko errenta, erregelamendu bidez jasotzen denaren arabera.

4. Artikulu honetan aipatzen den aitorpen informatiboa zein eredutan eta zein epetan, non eta nola aurkeztu beharko den Ogasun eta Finantzaketako foru diputatuak erabakiko du.

5. Jarduera ekonomikorik egiten ez badute eta beren urteko errentak 3.000 eurotik gorakoak ez badira, errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek ez dute artikulua honetako 1. apartatua aipatzen den aitoren inforatiborik aurkeztu beharko.

VII. KAPITULUA DENBORAREN ARABERAKO EGOZPENA.

57. artikulua. Denboraren arabera egozpena.

1. Oro har, eta foru arau honetan ezarritakoa eragotzi gabe, zergaren oinarrian jaso behar diren errentak zehazteko, hala sarrerak nola gastuak, batzuk zein besteak sortu diren zergaldikoak izango dira, ordaindu edo kobratu diren unea beste bat izan arren. Bereziki, irizpide hauek aplikatuko dira:

a) Lanaren eta kapitalaren etekinak jasotzaileak exijitzen dituen zergaldiari egotziko zaizkio.

b) Jarduera ekonomikoen etekinak Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak ezarritako eran egotziko dira, foru arau honetan edo arau bidez ezar daitezkeen berezitasunak eragotzi gabe.

c) Ondare irabaziak eta galerak ondare aldaketa hori izan den zergaldiari egotziko zaizkio.

2. Erregela bereziak:

a) Errenta ez bada bere osoan edo zati batean ordaindu jasotzeko eskubidea edo kopurua erabaki judizialaren zain dagoelako, ordaindu ez diren kopuruak erabaki judiziala irmo bihurtzen den zergaldiari egotziko zaizkio.

b) Gertatzen bada, zergadunarekin zerikusirik ez duten arrazoi justifikatuengatik, lanaren etekinak ez direla jasotzen exijigarri diren zergaldietan, beste batzuetan baizik, exijigarri diren haiei egotziko zaizkie etekinak. Horrelakoetan, autolikidazio osagarri bat egingo da, zigorrik, berandutza interesik eta inolako errekarurik ezarri gabe. Aurreko a) letran jasotako zirkunstantziak gertatzen direnean, etekinak exijigarriak izango dira erabaki judiziala irmo bihurtzen den zergaldian.

Aurreko paragrafoan aipatutako autolikidazioa, etekinak jasotzen diren egunetik zerga honen ondorengo autolikidazioa egiteko epea amaitu bitartean aurkeztu behar da.

c) Lan arloko araudian jasotakoaren arabera, langabeziaren prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jasotzen den kasuetan, aukera horretaz baliatu izan gabe prestazioa jasotzeko eskubidea izango zukeen zergaldi bakoitzaren artean banatu eta egotzi daiteke. Egozpena zergaldi bakoitzean egitekotan, ordainketa bakarreko modalitatean izan ez bada, prestazioa jasotzeko eskubidea izango zuen denboraren arabera banatuko da proportzionaliki.

d) Beren jarduera ekonomikoaren etekin garbia zehazteko zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztua erabiltzen duten zergapekoek aukera izango dute sarrera eta gastuak denboraren arabera egozteko kobrantza eta ordainketaren irizpidea erabiliz, baina betiere baldintza hauek beteta:

Lehena: Sarrera edo gastuen zerga sailkapenean inolako aldaketarik ez eragitea.

Bigarrena: Eragina izan behar duten ekitaldiko autolikidazioa egiterakoan adieraztea.

Hirugarrena: Denboraren araberako egozpenerako irizpideak aldatzeak ez eragitea egotzi gabeko gastu edo sarrerarik izatea eta, horretarako, egozpen irizpidea aldatu aurretik dagokion erregularizazioa egitea.

Laugarrena: Egozpen irizpidea berdina izatea irizpide hori aplikatzen zaion jarduera ekonomikoaren ondorioz sortutako sarrera eta gastu guztietarako.

Dena delako autolikidazioan adierazita uztea aski izango da zerga administrazioak ontzat eman dezan kobrantzen eta ordainketen irizpidea, eta gutxienez hiru urtez mantendu beharko da.

e) Epeka edo prezio geroratuarekin egindako eragiketen kasuan, zergadunak proportzionalki egotzi ahal izango ditu eragiketa horietan izandako errentak, dagozkion kobrantzak exijigarriak diren neurrian.

Eragiketak epeka edo prezio geroratuarekin egiten direla jotzen da beren prezio osoa edo haien zati bat ordainketa jarraituetan jasotzen denean eta ondasuna eman denetik azken epearen mugaegunera arte igarotako denbora urtebetetik gorakoa denean.

Epeka edo prezio geroratuarekin egindako eragiketa bat osorik edo zati batean kanbio efektuak jaulkiz ordaindu bada, eta efektu horiek epemugaren aurretik irmo eskualdatzen badira, eskualdaketa egin den zergaldiari egotziko zaio errenta.

Biziarteko edo aldi baterako kontratuetatik etorritako eragiketek inoiz ez dute tratamendu hori izango eskualdatzailearentzat. Ondasunak eta eskubideak biziarteko edo aldi baterako errenta baten truke eskualdatzen direnean, errenta hura eratzen den zergaldiari egotziko zaio errentadunaren ondare irabazia edo galera.

f) Dibisa edo atzerriko moneten saldoetako kontuetan haien kotizazioetan izandako aldaketaren eraginez gertatzen diren diferentzia positiboak edo negatiboak ordaindu edo kobratu den momentuari dagokion zergaldiari egotziko zaizkio.

g) Foru arau honetako 7. artikuluan kalkulaturako errentak ustez gertatu diren zergaldiari egotziko zaizkio.

h) Foru arau honetako 39. artikuluan aipatzen den kapital higikorren zergaldi bakoitzeko etekin gisa hau egotziko da: aseguru hartzaileak inbertsioaren arriskua bereganatzen duen aseguru kontratuetan, polizari loturiko aktiboek zergaldi hasieran duten likidazio balioaren eta zergaldi amaieran dutenaren arteko diferentzia. Egotzitako zenbatekoak gutxitu egingo du kontratu horietan diru kopuruak jasotzetik sortutako etekina.

Zirkunstantzia hauetako bat gertatzen den kontratuetan, ez da aplikatuko denboraren araberako egozpenaren erregela berezi hau:

A) Hartzaileari ez ematea polizak eragindako inbertsioak aldatzeko ahalmena.

B) Hauek izatea hornidura matematikoen inbertsio gaiak:

Lehen. Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak, kontratuetan aurrez finkatuak, baldin eta inbertsio kolektiboko erakunde horiek Inbertsio Kolektiboek buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen xedapenetara egokituta badaude edo Europako Kontseiluak 1985eko abenduaren 20an emandako 85/611/EEE Zuzentarauan babesa badute.

Bigarrena. Aseguru entitatearen balantzean bereizita adierazitako diren aktibo multzoak, baldintza hauek betetzen badira:

1.a Momentu guztietan aseguru entitateak erabakiko du zein aktibo sartzen den bereizita aktibo multzo desberdin bakoitzean; ondorio horietarako, aktiboak aukeratzeko askatasun osoa izango dute entitate horiek, aktibo multzoaren arrisku profilari edo bestelako zirkunstantzia objektiboei buruz aurrez erabakitako irizpide orokorreari lotuta bakarrik.

2.a Hornidura teknikoaren inbertsioak jaso ditzaketen aktiboetan inbertitu behar dira hornidurak, eta aktibo horiek azaroaren 20ko 2486/1998 Errege Dekretuak, Aseguru Pribatuak Antolatu eta Ikuskatzeko Erregelamenduari buruzkoak, 50. artikuluan jasotzen dituenak izango dira, ondasun higiezinak eta eskubide erreal higiezinak izan ezik.

3.a Aktibo multzo bakoitzeko inbertsioek dibertsifikazio eta sakabanaketa mugak bete beharko dituzte, Aseguru Pribatuak Antolatu eta Ikuskatzeko Legearen testu bateginari buruzko martxoaren 5eko 6/2004 Errege Dekretu Legegileak, haren Erregelamenduari buruzko azaroaren 20ko 2486/1998 Errege Dekretuak eta hura garatzeko ematen diren gainerako arauak izaera orokorreaz jasotakoaren arabera.

Dena den, aktibo multzoek baldintza horiek betetzen dituztela ulertu behar da haien helburua denean Europar Batasuneko bigarren mailako balore merkatu ofizialetako batean burtsako edo errenta finkoko indize jakin bat erreproduzitzera zuzenduta dagoen inbertsio politika bat garatzea.

4.a Hartzaileak ahalmen bakarra izango du, alegia aseguru entitateak asegurua hornidura matematikoa aktiboen zein multzo bereizitan inbertitu behar duen aukeratzeko ahalmena. Inoiz ez du parte hartuko multzo bereizi bakoitzaren barruan hornidura horiek zein aktibo konkretutan inbertituko diren erabakitzerakoan.

Kontratu hauetan, hartzaileak edo aseguratuak kontratuaren berariaz izendatuta dauden inbertsio kolektiboko erakundeen edo aktibo multzo bereiztuen artean aukeratu ahal izango du polizan jasotako zehaztapenei jarraiki, eta inoiz ere ezin izango da bereizitasun singularrik ezarri hartzaile edo aseguratu bakoitzarentzat.

Letra honetan aipatzen diren baldintzak kontratuaren indarraldi osoan bete behar dira.

i) Kapital higiezinaren etekinak kobrantza gertatzen den zergaldiari egotziko zaizkio.

3. Zergapekoa atzerrira joanez gero egoitza aldatu eta zergadun izateari uzten badio, egozteko dauzkan errenta guztiak, egoitza aldatu aurreko tokian zerga honengatik aitortu beharreko azken zergaldiari dagokion oinarri ezargarrian jaso behar dira, erregelamendu bidez finkatzen diren baldintzetan eta, hala badagokio, autolikidazio osagarri bat eginez, zigorrik, berandutza interesik eta inolako errekararik gabe.

4. Zergaduna hilez gero egozteko dauden errenta guztiak, era berean, aitortu beharreko azken zergaldiko oinarri ezargarrian jaso behar dira.

VIII. KAPITULUA BALORATZEKO ERREGELA BEREZIAK

58. artikulua. Errenta zenbatetsiak baloratzea.

1. Foru arau honetako 7. artikuluan aipatzen diren errenta zenbatetsiak merkatuko ohiko balioaren arabera baloratuko dira. Merkatuko ohiko balioztat hartuko da subjektu independenteen artean adostuko litzatekeen kontraprestazioa, non eta aurkako frogarik ez dagoen.

2. Mailegu eta besteren kapitalak erakarri edo erabiltzeko eragiketen kasuan, merkatuko ohiko baliotzat hartuko da zergaldiko azken egunean diruak merkatuan duen legezko interes tasa.

3. Zergadunak bere jarduera ekonomikoko ondasunak doan laga edo hirugarren batzuei uzten dizkionean edo bere erabilera edo kontsumorako dituenean, jarduera horren etekin garbia zehazteko unean aipatutako ondasun, eskubide edo zerbitzuek merkatuan duten ohiko balioari begiratuko zaio.

Era berean, kontraprestaziorik badago eta hori ondasunek, eskubideek eta zerbitzuek merkatuan duten ohiko balioa baino txikiagoa bada, azken hori hartuko da kontuan.

4. Zerga administrazioak dituen datuetatik ondorioztatzen bada zergadunaren titulartasuneko ondasun higiezinak errentan edo azpierrean emanak daudela, edo ondasun horien gaineko erabilerako edo gozameneko eskubide edo ahalmenak laga direla, eta autolikidazioan ez badira etekinak konputatzen, kapital higiezinaren etekin garbia zenbatetsiko da, higiezin horrek Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoaren arabera duen balioaren % 5. Dena dela, ez da halako baliorik zenbatetsiko baldin eta ondasun higiezin horren edo haren gaineko eskubide errealearen eskuratzailerik, lagapen-hartzaile, errentari edo azpierrearia zergadunaren ezkontidea, izatezko bikotea edo ahaidea bada, ezkonahaiak hirugarren mailara artekoak barne.

59. artikulua. Eragiketa lotuak.

Elkarri lotutako pertsona edo entitateen arteko eragiketen balorazioa merkatuko ohiko balioaren arabera egingo da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 42. artikuluan jasotako eran.

60. artikulua. Gauza bidez jasotako errentak.

1. Oro har, gauza bidez jasotako errentak merkatuan duten ohiko balioaren arabera baloratuko dira, baina balio hori inolaz ere ezingo da izan gauzok ordaintzaileari eragin dioten kostua baino txikiagoa, tributuak eta gastuak barne.

2. Gauza bidez jasotako lan etekinak ondoren adierazten diren erregela berezien arabera baloratuko dira:

a) Ordaintzailearen etxebizitza erabiltzen den kasuetan, haien balio katastralaren % 4 aplikatuz lortzen den balioa hartuko da.

Zergaren sortzapen egunean ondasun higiezinak ez badute balio katastralik edo hori ez bazaio titularrari jakinarazten, haren ordeztatu hartuko da Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren ondorioetarako kontuan hartu beharreko balioaren % 50.

Ordaintzailearena ez den etxe bat erabiltzen den kasuan, horrek ordaintzailearentzat dakarren kostuaren arabera, tributuak eta gastuak barne; dena dela, horren ondoriozko balorazioa ezingo da izan aurreko paragrafoan xedaturikoa aplikatuz legokioketena baino txikiagoa.

Halaber, ordaintzaileak etxea erabiltzetik datozen gastuak ordaintzen dituenean (ura, gasa, argindarra eta etxeari loturiko beste edozein gastu), gastuok hari dakarkioten kostua.

b) Ibilgailuak erabili edo ematen diren kasuetan, direla turismoko ibilgailuak eta beren atoiak, ziklomotorrak eta motozikletak, aisiarako ontziak edo itsas kiroletako ontziak eta aireontziak, denak ere ordaintzailearenak.

- Ibilgailua entregatzen bada, eskurapenak ordaintzaileari dakarkion kostua hartuko da, eragiketa kargatzen duten zergak barne.

- Ibilgailua erabiltzen bada, aurreko paragrafoan aipatzen den kostuaren urteko % 20 hartuko da.

- Ibilgailua erabili eta, horren ondoren, entregatzen bada, azken honen balorazioa aurreko erabileraren ondorioz ateratzen den balorazioa kontuan hartuz egingo da.

Baldin eta aipaturiko garraiobideak ez badira ordaintzailearenak, garraiobideok erabiltzeak hari dakarkion kostua hartuko da kontuan, tributuak eta gastuak barne.

Goian aipaturiko kasu guztietan, ordaintzaileak ordaintzen dituen ibilgailua erabiltzeari berez dagozkion gastuak (hala nola konponketak, erregaia, aparkalekua eta ordaindu beharreko autobideak), horrek ordaintzaileari dakarkion kostua.

Ibilgailua lanerako zein helburu partikularretarako erabiltzen denean, gauza bidezko ordainketaren balorazioa izango da letra honetan jasotako erregelak dena delako kasuari aplikatu ondoren ateratzen den emaitzaren % 50.

c) Diruaren legezko interes tasatik behera ematen diren maileguetan, balorazioa ordaindutako interesaren eta zergaldian indarrean dagoen legezko interesaren arteko diferentzia izango da.

d) Ondorengo errentak badira, balorazioa ordaintzailearentzat izan den kostuaren arabera egingo da, eragiketa kargatzen duten zergak barne:

- Mantenu, ostatu, bidaia eta antzeko kontzeptuengatik izandako prestazioak.

- Aseguru edo antzeko beste kontratuengatik enpresak ordaindu dituen primak edo kuotak, foru arau honek 17. artikularen 2. apartatuko f), g) eta i) letretan xedatutakoa eragotzi gabe.

- Zergadunaren, bere ezkontidearen edo izatezko bikotearen ikasketa eta mantenu gastuak ordaintzeko erabiltzen diren kopuruak, edota hari ahaidetasun harreman batez loturiko pertsonenak ordaintzeko direnak (ezkonahaiddeenak edo izatezko bikoteak sortaraz ditzakeen bestelako ahaideenak). Nolanahi ere, foru arau honetako 17. artikularen 2. apartatuko d) letran ezarritakoa bete behar da.

Beren zenbateko osoan, borondatezko gizarte aurreikuspenetarako entitateetako bazkide babesleek eta pentsio planen sustatzaileek ordaindutako kontribuzioak nahiz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2003ko ekainaren 3an enplegu pentsioen jardueri eta fondo ikuskapenei buruz emandako 2003/41/EE Zuzentarauak jasotako enpresa sustatzaileek ordaindutako kontribuzioak, bai eta enpresariak, Pentsio plan eta fondoak arautzen dituen Legearen testu bateginaren lehen xedapen gehigarrian eta legea garatzen duen araudian jasotako pentsio konpromisoei aurre egiteko, ordaindu dituzten kopuruak ere. Era berean, mendetasun aseguruei enpresaburuek ordaindutako diru kopuruen zenbatekoa.

Aurreko letretan jasotakoa jasota ere, lan etekina dakarten jarduerak egitea ohiko jarduera duten enpresek ordaintzen dutenean, balorazioa ezingo da txikiagoa izan dena delako ondasun, eskubide edo zerbitzu horrek jendearentzat duen prezioa baino.

Jendeari eskainitako prezioztat hartuko da abenduaren 22ko 6/2003 Legeak, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua onartzen duenak, 15. artikuluan aurreikusten duena, deskontu arruntak edo ohikoak kenduta. Deskontu arrunt edo ohikotzat hartuko dira enpresako langileen pareko diren beste gizatalde batzuei eskaintzen zaizkienak eta, orobat, promozio deskontu orokorrak izanik gauza bidezko ordainketa egiteko unean indarrean daudenak edo, beste edozein kasutan, % 15eko portzentajea edo urtean 1.000 euroko kopurua gainditzen ez dutenak.

3. Jarduera ekonomiko baten barruan lortzen diren gauza bidezko errentak Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan xedatutakoaren arabera baloratuko dira.

4. Gauza bidez lortutako ondare irabaziak foru arau honetako 46. eta 49. artikuluetan xedatutakoaren arabera baloratuko dira.

5. Gauza bidez jasotzen diren errentak oinarri ezargarrian integratzeko, aurreko neurriak aplikatuz ateratzen den balioari konturako sarrera batu behar zaio, non eta horren zenbatekoa ez zaion jasanarazi errentaren jasotzaileari.

IX. KAPITULUA ERRENTA MOTAK

61. artikulua. Errenta motak.

Zerga kalkulatzeko, zergadunaren errentak honela sailkatuko dira, kasuan zer dagokion: errenta orokorrak edo aurrezpenaren errentak.

62. artikulua. Errenta orokorra.

Honako hauek osatuko dute errenta orokorra: ondorengo artikuluan xedatutakoaren arabera, aurrezpenaren errentatzat jotzen ez diren etekinak nahiz ondare irabazi eta galerak, bai eta honako xedapen hauetan aipatzen diren errenta egozpenak ere: foru arau honetako 51. eta 52. artikuluetan, eta Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren VI. tituluaren III. kapitulan.

63. artikulua. Aurrezpenaren errenta.

Aurrezpenaren errentatzat hartuko dira:

a) Foru arau honek 35. artikuluan 1. apartatuan aipatzen dituen etxebizitzetatik datozen kapital higiezinaren etekinak.

b) Foru arau honetako 34, 35 eta 36. artikuluetan jasotako kapital higikorraren etekinak. Hala ere, salbu erregelamendu bidez jasotzen diren kasuetan, foru arau honetako 35. artikuluan eta 54. artikuluko hirugarren paragrafoan jasotako kapital higikorraren etekinak, zergadunari loturiko entitateetatik datozenean, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 42. artikuluan emandako zentzuan, errenta orokorraren parte izango dira.

c) Ondare osagaien eskualdaketak direla-eta adierazten diren ondare irabaziak eta galerak.

X. KAPITULUA ERRENTAK INTEGRATZEA ETA KONPENTSATZEA

64. artikulua. Errentak integratzea eta konpentsatzea.

1. Oinarri ezargarria kalkulatzeko, zergadunaren errenten zenbateko positiboak edo negatiboak foru arau honetan jasotakoaren arabera integratu eta konpentsatuko dira.

2. Errentaren sailkapena kontuan hartuta, oinarri ezargarria bi alderditan zatituko da:

a) Oinarri ezargarri orokorra.

b) Aurrezpenaren oinarri ezargarria.

65. artikulua. Errentak oinarri ezargarri orokorrean integratzea eta konpentsatzea.

Oinarri ezargarri orokorra saldo hauen batura izango da:

a) Batetik, foru arau honek 64. artikuluan aipatzen dituen etekinak —salbu jarduera ekonomikoetatik eratorritakoak— eta errenta egozpenak, haien artean zergaldi bakoitzean eta inolako mugarik gabe, elkarrekin integratu eta konpentsatuz ateratzen den saldoa.

b) Jarduera ekonomikoetatik sorturiko etekinak, zergaldi bakoitzean eta inolako mugarik gabe, elkarrekin integratu eta konpentsatuz ateratzen den saldo positiboa. Eraitza saldo negatiboa bada, horren zenbatekoa ondorengo 15 urteetako jarduera ekonomikoetatik lorturiko etekinen saldo positiboarekin konpentsatu behar da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 55. artikuluaaren arabera.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren 115. artikuluaaren 3. apartatua ezarritakoaren ondorioetarako, zergadunak adierazi behar du ea aplikatu nahi duen saldo negatiboen konpentsaziorako aurreko paragrafoan adierazten den aukera hori; konpentsazioa aplikatu nahi duen ekitaldiko autolikidazioa aurkezterakoan egin behar du adierazpen hori. Zergaldi baterako egiten den aukera geroago aldatu daiteke, hain zuzen ere, zergaren autolikidazioa egiteko borondatezko epea amaitu ondoren, baina zerga administrazioak ez badu aurretiazko errekerimendurik egin.

c) Ondare irabaziak eta galerak, soil-soilik haien artean eta zergaldi bakoitzean, integratuz eta konpentsatuz ateratzen den saldo positiboa, foru arau honen ondorengo artikuluan jasotakoak alde batera utzita.

Artikulu honen c) letran aipatzen den integrazio eta konpentsazioaren emaitza saldo negatiboa bada, horren zenbatekoa artikulu honetako a) eta b) letretan jasotako errenten saldo positiboarekin konpentsatu behar da, hau da, zergaldi berean lortutako saldo positiboarekin, muga izanik saldo horren % 25. Konpentsazio hori egin eta saldo negatiboa ateratzen bada, zenbateko hori ondorengo lau urteetan zehar konpentsatuko da, artikulu honetako aurreko letretan ezarri den hurrenkera berari jarraituz. Ondorengo ekitaldi bakoitzean onar daitekeen gehieneko kopuruan egin beharko da konpentsazioa, betiere lau urteko epearen barruan, aurreko ekitaldietan ondare galera moduan jasoz.

66. artikulua. Errentak aurrezpenaren oinarri ezargarrian integratzea eta konpentsatzea.

1. Aurrezpenaren oinarri ezargarria saldo hauek batuta lortzen den saldo positiboa izango da:

a) Zergaldi bakoitzean, foru arau honetako 65. artikuluaaren a) eta b) letretan aipatzen diren etekinak euren artean soil-soilik integratuz eta konpentsatuz lortutako saldo positiboa.

Apartatu honen a) letran aipatzen diren errentak integratu eta konpentsatu ondoren, emaitza saldo negatiboa bada, zenbateko hori a) letra honetan aipatzen diren etekinen saldo positiboarekin baino ezingo da konpentsatu, hain zuzen ere, ondorengo lau urteetan agerian jartzen direnekin.

a) Zergaldi bakoitzean, foru arau honetako 63. artikulua c) letran aipatzen diren zergaldi bereko ondasun irabaziak eta galerak euren artean soil-soilik integratuz eta konpentsatuz lortutako saldo positiboa.

Apartatu honen b) letran aipatzen diren errentak integratu eta konpentsatu ondoren, emaitza saldo negatiboa bada, zenbateko hori b) letra honetan aipatzen diren irabazi eta galeren saldo positiboarekin baino ezingo da konpentsatu, hain zuzen ere, hurrengo lau urteetan agerian jartzen direnekin.

2. Aurreko apartatuan jasotako konpentsazioak ondorengo ekitaldietako bakoitzak baimentzen duen kopuru gehienekoan egingo dira eta, bide batez, aurreko apartatuan aipatzen den lau urteko epearen barruan egin beharko da, ondorengo ekitaldietan errenta negatiboak bailiran jasoz.

Zergadunak agiri bidez frogatu beharko du, hala badagokio, zein ekitaldietakoak diren eta zein zenbateko duten konpentsatu nahi dituen saldo negatiboak, sortu diren ekitaldia edozein dela ere.

V. TITULUA OINARRI LIKIDAGARRIA

67. artikulua. Oinarri likidagarria: orokorra eta aurrezpenarena.

1. Oinarri likidagarri orokorra eta aurrezpenaren oinarri likidagarria batuz lortuko da oinarri likidagarria.

2. Oinarri likidagarria lortzeko, oinarri ezargarri orokorrean murrizpen hauek egin behar dira, baina hauek bakar-bakarrik, eta hurrenkera honetan:

Lehena. Pentsio konpentsagarrien eta urteko mantenuen ordainketarengatik.

Bigarrena. Gizarte aurreikuspeneko sistemaren alde egindako ekarpen eta kontribuzioengatik.

Hirugarrena. Baterako tributazioarengatik.

Apartatu honetan aipatzen diren murrizpenak aplikatuz ezin da lortu oinarri likidagarri orokor negatiborik, ez eta hori gehitu ere.

3. Aurrezpenaren oinarri likidagarria lortzeko, aurrezpenaren oinarri ezargarriari 69. artikuluan jasotako murrizpenaren gerakina kendu behar zaio, halakorik badago. Kenketaren ondorioz, aipatu oinarria ezin da negatiboa izan.

68. artikulua. Oinarri likidagarri orokor negatiboak konpentsatzea.

Oinarri likidagarri orokorra negatiboa bada, ondorengo lau urteetan lortzen diren oinarri likidagarri orokor positiboekin konpentsatu daiteke haren zenbatekoa.

Ondorengo ekitaldietarako finkatzen den gehieneko kopurua kontuan hartuta egin behar da konpentsazioa, aurreko paragrafoan aipatzen den epearen barruan eta ondorengo urteetako oinarri likidagarri orokor negatiboetarako metatuz.

Hala badagokio, zergadunak agiri bidez frogatu behar du nondik datozen eta zenbatekoak diren konpentsatu nahi dituen oinarri likidagarri orokor negatiboak, horiek sortu ziren ekitaldia edozein dela ere.

69. artikulua. Murrizpenak pentsio konpentsagarriengatik eta urteko mantenuagatik.

Oinarri ezargarri orokorrari eta, hala badagokio, aurrezpenaren oinarri ezargarriari murriztu behar zaizkie, foru arau honek 67. artikuluan jasotakoari jarraituz, epailearen aginduz ezkontidearen edo izatezko bikotearen alde emandako pentsio konpentsagarriengatik eta urteko mantenuagatik ordaindutako zenbatekoak, zergadunaren seme-alabei ordaindutakoak izan ezik.

Murrizpen hori ez da aplikatuko baldin eta pentsio konpentsagarriak edo urteko mantenuagatik ordaindutako zenbatekoak ordaintzen dituen pertsona halakoen hartzailearekin bizi bada.

70. artikulua. Murrizpenak gizarte aurreikuspeneko sistemen alde egindako ekarpen eta kontribuzioengatik.

1. Gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen eta kontribuzio hauek murriztu ahal izango dira oinarri ezargarri orokorretik:

1.a Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako bazkideek egindako ekarpenak, betiere borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateen erregimen fiskalari buruzko uztailaren 15eko 7/1988 Foru Arauak 3. artikuluan jasotzen dituen kontingentziak nahiz bazkide langileen langabezia estaltzeko direnean, bazkide babesleak egin eta entitateetako bazkideei lanaren etekin gisa egotzi zaizkien kontribuzioak barne.

2.a Pentsio planen partaideek egindako ekarpenak, sustatzaileak egin eta partaideei lanaren etekin gisa egotzi zaizkien kontribuzioak barne.

3.a Partaideek Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2003ko ekainaren 3an enplegu pentsioen jarduerari eta fondo ikuskarpenari buruz emandako 2003/41/EE Zuzentarauan jasotako pentsio planei egindako ekarpenak, enpresa sustatzaileek egindako kontribuzioak barne, betiere betekizun hauek betetzen badira:

a) Kontribuzioak prestazioa lotzen zaion partaideari egoztearen ondorioetarako.

b) Geroko prestazioa jasotzeko eskubidea atzera egiteko aukerarik gabe eskualdatzea partaideari.

c) Kontribuzio horri dagozkion baliabideen titulartasuna partaideari eskualdatzea.

d) Estali behar diren kontingentziak jasota egotea Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen testu bateginak, —azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak— 8.6 artikuluan aipatutakoetan.

4.a Gizarte aurreikuspeneko mutualitateei egindako ekarpen eta kontribuzioak, baldintza hauek betetzen dituztenean:

a) Baldintza subjektiboak:

1.a Gizarte Segurantzako erregimenen batean integraturik ez dauden profesionalek, haien ezkontideek edo izatezko bikoteek eta lehen mailako ahaide odolokideek nahiz aipatu mutualitateetako langileek gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin kontrataturiko aseguruengatik ordaindu dituzten kopuruak direnean, Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen testu bateginak —azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak— 8. artikulua 6. apartatua jasotako kontingentziak estaltzen dituen zatian, baldin eta jarduera ekonomikoen etekin garbiak foru arau honetako 27. artikulua 1. erregelaren bigarren paragrafoan jasotako eran kalkulatzeko garaian gastu kengarritzat hartu ez badira.

2.a Gizarte Segurantzako edozein erregimenetan integraturik dauden profesional edo enpresari indibidualek, horien ezkontideek edo izatezko bikoteek eta lehen mailako ahaide odolokideek nahiz aipatu mutualitateetako langileek gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin kontrataturiko aseguruengatik ordaindu dituzten kopuruak direnean, Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen testu bateginak, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak, 8. artikulua 6. apartatua jasotako kontingentziak estaltzen dituen zatian.

3.a Besteren konturako langileek edo bazkide langileek gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin kontrataturiko aseguruengatik ordaindutako kopuruak, sustatzaileek lan etekin gisa haien alde egotzitako kontribuzioak barne, betiere Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen testu bateginak —azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak— lehen xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera egiten badira eta aipaturiko bazkide langileen langabezia ere estaltzen badute.

b) Mutualisten eskubide kontsolidatuak bakarrik gauzatu ahal izango dira Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen testu bateginak —azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak— 8. artikulua 8. apartatua pentsio planei dagokienez jasotako kasuetan.

5.a Aurreikuspen plan aseguratuei ordaindutako primak. LAseguratutako aurreikuspen planak aseguru kontratuak dira, berez, eta baldintza hauek bete behar dituzte: < } 0

a) Hartzailea, aseguraturia eta onuraduna izatea zergaduna. Dena den, heriotza kasuan, prestazioak jasotzeko eskubidea sor dezake, azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak, Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen testu bateginari buruzkoak, ezarritakoaren arabera.

b) Estali behar diren kontingentziak azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak, Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen testu bategina onartzekoak, 8.6 artikulua jasotakoak izango dira bakarrik, eta erretiroa estaliko dute nagusiki. Aipatu testu bateginak 8.8 artikulua jasotako kasuetan bakarrik baimenduko da kontratu horietako zenbatekoak aurrez erabiltzea, osorik edo zati batean. Kontratu hauetan ez da aplikatuko Aseguru kontratuei buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legeak 97. eta 99. artikuluetan xedatutakoa.

c) Gisa honetako aseguruak interes bat bermatu behar dute nahitaez, eta teknika aktuarialak erabili.

d) Polizaren baldintzetan berariaz eta nabarmen utzi beharko da agerian aurreikuspen plan aseguratua dela.

e) Erregelamendu bidez ezarriko dira hornikuntza matematikoa beste aurreikuspen plan aseguru batera aldatzeko betekizunak eta baldintzak.

Foru arau honetan eta hori garatzeko arauetan berariaz erregulatuta ez dauden alderdietan, kontratu horien ekarpen, kontingentzia eta prestazioen araubidea pentsio planen araudiari lotuta egongo da, salbu hornikuntza teknikoen alderdi finantzario eta aktuarietan. Partikulariki, aurreikuspen plan aseguratu batean jasotako eskubideak ezin izango dira bahitu, ez eta epailearen edo Administrazioaren trabarik jaso ere, harik eta prestaziorako eskubidea sortu arte edo gaixotasun larria edo iraupen luzeko langabezia gertatu arte.

6.a Langileek azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak, Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen testu bateginari buruzkoak, lehen xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera enpresen gizarte aurreikuspeneko planei egin dituzten ekarpenak, hartzailearen kontribuzioak barne. Dena dela, enpresen gizarte aurreikuspeneko planek baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Aseguru kontratu mota honi aplikatuko zaizkio bazterketarik ez egiteko printzipioa, kapitalizazio printzipioa, ekarpenen atzeraezintasunaren printzipioa eta eskubideak esleitzeko printzipioa, horiek guztiak azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak, Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen testu bateginari buruzkoak, 5. artikuluen 1. zenbakian jasotzen dituenak.

b) Polizan zehaztuta agertuko da zein prima ordaindu beharko duen hartzaileak gizarte aurreikuspeneko plana betetze aldera. Aseguratuei egotziko zaizkie primak.

c) Polizaren baldintzetan berariaz eta nabarmen utzi beharko da agerian enpresaren aurreikuspen plana dela.

d) Erregelamendu bidez ezarriko dira hornikuntza matematikoa beste enpresaren gizarte aurreikuspeneko plan batera aldatzeko betekizunak eta baldintzak.

e) Aurreko 5. zenbakiko b) eta c) letretan xedatutakoa.

Foru arau honetan eta hori garatzeko arauetan berariaz erregulatu ez diren alderdietan, aurreko 5. zenbakiko azken paragrafoan jasotakoa aplikatuko da.

7.a Bakarrik mendetasun ertain edo handirako arriskua estaltzen duten aseguru pribatuei ordaindutako primak, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko 39/2006 Legeak, abenduaren 14koak, jasotakoaren arabera.

Era berean, zergadunarekin hirugarren mailaraino, hori barne, zuzeneko edo zeharkako ahaidetasun harremana izateagatik, edo ezkontidearengatik edo izatezko bikotearengatik edo tutoretza edo harrera araubidean zergaduna beren kargura izateagatik, pertsonak aseguru pribatu horiei ordaindutako primen kenkaria egin dezakete oinarri ezargarri orokorrean, kontuan hartuta foru arau honek ondorengo artikuluan jasotako murrizpen muga.

Zergadun beraren alde primak (zergadunaren beraren primak barne) ordaintzen dituzten pertsona guztiek egindako murrizpenen multzoa ezin da handiagoa izan urteko 5.000 euro baino.

Horretarako, zergadun beraren alde prima bat baino gehiago ordaintzen direnean, zergadunak berak ordaindutako primak murriztu behar dira eta, bakarrik 5.000 euroko mugara iristen ez badira, beste pertsona batzuek haren alde ordaindutako primak murriztu daitezke horien oinarri ezargarri orokorrean. Azken kasu horretan, proportzionalki murriztu behar da, hala badagokio.

Prima horiek ez daude Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren mende.

Aseguru kontratuak aurreko 5. zenbakiko a) eta c) letretan jasotakoa bete behar du betiere.

Foru arau honetan eta hori garatzeko arauetan berariaz erregulatu ez diren alderdietan, aurreko 5. zenbakiaren azken paragrafoan jasotakoa aplikatuko da.

Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen testu bategineko lehen xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera eginiko mendetasuneko aseguru kolektiboen kasuan, enpresa bakarrik agertuko da aseguruaren hartzaile gisa, eta langileari dagokio aseguratu eta onuradun izaera.

Zenbaki honetan jasotakoa erregelamendu bidez garatuko da.

2. Aurreko apartatuko 1etik 7ra bitarteko zenbakietan jasotako gizarte aurreikuspeneko sistemetatik jasotako prestazioak beren osoan zergapetuko dira, eta ezingo zaizkie inoiz ere gutxitu murrizpenik izan ez duten soberako ekarpen eta kontribuzioen zenbatekoak.

3. Kontuan hartu gabe foru arau honen ondorengo artikuluan aipatutako muga arabera egin diren murrizpenak, baldin eta oinarri ezargarri orokorrean integratu beharreko errentarik lortzen ez duen edo urteko 8.000 eurotik beherako errentak lortzen dituen ezkontidea edo izatezko bikotea badute, zergadunek oinarri ezargarri orokorrean murriztu ahal izango dituzte artikuluko honetan jasotako gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenak, ezkontidea edo izatezko bikotea horietako bazkide, partaide, mutualista edo titularra denean, urteko 2.400 euroko gehieneko mugapean.

Ekarpen horiek ez daude Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren mende.

4. Zergadunak osorik edo zati batean erabiltzen baditu artikuluko honetan jasotako gizarte aurreikuspeneko sistemetatik eratorritako eskubide kontsolidatuak eta eskubide ekonomikoak, pentsio plan edo fondoaren araudian jasotakoez besteko kasuetan edo borondatezko edo ezinbesteko bajaren kasuetan eta entitatearen likidazio kasuetan, oinarri ezargarri orokorrean oker egin dituen murrizpenak birjarri beharko ditu, autolikidazio osagarriak eginez eta berandutza interesak gehituz. Ekarpeneren zenbatekoa gaitututa jaso diren kopuruek, sustatzaileak egotzitako kontribuzioak barne, lan etekin gisa tributatuko dute, horiek jasotzen diren zergaldian.

5. Zerga oinarrian ezin da murrizpenik egin aurreko 1etik 3ra arteko zenbakietan aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenak eta kontribuzioak direla eta, baldin eta bazkide, partaide, mutualista edo aseguratuak erretiro egoeran dauden zergaldiaren osteko lehenengo zergaldiaren hasieratik aurrera egiten badira.

6. Halaber, gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen eta kontribuzioei dagokienez (aurreko 1. zenbakian aipatzen dira), halakoak egiten diren ekitaldi berean kapital moduan jasotako prestazioak jasotzen badira erretiroagatik edo estalitako kontingentziak baino beste arrazoi batzuegatik edo 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak —Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak— 8. artikuluko 8. zenbakian aipatzen dituen egoerengatik baino beste arrazoi batzuegatik, bada, orduan, murrizpenean muga izango dute ekitaldian egindako ekarpenek; hain zuzen, ekitaldiko zerga-oinarrian benetako integratutako pertzepzioen zenbatekoa izango da muga hori.

Apartatu honetan jasotakoa ez da aplikatuko ekarpen eta kontribuzioak hauei egiten bazaizkie: enpleguko pentsio planak, enpresaren gizarte aurreikuspeneko planak, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2003ko ekainaren 3an emandako 2003/41/EEE Zuzentarauan (enpleguko pentsio funtsen jarduerari eta ikuskapenari buruzkoan) araututako pentsio planak, gizarte aurreikuspeneko mutualitateak edo enpleguko gizarte aurreikuspeneko erakundeak; halaber,

ez da aplikatuko foru arau honetako artikulua honen 3. zenbakian eta 72. artikuluan aipatzen direnen moduko ekarpenak badira.

71. artikulua. Murrizpen mugak gizarte aurreikuspeneko sistemaren aldeko ekarpen eta kontribuzioengatik.

1. Berariazko araudian jasotako muga finantzarioak eragotzi gabe, muga hauek izango dituzte gizarte aurreikuspeneko sistemen aldeko ekarpen eta kontribuzioengatik egiten diren murrizpenek:

a) Urteko 5.000 euro: bazkide, partaide, mutualista eta aseguratuak aurreko artikuluan aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemen alde egindako ekarpenen baturarako.

b) Urteko 8.000 euro: bazkide babesleek, aurreko artikuluen 1. apartatuko 2. eta 3. zenbakietan aipatzen diren enpleguko pentsio planen sustatzaileek, edo enpresen gizarte aurreikuspeneko tresna gisa edo enpresaren gizarte aurreikuspeneko planetan hartzaile gisa jarduten diren gizarte aurreikuspeneko mutualitateek edo mendetasuneko aseguru kolektiboek bazkide, partaide, aseguratu edo mutualisten alde egin eta haiei egotzitako kontribuzio enpresarialen baturarako.

Banakako enpresariak gizarte aurreikuspeneko entitate edo mutualitateei, aurreko artikuluen 1. apartatuko 2. eta 3. zenbakietan aipatutako enpleguko pentsio planei, enpresen gizarte aurreikuspeneko planei edo mendeko aseguru kolektiboek egindako ekarpen propioek muga hori bera izango dutela ulertuko da, baldin eta enpresaria, aldi berean, sustatzaile eta partaide bada, edo mutualista, hartzaile edo bazkide babesle eta onuraduna.

Aurreko paragrafoan aipatutako borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei egindako ekarpenek erregelamendu bidez jasotako betekizunak bete beharko dituzte.

c) 1. apartatu honen aurreko letretan ezarritakoa ezarrita ere, eta hor ezarritako mugak errespetatuta, gizarte aurreikuspeneko sistemaren aldeko ekarpen eta kontribuzio enpresarialengatik dauden murrizpenen baterako muga urtean 12.000 eurokoa izango da.

2. Aurreko apartatuan jarritako mugak banaka eta independenteki aplikatuko zaizkio familia unitatean sartutako mutualista, partaide, aseguratu edo bazkide bakoitzari.

3. Artikulu honen 1. apartatuan aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemetan ekarpenak egin dituzten bazkide, partaide, mutualista edo aseguratuak aukera izango dute ekarpenak hurrengo bost urteetan murrizteko, aipatutako muga errespetatuz beti, baldin eta horien kopuruak oinarri ezargarri orokorrean murriztu ezin izan badira artikulu honen 1. apartatuko a) letran ezarrita dagoen gehieneko muga gainditzeagatik, eta, beti ere, murrizpenaren ekitaldian ez badaude erretiro egoeran.

Modu berean jokatu ahal izango da bai kontribuzio enpresarialek dituzten mugak gainditzeko direnean bai artikulu honen 1. apartatuko c) letran aipatzen den baterako muga aplikatu behar den kasuetan.

Era berean, ondorengo bost ekitaldietan murriztu daitezke aurreko artikuluen 3. apartatuan jasotakoaren indarrez egin eta apartatu horretan jasotako muga gainditzeagatik oinarri ezargarri orokorrean murriztu ezin izan diren ekarpenak, beti ere, murrizpena egiten den ekitaldian ez badaude erretiro egoeran. Ekarpenak edo kontribuzioak oinarri ezargarri orokorrean ezin izan direnean murriztu hori nahikoa ez izateagatik, ondorengo bost ekitaldietan murriztu daitezke, haiek gainditu gabe, beti ere, murrizpenaren ekitaldian ez badaude erretiro egoeran.

Erregela horiek ez zaizkie aplikatuko beren araudi finantzarioan jasotako gehieneko mugak gainditzen dituzten ekarpen eta kontribuzioei.

4. Artikulu honetan jasotakoaren ondorioetarako, zergaldi berean enpresa ekarpenak eta kontribuzioak daudenean, lehendabizi kontribuzioei dagokien murrizpena egingo da, eta gero egingo da ekarpenei dagokiena; edozein kasutan, 1. apartatuko a), b) eta c) letretan ezarritako mugak aplikatuko dira.

72. artikulua. Murrizpenak desgaitasuna duten pertsonentzat eratutako gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenengatik.

1. Foru arau honetako 70. artikuluan aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemetan egindako ekarpenak oinarri ezargarri orokorrean murriztu daitezke, baldin eta horiek egin badira % 65eko edo hortik gorako minusbaliotasun fisiko edo zentzumenezkoa duten pertsona desgaituen alde, edo % 33ko edo hortik gorako minusbaliotasun psikikoa duten desgaituen alde, edo, maila kontuan hartu gabe, Kode Zibilean jasotako kausengatik epaileak deklaraturako ezintasuna dutenen alde. Murrizpenak gehieneko muga hauek izango ditu:

a) Pertsona bakoitzaren urteko ekarpenak berarekiko ahaidetasun edo tutoretza harremana duten desgaituen alde egin badira, muga 8.000 eurokoa izango da. Hori guztia, beren gizarte aurreikuspeneko sistemetan beren kabuz egin ditzaketen ekarpenak baztertu gabe, foru arau honek 71. artikuluan ezarritako muga arabera.

Ekarpenak egin ditzakete desgaituaren zuzeneko nahiz zeharkako ahaideek, hirugarren mailaraino, hori barne, bai eta ezkontideak edo izatezko bikoteak edo desgaitua tutoretza edo harrera araubideari jarraituz kargupean hartuta duten pertsonak ere.

Kasu horietan, desgaituak onuradun bakar izendatu beharko dira, atzera egiteko aukerarik gabe, edozein kontingentziatarako.

Dena den, desgaituaren heriotzak alarguntza edo zurtasun prestazioak jasotzeko eskubidea sor dezake, baita haren alde ekarpenak egin dituztenentzat ere euren ekarpenen proportzioan.

a) Pertsona desgaituek beraiek urteko eginiko ekarpenen muga 24.250 euro da.

Desgaitu berberaren alde ekarpenak egiten dituzten pertsona guztiek egindako murrizpen guztiak —desgaituak berak egindakoak barne— ezin dira 24.250 euro baino gehiago izan urtean. Ondorio horietarako, desgaituaren alde ekarpen batzuk batera egiten direnean, desgaituak berak egindako ekarpenak direla eta egin beharko da murrizpena. Eta, ondoren, 24.250 euroko muga horretara iristen ez badira, beste pertsona batzuek ere murrizpena egin ahal izango dute, proportzionalki, bakoitzaren zerga oinarri orokorrean, desgaitu horren alde egindako ekarpenak direla eta. Dena dela, desgaitasuna duen pertsona beraren alde ekarpenak egiten dituzten pertsona guztiek aplikatutako murrizpenek inoiz ezingo dute 24.250 euroko muga gainditu.

1. apartatu honetan jarritako mugak batera bete behar dira desgaituen alde eratutako gizarte aurreikuspeneko sistema guztietarako.

2. Oinarri ezargarri orokorra behar bestekoa ez izateagatik, edo aurreko apartatuko a) letretan ezarritako gehieneko muga gainditzeagatik, oinarri horretan murriztu ezin izan diren ekarpenak hurrengo bost ekitaldietan murriztu ahal izango dira.

Erregela hori ez zaie aplikatuko beren araudi finantzarioan jasotako gehieneko mugak gainditzen dituzten ekarpenei.

3. Artikulu honetan aipatzen diren ekarpenak ez daude Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren mende.

4. Foru arau honetako 70. artikuluko 4. apartatuan ezarritakoa aplikatuko da prestazioak jasotzeko edo eskubide kontsolidatu edo ekonomikoak aurrez erabiltzeko, desgaituen alde eratutako gizarte aurreikuspeneko sistemen araudian jasotakoez besteko kasuetan edo borondatezko edo nahitaezko baja gertatu eta entitatea desegin eta likidatzean.

73. artikulua. Murrizpena batera tributatzegatik.

1. Foru arau honetako 97. artikuluan xedatutakoari jarraiki batera tributatzea aukeratzen denean, oinarri ezargarri orokorra 4.218 euro murriztuko da urtean autolikidazio bakoitzeko.

2. Foru arau honetako 97. artikuluko 2. apartatuan aipatzen diren familia unitateen kasuan, aurreko apartatuan adierazitako murrizpena 3.665 eurokoa izango da.

VI. TITULUA KUOTA OSOA

74. artikulua. Kuota osoaren kontzeptua.

Oro har, honako zenbateko hauen batura izango da kuota osoa:

- Oinarri likidagarri orokorrari hurrengo artikuluko 1. apartatuko karga eskala aplikatu ondoren ateratzen den zenbatekoa. Zenbateko hori foru arau honetako 77. artikuluan aurreikusitakoaren arabera murriztuko da, baina inoiz ezingo da negatiboa izan.

- Aurrezpenaren oinarri likidagarriari 76. artikuluan 1. apartatuko karga eskala aplikatu ondoren ateratzen den zenbatekoa.

- Hogeigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikatu ondoren —aplikatzea dagokionean— ateratzen den zenbatekoa.

75. artikulua. Oinarri likidagarri orokorrari aplikatzeko eskala.

1. Oinarri likidagarri orokorrari eskala honetan adierazten diren karga tasak aplikatuko zaizkio:

Oinarri likidagarri orokorra (goi muga) Euroak	Kuota osoa Euroak	Oinarri likidagarriaren gainerakoa (goi muga) Euroak	Tasa %
0	0	15.550,00	23,00
15.550,00	3.576,50	15.550,00	28,00
31.100,00	7.930,50	15.550,00	35,00
46.650,00	13.373,00	19.990,00	40,00
66.640,00	21.369,00	25.670,00	45,00

92.310,00	32.920,50	30.760,00	46,00
123.070,00	47.070,10	56.390,00	47,00
179.460,00	73.573,40	Hortik gora	49,00

2. Karga orokorraren batez besteko tasa honela kalkulatu da: ehunekin biderkatu behar da aurreko apartatua xedatutakoa aplikatuz ateratzen den kuota oinarri likidagarri orokorrarekin zatituz ateratzen den emaitza. Karga orokorraren batez besteko tasa bi zenbaki hamartarrekin adieraziko da.

3. Zergadunaren karga orokorraren batez besteko tasa Sozietateen gaineko Zergaren tasa orokorra baino handiagoa denean, kuota osoari kopuru hau murriztuko zaio: aipatu batez besteko tasaren eta Sozietateen gaineko Zergaren tasa orokorraren arteko diferentzia jarduera ekonomikoen etekin garbi positiboa osatzen duten ondare irabazien zenbatekoari aplikatuz ateratzen den emaitza.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzeari dagokionez, ondare irabazien zenbatekotik kendu egingo dira jardueraren etekin garbia zehazteko kontuan hartutako ondare galerak, halakorik badago.

76. artikulua. Aurrezpenaren oinarri likidagarriari aplikatu beharreko eskala.

1. Aurrezpenaren oinarri likidagarriari ondorengo eskalan adierazten diren karga tasak aplikatuko zaizkio:

Aurrezpenaren oinarri likidagarriaren zatia. Euroak	Tasa. %
2.500,00ra arte	20,00
2.500,01etik 10.000,00raino	21,00
10.000,01etik 15.000,00raino	22,00
15.000,01etik 30.000,00raino	23,00
30.000,01etik gora	25,00

2. Aurrezpenaren batez besteko karga tasa eragiketa honen emaitza izango da: Aurreko apartatua xedatutakoa aplikatuz ateratzen den kuota zati aurrezpenaren oinarri likidagarria bider ehun. Aurrezpenaren batez besteko karga tasa bi zenbaki hamartarrez adieraziko da.

77. artikulua. Kuota txikitzea.

Zergadunek 1.389 euro txikitu ahal izango dituzte kuotan, autolikidazio bakoitzean, foru arau honetako 74. artikuluan ezarritakoaren arabera.

VII. TITULUA KUOTA LIKIDOA ETA KENKARIAK

I. KAPITULUA KUOTA LIKIDOA

78. artikulua. Kuota likidoaren kontzeptua.

1. Kuota likidua lortzeko, kuota osoari titulu honetan jasotako kenkarien eta foru arau bidez berariaz adierazten diren kenkarien zenbatekoa murriztu behar zaio.

2. Kuota likidua inoiz ezin da negatiboa izan.

II. KAPITULUA KENKARI FAMILIAR ETA PERTSONALAK

79. artikulua. Kenkaria ondorengo ahaideengatik.

1. Zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzeko, kenkari hau egingo da:

- 585 euro urtean, lehenengoagatik.
- 724 euro urtean, bigarrenagatik.
- 1.223 euro urtean, hirugarrenagatik.
- 1.445 euro urtean, laugarrenagatik.
- 1.888 euro urtean, bosgarren eta hurrengo bakoitzarengatik.

2. Zergadunarekin bizi den sei urtetik beherako ondorengo ahaide bakoitzeko, aurreko apartatuan jasotakoaren arabera dagokionaz gain, 335 euroko kenkari osagarria egingo da urtean.

3. Kenkari hau ez da egiterik izango ondorengo ahaideak egoera hauetako batean daudenean:

a) Hogeita hamar urtetik gorakoak izatea, ondorengoek foru arau honetako 82. artikuluan jasotako kenkaria egiteko eskubidea ematen dutenean izan ezik.

b) Ondorengo ahaideak dagokion zergaldian lortu dituen urteko errentak, salbuetsitakoak kanpoan utzita, lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoak izatea edo, bestela, beste familia unitate batekoa izanik, bertako kideetako inork zergaldian lortzen dituen urteko errentak, salbuetsitakoak kanpoan utzita, lanbide arteko gutxieneko soldatatik gorakoak izatea.

c) Dena delako zergaldian zerga honen autolikidazioa aurkeztea edo aurkeztera behartuta egotea.

4. Ondorengo ahaideren bat maila bereko aurreko ahaide batzuekin bizi denean, kenkaria zati berdinetan hainbanatu eta egingo da aurreko ahaide bakoitzeko.

Ahaidetasun maila desberdina duten aurreko ahaideekin bizi diren ondorengo ahaideen kasuan, kenkaria egiteko eskubidea izango dute maila gertueneko ahaideek, eta zati berdinetan hainbanatu eta egingo da beraien artean. Aurreko ahaideen artean inork ez badu lortzen dena delako zergaldian lanbide arteko gutxieneko soldatatik gorako urteko errentarik, salbuetsitakoak kanpoan utzita, maila urruneneko aurreko ahaideek izango dute kenkaria aplikatzeko aukera.

5. Baldin eta epailearen ebazpen bidez ondorengo ahaideen aldeko diru mantenua ematera behartuta badago, kenkaria ondorengo ahaidearen diru mantenua ematen duen gurasoaren autolikidazioan egingo da karga hori guraso horrek osorik bere gain hartzen duenean, edo, bestela, erdibana egingo da guraso bakoitzaren autolikidazioan baldin eta ondorengo ahaidearen diru mantenua bien menpe badago. Apartatu honetan aipatzen diren kasuetan, epaile eskudunak ebatzitzakoa beteko da, eta diru mantenu hori benetan eta behar bezala ematen dela frogatu beharko da.

6. Artikulu honen ondorioetarako, ondorengo ahaideekin parekatuko dira adingabeak babesteko eskumena duen entitate publikoaren aurrean hitzartutako tutoretza edo harrera dela-eta zergadunari lotuta dauden pertsonak.

80. artikulua. Kenkaria seme-alaben urteko mantenua ordaintzeagatik.

1. Epaileen erabakiz seme-alaben urteko mantenua ordaintzen duten zergadunek kontzeptu horregatik ordaindutako kopuruen % 15eko kenkaria egin dezakete. Seme-alaba bakoitzeko muga hau da: aurreko artikuluko 1. apartatuan ondorengo ahaide bakoitzarentzat ezartzen den kenkariaren % 30.

2. Aurreko apartatuan jasotakoa jasota ere, epaileek erabaki badute seme-alaben zaintza eta ardura gurasoek partekatu behar dutela, eta horrelako kasuetan biek ordaintzen badute komunean dituzten seme-alaben urteko mantenua, zergaldian zenbatekorik handiena zeinek ordaindu duen eta guraso horrek aplikatuko du kenkaria. Kenkariaren oinarria kalkulatzeko, berak egindako kontribuziotik beste gurasoak egindakoa gutxitu behar da.

Kenkaria ez da aplikatuko zergaldian bi gurasoek urteko mantenuagatik ordaindutako zenbatekoa berdina denean.

81. artikulua. Kenkaria aurreko ahaideengatik.

1. Urte natural osoan zergadunarekin modu jarraitu eta iraunkorrean bizi den aurreko ahaide bakoitzeko 279 euroko kenkaria egin daiteke.

Kenkari hori aplikatzearen ondorioetarako, ondoko kasu hau ere aurreko paragrafoan deskribatutako elkarbizitzarekin parekatuko da: aurreko ahaidea urte natural osoan egoitza zentro batean bizitzea modu jarraitu eta iraunkorrean, eta egonaldiaren gastuak ondorengo ahaideak bere ondaretik ordaintzea.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den kenkaria egiteko, ezinbestekoa izango da:

a) Dena delako zergaldian aurreko ahaideak dituen urteko errentak, salbuetsitakoak kanpoan utzita, lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoak ez izatea.

b) Aurreko ahaide hori familia unitate batean egonez gero, bertako kideetako inork ez lortzea dena delako zergaldian lanbide arteko gutxieneko soldatatik gorako errentak, salbuetsitakoak kanpoan utzita.

c) Aurreko ahaideak zergaldi horretan zerga honen autolikidaziorik ez aurkeztea edo aurkeztera behartuta ez egotea.

3. Aurreko ahaideak maila bereko ondorengo ahaideekin bizi badira, kenkaria zati berdinetan hainbanatu eta egingo da ondorengo ahaide bakoitzeko.

Aurreko ahaideak ahaidetasun maila desberdina duten ondorengo ahaideekin bizi direnean, mailarik gertueneko ondorengo ahaideek bakarrik izango dute kenkari honetarako eskubidea, eta zati berdinetan hainbanatu eta egingo dute beren artean. Ondorengo ahaideen artean inork ez badu lortzen dena delako zergaldian lanbide arteko gutxieneko soldatatik gorako urteko errentarik, salbuetsitakoak kanpoan utzita, maila urruneneko ondorengo ahaideek izango dute kenkaria aplikatzeko aukera.

4. Aurreko ahaideak egoitzetan bizi badira, kenkaria mailarik gertueneko ahaideek egingo dute baldin eta frogaturik uzten badute aurreko ahaidearen egoitzako egonaldi gastuak ordaindu dituztela. Gastu horiek maila bereko ondorengo ahaide batek baino gehiagok ordaindu badituzte, kenkaria zati berdinetan hainbanatu eta egingo da haien artean.

82. artikulua. Kenkaria desgaitasun edo mendetasunagatik.

1. Desgaitasuna edo mendetasuna duen zergadun bakoitzeko, jarraian zehazten den kenkaria aplikatuko da, erregelamendu bidez ezartzen den desgaitasun edo mendetasun mailaren eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntzaren arabera:

Desgaitasun edo mendetasun maila eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntza	Kenkaria (euroak)
% 33ko desgaitasuna edo handiagoa eta % 65 baino txikiagoa.	867
% 65ko desgaitasuna edo handiagoa. Mendetasun arina (I. gradua)	1.224
% 75eko desgaitasuna baino handiagoa eta hirugarren pertsona baten laguntzarako 15 eta 39 puntu artean lortzea. Mendetasun larria (II. gradua)	1.428
% 75eko desgaitasuna baino handiagoa eta hirugarren pertsona baten laguntzarako 40 puntu edo gehiago lortzea. Mendetasun handia (III. gradua)	2.040

Aurreko paragrafoan aipatutako desgaitasun edo mendetasun maila eta bertan adierazitako puntuak abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak I. eta II. eranskinetan ezarritako eran neurtuko dira, bai eta 2007ko apirilaren 20ko 504/07 Errege Dekretuak, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritako mendetasun egoera baloratzeko baremoa onartzen duenak, jasotako moduan ere.

Kenkari bera aplikatu da ezkontideak edo izatezko bikoteak desgaitasuna edo mendetasuna duenean eta apartatu honetako betekizunak betetzen dituenean.

2. Kenkari hori bera aplikatuko da, era berean, ondorengo edo aurreko ahaide, ezkontide edo izatezko bikote-lagun edo laugarren mailarainoko zeharkako ahaide bakoitzeko, hura barne, horren adina edozein dela ere, baldin eta pertsona hori, zergadunarekin bizi izanik eta bere urteko errentak lanbide arteko gutxieneko soldataren bi halakoa izan gabe, desgaitua edo mendekoa bada.

Kenkari hau bateragarria izango da aurreko artikuluetan esandakoaren arabera egin daitezkeen kenkariekin.

Aurreko edo ondorengo ahaideak edo odoleko nahiz ezkontzako laugarren mailarainoko zeharkako ahaideak egoitzetan bizi badira, kenkaria mailarik gertueneko ahaideek egingo dute baldin eta frogaturik uzten badute, bidezko fakturaren bidez, aurreko ahaidearen egoitzako egonaldi gastuak ordaindu dituztela. Gastu horiek maila bereko ahaide batek baino gehiagok ordaindu badituzte, kenkaria zati berdinetan hainbanatu eta egingo da haien artean.

Era berean, kenkari hau egin daiteke desgaitua zergadunari lotuta badago tutoretza edo harrera arrazoiak direla medio, eta azkenaurreko paragrafoan adierazitako errenta maila betetzen bada. Tutoretzak edo etxeko harrerak adingabeak babesteko gaietan eskudun den entitate publikoarekin hitzartua izan beharko du.

3. Aurreko apartatuan aipatutako ahaideen edo parekatuen artean ageri ez den 65 urteko edo hortik gorako pertsona bakoitzeko, 1. apartatuan ezarritako kenkariak aplikatuko dira zergadunarekin bizi denean eta bere urteko sarrerak, errenta salbuetsiak kanpoan utzita, lanbide arteko gutxieneko soldataren bi halakoa baino txikiagoak direnean, betiere kontuan

hartuta desgaitasun edo mendetasun maila eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntza.

4. Desgaitu edo mendeko pertsonak autolikidazioa aurkezten badu zerga honengatik, bi aukera izango ditu: kenkari osoa berak egitea edo, bestela, berarekin bizi den zergadunak egitea kenkari osoa. Bigarren aukeraren alde eginez gero, eta desgaitu edo mendeko pertsona zergadun batekin baino gehiagorekin bizi bada, kenkaria zati berdinetan hainbanatu eta egingo da zergadun bakoitzeko.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren 115. artikulua 3. apartatuaren ondorioetarako, aipatutako aukera autolikidazioa aurkezterakoan egin beharko da. Zergaldi baterako egindako hautua aldatu egin ahal izango da zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea bukatzen den egunera arte edota zerga administrazioak behin-behineko likidazioa egiten duen egunera arte, likidazioa borondatezko epea amaitu aurretik gertatuko balitz.

83. artikulua. Kenkaria adinarengatik.

1. 65 urtetik gorako zergadun bakoitzeko, oinarri ezargarria 20.000 eurokoa edo txikiagoa badu, 334 euroko kenkaria egingo da.

Zergadunak 75 urte baino gehiago baditu, eta oinarri ezargarria 20.000 eurokoa edo txikiagoa badu, aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria 612 eurokoa izango da.

2. Oinarri ezargarria 20.000 eurokoa baino handiagoa eta 30.000 eurokoa baino txikiagoa duten 65 urtetik gorako zergadunek 334 euroko kenkaria izango dute, ken eragiketa honen emaitza: oinarri ezargarria 20.000 euro murriztu ondoren ateratzen den zenbatekoa bider 0,0334.

3. Oinarri ezargarria 20.000 eurokoa baino handiagoa eta 30.000 eurokoa baino txikiagoa duten 75 urtetik gorako zergadunek 612 euroko kenkaria izango dute, ken eragiketa honen emaitza: oinarri ezargarria 20.000 euro murriztu ondoren ateratzen den zenbatekoa bider 0,0612.

4. Artikulu honen ondorioetarako, oinarri ezargarria izango da Foru Arau honetako 65. eta 66. artikuluetan aurreikusitako oinarri ezargarri orokorraren eta aurrezpenaren oinarri ezargarriaren batura. Oinarri ezargarri orokorra saldo negatiboa bada, zerotzat hartuko da goian aipatutako batuketaren ondorioetarako.

84. artikulua. Egoera pertsonala eta familiarra zehaztea.

1. Zergaren sortzapen egunean dagoen egoera aintzat hartuz zehaztuko dira kapitulu honetan jasotako kenkariak aplikatzeko kontuan hartu behar diren inguruabar pertsonal eta familiarrak.

Kenkari horiek konputatzeko garaian, kalkulua inoiz ez da egingo kenkariak aplikatzeko exijitutako inguruabarrak gertatu diren urte naturaleko egun kopuruaren proportzioan.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa xedatuta ere, kenkarirako eskubidea sortzen duen pertsona zergaldiaren barruan hil bada, kapitulu honetan jasotako kenkariak aplikatzeko kontuan hartuko diren inguruabar pertsonal eta familiarrak heriotzaren egunean dagoen egoera aintzat hartuz zehaztuko dira. Kenkarien zenbatekoa ez da proportzionalki murriztuko egun horretara arte.

III. KAPITULUA

KENKARIA DESGAITASUNA DUEN PERTSONAREN ONDARE BABESTUARI EGINDAKO EKARPENENGATIK

85. artikulua. Kenkaria desgaitasuna duen pertsonaren ondare babestuari egindako ekarpenengatik.

1. Zergadunek % 30eko kenkaria egin dezakete desgaituaren ondare babestuari egindako ekarpenengatik, urtean gehienez 3.000 euroraino, azaroaren 18ko 41/2003 Legeak araututakoaren arabera ondare babestua bada. Lege hori desgaitasuna duten pertsonen ondare babesari eta Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea nahiz zergei buruzko arautegia helburu horretarako aldatzeari buruzkoa da.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den kenkaria hauek egin dezakete: desgaituaren zuzeneko nahiz zeharkako ahaideek —hirugarren mailara artekoek barne—, desgaituaren ezkontideek edo izatezko bikoteek, eta desgaitua tutoretza edo harrera araubideari jarraituz beren kargupean hartua duten pertsonak.

Ondare babestuaren titularra den desgaituak berak egindako ekarpenek inoiz ere ez dute kenkari honetarako eskubidea sortuko.

3. Diruzkoak ez diren ekarpenak badira, ekarpenaren zenbatekoa hau izango da: Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak 20. artikuluan jasotakoa kontuan hartuz ateratzen dena.

4. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan salbuetsita dago artikulua honetan aipatzen den desgaituaren ondare babestuari egindako ekarpenei dagozkien ondasun eta eskubideak eskuratzea.

IV. KAPITULUA KENKARIAK OHIKO ETXEBIZITZARENGATIK

86. Kenkaria ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik.

1. Zergaldian ohiko etxebizitzaren alokairua ordaintzen duten zergadunek zergaldian ordaindutako kopuruen % 20ko kenkaria egin dezakete, eta urtean 1.600 euro gehienez.

Dena den, zergadunak 30 urtetik beherakoak badira edo familia ugariaren titularrak badira, aurreko paragrafoan jasotako kenkaria % 25ekoa izango da, eta urtean 2.000 euro gehienez.

Horretarako, ordaindutako zenbatekoari kendu egin beharko zaio zergadunak etxearen alokairurako jasotako diru laguntzen zenbatekoa (halakorik jaso badu), zeinak salbuetsirik egongo baitira zerga hau arautzen duen araudiaren arabera.

2. Kapitulu honetan jasotakoaren ondorioetarako, zerga sortzen den egunean dagoen egoerari begiratuko zaio, zergadunaren adina edo familia ugariaren titulartasuna zehazteko.

3. Batera tributatzea aukeratzen bada eta kenkari horretarako eskubidea dutenak pertsona bat baino gehiago badira, batzuk 30 urtetik beherakoak eta beste batzuk adin

horretatik gorakoak, aurreko 1. apartatuko bigarren paragrafoan ezarritako portzentaje eta muga aplikatuko dira.

4. Epaileak erabakita bakarrik zergadunari ezarri bazaio etxebizitza familiarraren alokairua ordaintzeko betebeharra, horrek eskubidea izango du autolikidazioan artikulua honetan aipatzen den kenkaria egiteko. Betebehar hori bi zergadunei ezarri bazaie, kenkaria bien artean hainbanatuko da, eta bakoitzaren autolikidazioan egingo da norberari dagokion proportzioan, artikulua honetako 1. apartatuko lehen paragrafoan jasotako portzentajea eta muga aplikatuta.

87. Kenkaria ohiko etxebizitza erosteagatik.

1. Zergadunek % 18ko kenkaria aplika dezakete ohiko etxebizitza erosteko zergaldian inbertitu dituzten kopuruengatik, haien kargura joan diren erosketa gastuak barne.

Era berean, ohiko etxebizitza erosteko besteren kapitalak erabiltzeagatik zergaldian ordaindutako interesen % 18ko kenkaria egin dezakete, besteren finantzaketak haien kargura sortutako gastuak barne.

2. Aurreko 1. apartatuan aipatzen diren kontzeptuak batuta, gehienez ere 1.530 euroko kenkaria egin ahal izango da urtean.

3. Zergadun bakoitzak aurreko 1. apartatuan aipatzen diren kontzeptuengatik zergaldi jarraituetan egindako kenkarien baturak ezin du 36.000 euroko zifra gainditu. Zifra hori gutxitua izango da, hala badagokio, berrinbertsioagatik salbuetsitako ondare irabaziaren zenbatekoari % 18 aplikatu ondoren ateratzen den emaitzarekin, foru arau honetako 49. artikuluan jasotakoaren arabera.

4. Zergadunak 30 urte baino gutxiago baditu edo familia ugariaren titularra bada, berezitasun hauek aplikatuko dira:

a) Aurreko 1. apartatuan ezarritako portzentajeak % 23koak izango dira, artikulua honetako 5. apartatuaren b) letran aipatzen diren kasuetan izan ezik.

b) Aurreko 2. apartatuan aipatzen den urteko gehieneko kenkaria 1.955 eurokoa izango da, artikulua honetako 5. apartatuaren b) letran aipatzen diren kasuetan izan ezik.

Batera tributatzea aukeratzen bada eta kenkari horretarako eskubidea dutenak pertsona bat baino gehiago badira, batzuk 30 urtetik beherakoak eta beste batzuk adin horretatik gorakoak, apartatu honetan ezarritako portzentajeak eta muga aplikatuko dira.

5. Artikulu honetan jasotako ondorioetarako, ohiko etxebizitzaren erosketarekin parekatuko dira:

a) Ohiko etxebizitza birgaitzeko erabili diren diru kopuruak.

b) Erregelamenduz ezarritako formalizazio eta erabilera baldintzak betez, kreditu entitateetako kontuetan gordailatzen diren kopuruak, baldin eta kenkarirako eskubidea sortu duten kopuruak bakar bakarrik ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeko erabiltzen badira kontua ireki denetik 6 urte igaro baino lehen.

Kenkarirako eskubidea sortu duten diru kopuruak osorik sartzen badira berriro kreditu entitate berean edo beste batean zergaren sortzapena gertatu aurretik, haiek erabiltzeari buruzko baldintza ez da bete gabekotzat hartuko.

Zergaduna letra honetako lehen paragrafoan aipatzen den epea amaitu aurretik hiltzen bada, etxebizitza kontuko kopuruak ohiko etxebizitzaren erosketan edo birgaikuntzan erabiltzeko obligazioa ez da bete gabekotzat hartuko.

Ezin izango da berriro egin letra honetan aipatzen diren kontuetan gordailatutako diru kopuruen kenkaririk, aurrez kenkarirako eskubidea sortu badute, ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeko erabiltzen direnean.

c) Ohiko etxebizitza bilakatuko den higiezinaren azalera eskubidea eskuratzea, jabetza publikoko lursail baten gainean.

c) Erregelamendu bidez ezartzen diren kasuak.

6. Birgaikuntzat hartuko dira jabeak bere ohiko etxebizitzan egindako obrak, baldin eta ebazpen batek jarduketa babestutzat kalifikatu edo aitortu baditu Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak —ondare hiritartua eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoak— xedatutakoaren arabera, edo, hala badagokio, babesteko jarduketa gisa kalifikatu badira abenduaren 12ko 1066/2008 Errege Dekretuak edo hura ordezkatzan duten antzeko arauak ezarritakoari jarraiki.

7. Epaileak erabakita bakarrik zergadunari ezarri bazaio etxebizitza familiarragatik aurreko 1. apartatuan aipatutako kopururen bat ordaintzeko betebeharra, horrek eskubidea izango du autolikidazioan artikulua honetan aipatzen den kenkaria egiteko. Betebehar hori bi zergadunei ezarri bazaie, kenkaria bien artean hainbanatuko da, eta bakoitzaren autolikidazioan egingo da norberari dagokion proportzioan, aurreko 1. eta 2. apartatuetan jasotako portzentajeak eta muga aplikatuta.

8. Zerga honen ondorioetarako, ohiko etxebizitzatzat hartuko da zergadunak, hiru urteko epe jarraituan, bizileku gisa daukana. Hala ere, etxebizitza ohikoa izan dela joko da, epe hori igaro ez arren, zergaduna hiltzen denean, edo ezinbestez etxebizitzaz aldatzera behartzen duten beste inguruabar batzuk gertatzen direnean. Inguruabar horiek honako hauek dira: etxebizitza ez egokitzea zergadunaren desgaitasun mailara, edo horrekin bizi den ondorengo edo aurreko ahaidearen, ezkontidearen edo izatezko bikotearen desgaitasun mailara, edo zergaren kuota osoan kenkaria egiteko eskubidea ematen duen pertsonaren desgaitasun mailara; senar-emazteak banantzea; izatezko bikotea desagitea; lantokia aldatzea; lehen enplegua edo beste bat lortzea; aipatu epean etxebizitza ordaintzea eragozten duten inguruabar ekonomikoak izatea, edo antzeko beste inguruabarrak gertatzea.

Ohiko etxebizitzaren kontzeptutik kanpo geratuko dira lorategiak, parkeak, igerileku eta kirol instalazioak, garajeak eta, oro har, eranskinak eta etxebizitza bera ez diren elementu guztiak. Aldiz, elementu horiek kontzeptu horren barruan sartuko dira etxebizitzarekin batera erregistro finka bakarria osatzen dutenean.

Familia unitateko kideak ondasun higiezin hiritar bat baino gehiagoren titularrak badira, haietako bat bakarrik hartuko da ohiko etxebizitzatzat. Horretarako, familia unitateak bere bizitza interesen eta harreman pertsonal, sozial eta ekonomikoen gune nagusitzat duena hartuko da ohikotzat.

9. Artikulu honetan jasotzen den kenkariari dagokionez, arestian aipaturiko zenbatekoei kendu egin beharko zaie zergadunak etxea erosteko edo birgaitzeko jasotako diru laguntzen zenbatekoa (halakorik jaso badu), zeinak salbuetsirik egongo baitira zerga hau arautzen duen araudiaren arabera.

88. artikulua. Kenkaria inbertsioengatik eta beste jarduera batzuegatik.

1. Zerga honetako zergadunek aktibo finko material berrietan inbertsioak pizteko eta zenbait jardueraren burutzea pizteko Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren V. tituluko III. kapituluaren zehazten diren kenkariak aplikatu ahal izango dituzte, kenkari portzentaje eta muga berdinekin.

2. Sozietateen Zergari buruzko Foru Arauan kenkari hauek aplikatzeko finkatzen diren mugak zerga honetako kuota osoari aplikatuko zaizkio, betiere bat datorrenean jarduera ekonomikoen etekinekin osatzen den oinarri ezargarri orokorreko kuota zatia erekin.

3. Kuota osoa txikiegia izateagatik aplikatzen ez diren kenkariak ondorengo eta hamabost urte jarraituetan amaitzen diren zergaldietako autolikidazioetan aplikatu daitezke, baina muga berdinak errespetatuz.

4. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren 115. artikulua 3. apartatuan jasotakoaren ondorioetarako, artikulua honetan jasotako kenkariak aplikatu ahal izateko, zergadunak, dagokion ekitaldiaren autolikidazioa aurkeztu duenean, kenkariak aplikatu nahi dituela adierazi beharko du.

89. artikulua. Kenkaria langileek enpresan parte hartzeagatik.

1. Zergadunek % 10eko kenkaria egin ahal izango dute, urtean 1.200 euroko mugarekin, lan egiten duten entitateko edo sozietate taldeko beste edozein enpresako akzio edo partaidetzak erosi edo harpidetzeko zergaldian dirutan ordaindutako kopuruengatik.

2. Aurreko horretaz gain, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Balore horiek ezingo dira egon merkatu arautuetan negoziatzeko onartuta.

b) Entitate horiek enpresa txiki edo ertainen multzoan sailkatuta egon behar dira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak jasotakoaren arabera.

c) Merkataritza Kodearen 42. artikuluan jasotako sozietate taldeen kasuan ere aplikatu daiteke kenkari hau, taldeko parte den edozein sozietateko akzioak edo partaidetzak erosterakoan eta, betiere, aurreko bi letretan jasotako baldintzak betetzen badira.

d) Eskurapena edo harpidetza egin behar da langile guztiei eskaintza bat egin zaielako aldeztu aurretik baldintza berdinetan, enpresan, enpresa-taldean zein azpitaldeetan langileen parte hartzea bultzatzeko planetan aurreikusitako kategoria edo kolektibo guztiak hartuta. Letra honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, parte hartze planak, gutxien-gutxienik, irizpideak definitu behar ditu planak ukitutako langileen kategoria eta kolektiboak identifikatzeko. Apartatu honetan jasotakoa ez da aplikatuko eskaintzen oinarri diren parte hartze planen onuradunak ez badira irizpide horien arabera izendatu.

Akzio edo partaidetzak erosi edo harpidetzeko arrazoia sozietatea edo entitatea eratzea bada, ez da parte hartze planik exijituko, nahiz eta horrek ez duen eragotziko diskriminaziorik eza bermatzen duten gainerako baldintzak bete behar izatea.

e) Langile bakoitzaren partaidetza, zuzena edo zeharkakoa, entitatean edo taldeko beste edozeinetan, ez da % 5etik gorakoa izango eta partaidetza hori osatzeko ezkontidearen edo izatezko bikotearen eta laugarren mailara bitarteko ahaideen partaidetzak, hura barne, hartuko dira kontuan.

f) Kenkari honetarako eskubidea ematen duten akzioak edo partaidetzak gutxienez bost urtez eduki behar dira. Epe hori ez betetzeak oker egindako kenkariak itzultzeko obligazioa ekarriko du, berandutza interesak barne, non eta epea ez betetzea ez den gertatu enpresa likidatu delako prozedura konkurtsal baten ondorioz. Zenbat ordaindu behar den kalkulatzeko, oker egindako kenkaria eta ez-betetzea gertatzen den zergaldiko kuota diferentziala batu behar dira. Alabaina, zergadunak nahi badu, lehenago ordain ditzake oker egindako kenkariak eta berandutza interesak.

3. Halaber, zergadunek % 10eko kenkaria egin ahal izango dute, urteko 6.000 euroko mugarekin, lan egiten duten entitateko edo sozietate taldeko beste edozein enpresako akzio edo partaidetzak eskuratu edo harpidetzeko zergaldian dirutan ordaindutako kopuruengatik, kopuru horiek euskal administrazio publikoek eratutako funtsetatik etorritako maileguetatik datozenen.

Eskuratu edo harpidetutako baloreek ez dute merkatu arautuetan negoziatzeko onartuta egon behar, eta baloreen entitateek mikroenpresa, enpresa txikia edo ertaina izan behar dute Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren arabera.

Apartatu honetako kenkaria aplikatu ahal izateko betekizun gehigarriak ezarri ahal izango dira erregelamendu bidez.

4. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren 115. artikulua 3. apartatua jasotakoaren ondorioetarako, artikulua honetan jasotako kenkariak aplikatu ahal izateko, zergadunak, dagokion ekitaldiaren autolikidazioa aurkezten duenean, kenkariak aplikatu nahi dituela adierazi beharko du.

89 bis artikulua. Kenkaria enpresa berrietan edo osatu berrietan inbertitzeagatik.

1. Zergadunek % 20ko kenkaria egin ahal izango dute enpresa berri edo osatu berrietako akzio edo partaidetzak eskuratu edo harpidetzeko zergaldian dirutan ordaindutako kopuruengatik, hurrengo 2. eta 3. apartatuek diotena betetzen denean. Kapitalari aldi baterako eginiko ekarpenaz gain, inbertsioa jasotzen duen entitatearen garapenerako enpresa ezagutza edo ezagutza profesional egokiak eman ditzakete, beti ere zergadunaren eta entitatearen arteko inbertsio akordioan ezartzen denaren arabera.

Kenkariaren oinarria harpidetutako akzio edo partaidetzen eskuratze balioa izango da, eta gehienez urteko 50.000 euro izango dira. Halaber, urteko gehienezko kopuru kengarriak ezin du gainditu zergadunari zerga honetan dagokion oinarri likidagarriaren % 10.

Aurreko mugak gainditzeagatik kendu ez diren kopuruak, ondorengo eta bost urte jarraituetan amaitzen diren zergaldietako autolikidazioetan aplikatu daitezke, baina muga berdinak errespetatuz.

2. Eskuratutako akzio edo partaidetzen entitateak baldintza hauek bete behar ditu:

a) Sozietate anonimoaren, erantzukizun mugatuko sozietatearen, lan sozietate anonimoaren edo erantzukizun mugatuko lan sozietatearen forma eduki beharko du, Kapital Sozietateen Legearen testu bateginean (uztailaren 2ko 1/2010 Errege Dekretu Legegileak onartu zuena) eta Lan Sozietateen martxoaren 24ko 4/1997 Legean aurreikusitako baldintzetan, eta ez du ezin merkatu antolatutan negoziatzeko onartuta egon behar. Baldintza hori akzio edo partaidetza edukitzen den urte guztietan zehar bete behar da.

b) Jarduera ekonomiko berri bat egin behar dute, eta jarduera horrek bere garapenerako behar dituen giza baliabide eta baliabide material guztiak izan behar ditu.

Ondare sozietateei dagokienez, baldintza hau ez dagoela beteta ulertuko da bategiteen, zatiketen, aktibo ekarpenen, aktibo eta pasibo guztien lagapenen, jarduera adarren ekarpenen, ekonomia intereseko taldeen edo aldi baterako enpresa elkarteen ondorioz sortutako kasuan, ezta jarduera ekonomiko berri baten sorrera egiaz eta benetan ez dakarren beste edozein forma edo eragiketaren bidez sortutako kasuan ere.

c) Entitatearen funts propioen zenbatekoa ezingo da 400.000 eurotik gorakoa izan zergadunak akzioak edo partaidetzak eskuratzen dituen zergaldiaren hasieran.

Entitatea sozietate talde baten partea denean —Merkataritzako Kodearen 42. artikulua zentzuan—, funts propioen zenbatekoa talde horretako sozietateen multzoari dagokiola ulertuko da, kontuan izan gabe egoitza edota urteko kontu bateratuak azaldu beharra.

3. Aurreko 1. apartatua aplikatzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Entitatearen akzio edo partaidetzak entitatea eratzen den unean eskuratu behar ditu zergadunak, edo, bestela, eratu eta ondorengo hiru urtetan eginiko kapital-gehikuntza baten bidez, eta hiru urte eta hamabi urte artean mantendu behar dira zergadunaren ondarean.

b) Zergadunaren partaidetza zuzena edo zeharkakoa, haren ezkontideak edo izatezko bikoteak edo hari ahaidetasunez lotuta dagoen —zuzeneko edo zeharkako lerroan, odolkidetasunez edo ezkontza bidez, bigarren mailaraino eta maila hori barne— edozein pertsonak entitate berean dituenarekin batera, ezin da izan entitatearen gizarte kapitalaren edo zergadunaren boto eskubideen % 40 baino handiagoa, partaidetza daukan urte naturaletako ezein egunetan.

c) Akzio edo partaidetzak ez izatea lehendik beste titularitate baten bidez egiten zen jarduera bera egiten duen entitate batean.

4. Aurreko apartatuetakoa betekizunak ez betetzeak oker egindako kenkariak itzultzeko obligazioa ekarriko du, berandutza interesak barne. Ez betetzea egin zeneko zergaldiari dagokion kuota diferentzialari dagokion kopurua gehituz egingo da ordainketa hori. Ordea, zergadunak aukeratu dezake lehenago egitea oker egindako kenkariak itzultzeko diru sarrera, berandutza interesak barne.

5. Kenkaria egiteko, eskuratutako akzio edo partaidetzen entitateak eginiko egiaztagiria behar da, eta adierazi behar du eskuratu ziren zergaldian 2. apartatuko baldintzak bete zirela.

6. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorren 115. artikulua 3. apartatuan jasotakoaren ondorioetarako, artikulua honetan jasotako kenkariak aplikatu ahal izateko, zergadunak, dagokion ekitaldiaren autolikidazioa aurkezten duenean, kenkariak aplikatu nahi dituela adierazi beharko du.

VI. KAPITULUA KENKARIAK DOHAINTZENGATIK

90. artikulua. Kenkariak mezenasgo jarduerengatik.

1. Zergadunek egin ditzakete irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko foru arauetan zerga honetarako jasotako kenkariak.

2. Artikulu honetan aipatutako kenkariaren oinarria ez da izango zerga honen oinarri likidagarriaren % 30etik gorakoa.

3. Foru arau honetako 115. artikulua d) letran aipatzen den eredu informatiboan sartuta dauden zergadunek bakarrik egin dezakete artikulua honetan jasotako kenkaria.

Dena den, dohaintza egiten duen entitateak ez badu aurkezten aurreko paragrafoan aipatutako eredu informatiboa, zergadunak aukera izango du artikulua honetan arautzen den kenkaria aplikatzeko, baldin eta dohaintza egiaztatzen duen agiria eta hura ordaindu izana justifikatzen duen bankuko agiria aurkezten baditu.

VII. KAPITULUA BESTE KENKARI BATZUK

91. artikulua. Kenkaria nazioarteko ezarpen bikoitzarengatik.

Zergadunaren errentan atzerrian lortu eta zergapetutako etekinak edo ondare irabaziak daudenean, kopuru hauen arteko txikienaren kenkaria egingo da:

a) Zerga honen edo Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren izaera berdina edo antzekoa duen zerga bat dela medio etekin edo ondare irabazi horien gainean atzerrian ordaindu den benetako zenbatekoa.

b) Atzerrian lortutako errentari batez besteko karga tasa orokorra edo aurrezpenarena aplikatuz lortzen den emaitza, errenta horretatik oinarri likidagarri orokorrean edo aurrezpenarenean sartu den zatiaren arabera.

92. artikulua. Kenkaria langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatik eta alderdi politikoen aldeko kuota eta ekarpenengatik.

1. Zergadunek langileen sindikatuei ordaindutako kuoten % 20ko kenkaria egin dezakete.

2. Era berean, alderdi politikoetako afiliazio kuoten eta haien aldeko ekarpenen % 20ko kenkaria egin dezakete zergadunek.

Ez dira kenkari honen oinarrian sartuko foru arau honek 22. artikulua b) letran jasotakoaren arabera gastu gisa kendu diren kopuruak.

3. Foru arau honetako 115. artikulua h) eta i) letretan aipatzen den eredu informatiboan sartuta dauden zergadunek bakarrik egin ditzakete artikulua honetan jasotako kenkariak.

VIII. KAPITULUA AGIRI BIDEZ JUSTIFIKATZEA

93. artikulua. Agiri bidez justifikatzea.

Titulu honetan araututako kenkariak egingo badira, horiek justifikatzen dituzten agiriak aurkeztu behar dira. Aipatu agiriei bete behar dituzte enpresari eta profesionalei dagozkien fakturak egin eta emateko arauetan exijitutako baldintzak, dagokionean.

VIII. TITULUA KUOTA DIFERENTZIALA

94. artikulua. Kuota diferentziala.

1. Kuota likidoari kopuru hauek gutxituz lortzen den emaitza da kuota diferentziala:

a) Zerga araudian jasotako atxikipenak, konturako sarrerak eta ordainketa zatikatuak.

b) Foru arau honek 107. artikulua 3. apartatua aipatzen dituen atxikipenak.

c) Zergadunak bizilekuz aldatzeagatik izaera hori hartzen duenean, foru arau honek 105. artikulua 2. apartatua aipatzen dituen atxikipenak eta konturako sarrerak, bai eta Zergadun Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergan ordaindu eta bizilekua aldatu den zerga ekitaldian sortu diren kuotak ere.

2. Aurreko apartatua aipatutako zenbatekoen kenkaria egingo bada, horiek agiri bidez justifikatu behar dira betiere.

IX. TITULUA ZERGA ZORRA

95. artikulua. Zerga zorra.

1. Zerga zorraren osagaiak dira zerga kuota eta, hala badagokio, martxoaren 8ko Gipuzkoako Zergen 2/2005 Foru Arau Orokorrak 57. artikulua 1. eta 2. apartatuetan jasotako gainerako kontzeptuak.

2. Zerga zorra ordaintzera behartuta daude zergadunak.

X. TITULUA BATERAKO TRIBUTAZIOA

96. artikulua. Baterako tributazioa aukeratzea.

1. Ondorengo artikuluan aipatutakoen arteko edozein modalitateko familia unitateko kide diren pertsona fisikoek aukera dute, edozein zergalditan, zerga hau batera ordaintzeko, horri buruzko arau orokorrekin eta titulu honetan bildutako xedapen bereziekin jarraituz, betiere familiako kide guztiak zerga honen zergadunak badira.

Familia unitateko kideak lurralde desberdinetan bizi direnean eta batera tributatzea aukeratzen dutenean, foru arau honek 2. artikulua 1. apartatua a) letran xedatutakoa aplikatuko da.

Legezko banantzea gertatu eta gero edo erabaki judizial batek gurasoen arteko loturarik ez dagoela adierazi eta gero gurasoek elkarrekin bizitzen jarraitzen badute, ezingo dute batera tributatzea aukeratu.

2. Baterako tributazioa aukeratzeak ez du ondorengo zergaldietarako loturarik ekarriko.

3. Baterako tributazioa aukeratzeak familia unitateko kide guztiak hartuko ditu barne. Kideetako batek baterako tributazioaren arauak aplikatzen ez baditu edo banakako autolikidazioa aurkezten badu, familia unitateko gainerako kideek araubide bera erabili beharko dute.

4. Zergaldi baterako egindako hautua geroago aldatu ahal izango da, hain zuzen ere, zergaren autolikidazioa egiteko borondatezko epea bukatu arte edota zerga administrazioak behin-behineko likidazioa egin arte, behin-behineko likidazioa borondatezkoa amaitu aurretik gertatuko balitz.

5. Zergadunek autolikidazioa aurkeztu ez badute, banaka tribututzen dutela ulertuko da.

97. artikulua. Familia unitatearen modalitateak.

1. Familia unitatea osatzen dute legez banandu gabeko ezkontideek eta izatezko bikoteko lagunek, bai eta, halakorik badago, hauek ere:

a) Seme-alaba adingabekoak, gurasoen adostasunez haiengandik aparte bizi direnak izan ezik.

b) Epaiketa bidez desgaituta dauden seme-alaba adin nagusikoak, luzatu edo birgaitutako guraso-ahalaren menpe daudenean.

2. Era berean, senar-emazteak legez banantzen direnean edo ezkontza-loturarik nahiz izatezko bikoterik ez dagoenean, eta horri buruzko ebazpen judiziala eman denean, gurasoetako batek eta aurreko apartatuan aipaturiko baldintzak betetzen dituzten seme-alabek osatuko dute familia unitatea, norekin bizi diren alde batera utzita. Kasu horietan, beste guraso bat egonez gero, hori ez da aipaturiko familia unitateko kide izango.

Familia unitatea osatzeko, seme-alaba guztiak gurasoetako bati bakarrik egotziko zaizkio, bien arteko akordioz.

Akordiorik ez badago, epailearen erabakiz seme-alabak bakar-bakarrik bere ardurapean dituen gurasoak osatuko du familia unitatea seme-alaba guztiekin batera. Kasu horretan, bi familia unitate egon daitezke, eta gurasoak eta judizialki berari bakar-bakarrik esleitutako seme-alabek osatuko dute familia unitate bakoitza. Hala gertatzen denean, familia unitatea osatzeko, gurasoetako batek epailearen erabakiz esleitua izan behar du seme-alabetako baten zaintza.

3. Inor ezingo da bi familia unitateko kide izan aldi berean.

4. Familia unitatea zeintzuek osatzen duten jakiteko, urte bakoitzeko abenduaren 31n dagoen egoerari begiratuko zaio.

Urtean zehar familia unitateko kideren bat hiltzen bada, familia unitateko gainerako kideek batera aitortzea aukeratu ahal izango dute, euren autolikidazioan hildakoaren errentak sartuz. Gainera, hildakoak foru arau honetako VII. tituluaren III. kapituluaren jasotako kenkari pertsonal eta familiarretarako eskubidea sortu badu, autolikidazioan kenkari horiek ere sartu ahal izango dituzte, beren zenbatekoa egun horretara arte proportzionalki murriztu gabe.

98. artikulua. Baterako tributazioaren arauak.

1. Zergadunen errenta, oinarri ezargarri eta likidagarriak eta zerga zorra kalkulatzeko zerga honetan ezarrita dauden arau orokorrak artikulua honetan ezartzen diren berezitasunekin aplikatuko dira baterako tributazioan.

2. Banakako tributazioaren ondorioetarako finkatutako zenbateko eta muga kuantitatiboak neurri berean aplikatuko dira baterako tributazioan, familia unitateko kide kopuruaren arabera igo edo biderkatu behar izan gabe.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa ezarrita ere:

a) Lan etekinak pertsona batek baino gehiagok jasotzen dituenean, foru arau honek 23. artikuluan aipatzen duen hobaria lan etekin guztiak kontuan izanik aplikatuko da, jasotzaile kopurua edozein dela ere.

b) Zerga honen erregela orokorren arabera konpentsatuko dira banaka tributatu den zergaldietan familia unitatea osatzen duten zergadunek gauzatu bai baina konpentsatu ez dituzten jarduera ekonomikoen etekinen saldo negatiboak, aurrezpenaren oinarri ezargarriaren saldo negatiboak, ondare galerak eta oinarri likidagarri orokor negatiboak.

c) Foru arau honetako 71. eta 72. artikuluetan oinarri ezargarri orokorra murrizteko ezarrita dauden gehieneko mugak banaka aplikatuko dira familia unitatean sartuta dagoen partaide, mutualista, aseguratuta edo bazkide bakoitzeko. Orobat, kontuan hartuko da zergadun bakoitzak oinarri ezargarrian duen proportzioa, foru arau honetako 67. artikuluan jasotakoaren ondorioetarako.

d) Foru arau honetako 83. artikuluan aipatutako adina duen zergadun bakoitzeko egingo da artikulua horretan jasotako kenkaria. Kenkari hori aplikatzeko, baterako tributazio oinarri ezargarria, foru arau honek aipatutako artikuluen 4. apartatuaren arabera kalkulaturakoa, 35.000 eurokoa edo hortik beherakoa izan beharko da.

e) Foru arau honetako 87. artikuluen 3. apartatua aipatzen den 36.000 euroko kopurua banaka aplikatuko da zergadun bakoitzeko. Dena den, foru arau honetako 87. artikuluen 2. eta 4. apartatuetan aipatzen den urteko gehieneko kenkaria ezingo da izan, hurrez hurren, 1.530 eta 1.955 eurotik gorakoa, familia unitateko kide kopurua zeinahi dela ere, kasu batean izan ezik. Foru arau honetako 97. artikuluen 1. apartatua aipatzen diren familia unitateen baterako aitortzearen, muga horiek bikoiztu egingo dira.

f) Langileen sindikatuei kuotak ordaintzen dituen zergadun bakoitzeko aplikatuko dira foru arau honetako 92. artikuluan jasota dauden kenkariak.

3. Baterako tributazioa hautatu duten familia unitateko pertsona fisikoek lortutako edozein motatako errentak batera zergapetuko dira.

4. Baterako tributaziorako autolikidazioa familia unitateko adin nagusiko kideek sinatu eta aurkeztu behar dute, eta horiek familia unitatean sartutako adingabeak ordezkatzeko dituzte Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 45. artikuluen 1. apartatua xedatutakoaren arabera.

5. Familia unitateko kide guztiak batera eta modu solidarioan egongo dira zerga honen eraginpean, zerga zorra elkarren artean hainbanatzeko eskubideari utzi gabe, bakoitzari dagokion errenta finkoaren zatiaren arabera.

XI. TITULUA

ZERGALDIA ETA ZERGAREN SORTZAPENA

99. artikulua. Zergaldia eta zergaren sortzapena: erregela orokorra.

1. Zergaldia urte naturalarekin bat dator.

2. Zerga urte bakoitzeko abenduaren 31n sortuko da, ondorengo artikuluan jasotakoa eragotzi gabe.

100. artikulua. Urte naturala baino laburragoa den zergaldia.

1. Zergaldia urte naturala baino laburragoa izango da zergaduna abenduaren 31 ez den beste edozein egunetan hiltzen denean.

2. Aurreko apartatuan jasotako kasuan, zergaldia amaitu eta zergaren sortzapena heriotzaren egunean gertatuko da, foru arau honek 97. artikulua 4. apartatuan batera aitortzea aukeratzen denerako xedatutakoa eragotzi gabe. Horrelakoetan, batera tributatzea aukeratu eta bidezko murrizpena egitearen ondorio soiletarako, heriotza abenduaren 31n gertatu dela joko da.

XII. TITULUA KUDEAKETA

I. KAPITULUA AUTOLIKIDAZIOAK

101. artikulua. Autolikidatzeko betebeharra.

1. Zergadunek erregelamendu bidez ezartzen diren muga eta baldintzak betez aurkeztu eta sinatu behar dute zerga honen autolikidazioa.

2. Hala ere, zergadunek ez dute autolikidazioa egin beharrik beraiek lortu dituzten errentak honakoak bakarrik direnean:

a) Urteko 12.000 eurora bitarteko lan etekin gordinak, banaka aitortzen bada. Baterako tributazioan, aldiz, etekin mota hau lortzen duen zergadun bakoitzarentzat aplikatuko da muga hori.

b) 12.000 eurotik gorako lan etekin gordinak, urtean 20.000 euroraino banaka aitortzen bada, non eta ez dauden sartuta ondorengo 3. apartatuan jasotako kasuetako batean. Baterako tributazioan, aldiz, etekin mota hau lortzen duen zergadun bakoitzarentzat aplikatuko da muga hori.

c) Kapitalaren etekin gordinak eta ondare irabaziak, bi kasuetan salbuetsitakoak barne, batera hartuta horien urteko kopurua 1.600 eurokoa baino handiagoa ez bada.

3. Aurreko apartatuko b) letran aipatzen diren zergadunak behartuta daude zerga honen autolikidazioa aurkeztera kasu hauetan:

a) Lan etekinak ordaintzaile batengandik baino gehiagorengandik jasotzen dituztenean.

b) Lan kontratu bat baino gehiago sinatu dutenean, laborala izan edo administratiboa izan, ekitaldiaren barruan edo indarrean zegoen kontratua luzatuta.

c) Ezkontide edo izatezko bikotearengandik pentsio konpentsagarriak edo foru arau honek 9.1 artikuluan jasotakoak ez diren urteko mantenuak jasotzen dituztenean.

d) Erregelamendu bidez jasotako kasuetako batean sartuta daudenean.

Dena den, apartatu honetan jasotakoaren ondorioz zergaduna autolikidazioa aurkeztera behartuta dagoenean, aukera hauetako bat izango du:

- Zerga honen xedapen orokorre jarraituz tributatzea, edo
- Lan etekinak bakarrik kontuan hartuz tributatzea, erregela hauen arabera:

a) Lan etekinetarako ezarritako atxikipen portzentajeen taulak mota honetako etekinen zenbateko osoari aplikatuko zaizkio, betiere foru arau honek 9. artikuluan salbuesten dituen etekinak sartu gabe. Horretarako, atxikipenari lotutako etekinen zenbatekoa zehazteko erregelak hartuko dira kontuan, bai eta zerga sortzen den egunean indarrean dauden atxikipen taulak finkatu eta aplikatzeko erregelak ere.

b) Lan etekinei egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoa gutxituko zaio aurreko a) letran ezarritakoa aplikatu ondoren ateratzen den kopuruari. Hortik ateratzen den kopurua ordainduko zaio Foru Aldundiari, eta erregelamendu bidez finkatzen den eran zatikatu daiteke. Tributatzeko prozedura hau erabiliz gero, inoiz ez da itzulketarik egingo.

c) Inoiz ez da aplikatuko gastu kengarririk, hobaririk, murrizpenik, kenkaririk, baterako tributazioaren erregularik edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudian jasota dauden beste edozein onurarik.

4. Zergadunek beraiei buruzko datu guztiak bete beharko dituzte autolikidazioetan, eta finkatutako edo finkatzen diren dokumentu eta frogagiriak erantsi.

5. Kausatzailearen ondorengoak behartuta daude zerga honetan egin gabe geratu diren autolikidazioak aurkeztera eta sinatzera, zehapenak izan ezik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 39. artikuluan ezarritakoaren arabera.

6. Zergadunek bizilekua aldatzen badute, zerga administrazioari horren berri eman beharko diote, horrek zerga exijitzeko eskumenean ere aldaketak eragiten dituenean.

7. Autolikidazio ereduak eta aitorten modalitate erraztu edo berezien erabilera, era berean, Ogasun eta Finantzako foru diputatuak onartuko ditu, eta horrexek finkatuko ditu aurkezpen modu eta epeak nahiz euskarri telematikoen bitartez autolikidazioak aurkezteko kasuak eta baldintzak.

8. Foru Aldundiak ezarritako euskarri, prozesu informatiko edo bestelako zerbitzuak erabiliz edo horietaz baliatuz gauzatu daitezke zerga honen autolikidazioak, erregelamendu bidez finkatzen denaren arabera.

102. artikulua. Zerga zorra autolikidatzea eta ordaintzea.

1. Autolikidazioa aurkeztearekin batera, zerga zorra zehaztu behar dute zergadunek, eta Fiskalitaterako eta Finantzatarako foru diputatuak erabakitako tokian, moduan eta epeetan ordaindu behar dute.

2. Autolikidazioaren ondoriozko zenbatekoaren ordainketa erregelamendu bidez zehazten den moduan zatikatu daiteke.

3. Foru Aldundiak zerga zorra ondasun hauek emanek ordaintzea onartu ahal izango du:

a) Kultur Ondasun Kalifikatuen Erregistroan edo Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak aipatutako Inbentario Orokorrean jasota dauden Euskal Kultur Ondareko ondasunak.

b) Espainiako Ondare Historikoaren barruan dauden ondasunak, baldin eta Ondasun Higigarrien Inbentario Orokorrean edo Kultur Onurako Ondasunen Erregistro Orokorrean izena emana badute, Espainiako Ondare Historikoaren ekainaren 25eko 16/1985 Legeak 73. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ez dira sartuko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarri ezargarrian aurreko a) eta b) letretan aipatutako ondasunak ordainez ematean agerian jartzen diren errentak, ez eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 59. artikulua 2. apartatuko lehen paragrafoan aipatutako kasuetan agerian jartzen direnak ere.

4. Kausatzailearen oinordekoak behartuta egongo dira zerga honetan bete gabe geratu diren obligazioak betetzera, zehapenak izan ezik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 39. artikuluan ezarritakoaren arabera.

103. artikulua. Autolikidazio proposamena.

1. Autolikidazio proposamena bidal diezaieke Foru Aldundiak autolikidatzera behartutako zergadunei.

2. Zergadunak uste badu berari bidalitako autolikidazio proposamenak ondo jasotzen duela bere zerga egoera, proposamena izenpetu, baieztatu edo aldatu dezake arauz ezartzen diren baldintzei jarraituz. Baieztatuz gero, autolikidaziotzat hartuko da proposamena.

Foru Aldundiak bidalitako autolikidazio proposamena izenpetu edo baieztatu duen zergadunari ezingo zaio zigorrik ezarri proposamenean adierazi diren datuengatik.

3. Zergadunak ez badio autolikidazio proposamenari adostasunik ematen, jarduketa administratiboa ez dela egin joko da, eta zergadunak autolikidazioa aurkeztu beharko du horretara behartuta badago.

104. artikulua. Autolikidazioa aurkezterakoan egin behar diren hautuak.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren 115. artikulua 3. apartatuan jasotakoaren ondorioetarako, ulertuko da zerga honetan honako hautu hauek egin behar direla autolikidazioa aurkezten denean:

a) Atzerrian benetan egindako lanengatik jasotzen diren lan etekinen salbuespena, 9. artikulua 17. zenbakian arautua.

b) Aparteko mozkinen berrinbertsioa, 25. artikulua 3. apartatuan araututakoa.

c) Aurreko ekitaldietako saldo negatiboen konpentsazioa, 65. artikulua b) apartatuan araututakoa.

d) Desgaitasun kenkaria, 82. artikulua araututakoa.

e) Jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak, 88., 89. eta 89 bis artikuluetan araututakoak.

f) Baterako tributazioa aukeratzea, 96. artikulua araututakoa.

Negoziatzeko onartutako baloreetatik eratorritako ondarezko irabazien tributaziorako araubide hautazkoa, hogeita bigarren xedapen gehigarrian araututakoa.

II. KAPITULUA KONTURAKO ORDAINKETAK.

105. artikulua. Konturako ordainketak.

1. Zerga honetan hauek izan daitezke konturako ordainketak, betiere zerga zortzat hartuko direnak:

- a) Atxikipenak.
- b) Konturako sarrerak.
- c) Ordainketa zatikatuak.

2. Zergadun batek bizilekuz aldatzeagatik izaera hori hartzen duenean, bizileku aldaketa gertatu den zergaldian Zergadun Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergan egindako atxikipenak eta konturako sarrerak emango dira konturako ordainketatzat.

Besteren kontura diharduten langileek, zerga honen zergadunak izan gabe, lurralde espainiarrera aldatzeagatik izaera hori hartu behar dutenean, zerga administrazioari eman diezaiokete inguruabar horren berri, lurralde espainiarrean noiz sartuko diren ere adierazita utzirik. Hori guztia, lan etekinen ordaintzaileak zerga honen zergaduntzat hartzearen ondorio soiletarako egingo da.

Besteren konturako langileek hala eskatzen dutenean, zerga administrazioak frogagiria luzatuko die erregelamendu bidez ezartzen den prozeduraren arabera. Langile horiek lurralde espainiarrean egoiliarra den edo establezimendu iraunkorra duen lan etekinen ordaintzaileari helaraziko diote frogagiria, eta bertan adierazita utzi beharko da noiztik egingo diren zerga honengatik atxikipenak eta konturako sarrerak. Atxikipen tasa kalkulatzeko, apartatu honen lehen paragrafoan adierazitakoa hartuko da kontuan.

3. Zerga honen konturako ordainketatzat hartuko dira Kontseiluaren ekainaren 3ko 2003/48/EE Zuzentarauak, aurrezpenarengatik ordaindutako interesen etekinak zergapetzeari buruzkoak, 11. artikuluan dioenaren indarrez egindako konturako atxikipenak.

106. artikulua. Atxikipenak eta konturako sarrerak egin eta ordaintzeko betebeharra.

1. Jarraian aipatuko direnak behartuta daude atxikipenak eta konturako sarrerak egitera, jasotzaileari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketa gisa, erregelamendu bidez zehazten den kopuruan, bai eta horien zenbatekoa Foru Aldundiari ordaintzera ere Ekonomia Itunean jasotako kasuetan eta erregelamendu bidez finkatzen den moduan:

a) Zerga honi lotuta eta salbuetsi gabe dauden errentak ordaintzen dituzten pertsona juridikoak eta entitateak, errentak esleitzen dituzten entitateak barne.

b) Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zerga honen zergadunak, jarduera horiek burutzean zerga honi lotutako eta salbuetsi gabeko errentak ordaintzen dituztenean.

c) Egoitza lurralde espainiarrean izan gabe, bertan establezimendu iraunkorraz zein iraunkorrik gabe jarduten duten pertsona fisikoak, juridikoak eta bestelako entitateak, beraiek ordaintzen dituzten lan etekinei dagokienez, bai eta atxiki edo kontura sartu beharreko beste etekin batzuei dagokienez ere, baldin eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauak 23. artikulua 2. apartatuan aipatzen dituen errentak lortzeko gastu kengarriak badira.

Entitate batek, egoiliarra izan ala ez, zergadunei lan etekinak ordaintzen badizkie eta zergadun horien zerbitzuak jasotzen baditu Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 42. artikuluan jasotakoari jarraituz, hari lotuta dagoen entitate egoiliar batek edo espainiar lurraldean dagoen establezimendu iraunkor batek, zergadunaren zerbitzuak jasotzen dituen entitateak edo establezimendu iraunkorrak egin beharko du atxikipena edo konturako sarrera.

Aseguru pribatuak antolatu eta ikuskatzeari buruzko Legearen testu bateginak 86. artikulua 1. apartatua xedatutakoaren arabera izendatzen den ordezkariak zerbitzuen prestazio libreko araubideari jarraituz aritzen den aseguru entitatearen izenean jarduten badu, Espainian egiten diren eragiketengatik egin beharko du atxikipena eta konturako sarrera.

Europar Batasuneko beste estatu batean helbideratuta dauden pentsio fondoek Espainiako legeriaren mende dauden enpleguko pentsio planak lurralde espainiarrean garatzen badituzte Europako Parlamentuak eta bertako Kontseiluak 2003ko ekainaren 3an enpleguko pentsio fondoen jarduerari eta ikuskapenari buruz emandako 2003/41/EE Zuzentarauan jasotakoari jarraituta, pentsio fondo horiek behartuta egongo dira zerga helbidea Espainian izango duen ordezkaria izendatzera, haiek zerga obligazioen ondorioetarako ordezkatzeko. Ordezkari horrek atxikipena eta konturako sarrera egin beharko ditu Gipuzkoan egiten diren eragiketei dagokienez.

Misio diplomatikoak eta atzerriko estatuak Espainian dituzten bulego kontsularrak inoiz ere ez daude behartuta atxikipenik edo konturako sarrerarik egitera.

2. Erregelamendu bidez salbuetsi daiteke errenta jakin batzuen gaineko atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra.

3. Nolanahi ere, atxikipena edo konturako sarrera egin behar duten zergapekoek Foru Aldundian ordaintzeko betebeharra haien gain hartuko dute, baina betebeharrak ez konplitzeak ez dakar ordaintzeko betebeharra egin behar ez izatea.

4. Ebazpen judizial edo administratiboa dela medio zerga honen atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errenta ordaindu behar denean, ordaintzaileak ordaindu beharreko kopuru osoaren gainean egingo du atxikipena edo konturako sarrera, eta haren zenbatekoa Foru Aldundian ordaindu beharko du, artikulua honetan jasotakoari jarraituz.

5. Zergadunek beraiek jaso eta atxikipenari edo konturako sarrerari lotuta dauden etekinen ordaintzaileari eman behar diote atxikipena edo konturako sarrera kalkulatzeko kontuan hartutako zirkunstantzien berri, erregelamendu bidez jasotzen denaren arabera.

107. artikulua. Atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoa.

1. Atxikipenaren zenbatekoa kalkulatzeko, erregelamendu bidez finkatzen den portzentajea aplikatu behar zaio ordaintzen edo abonatzen den kopuru osoari.

2. Gauza bidezko ordainsariengatik egin beharreko konturako ordainketaren zenbatekoa kalkulatzeko, erregelamendu bidez finkatzen den portzentajea aplikatu behar zaie foru arau honetan jasotako arauari jarraituz zehaztutako haien balioari.

3. Jasotzaile berari diruz eta gauza bidez ordaintzen zaizkionean lan errentak, ordaindutako kontraprestazio edo onura guztien gainean egingo da atxikipena.

Kasu horietan, aurreko 1. apartatua aipatzen den atxikipen portzentajea kalkulatzeko, kontuan hartu behar dira aurreikus daitezkeen diru eta gauza bidezko ordainketak, finkoak izan edo aldakorak izan. Urtean zehar diru edo gauza bidezko ordainketen kopurua aldatzen

denean, beste portzentaje bat kalkulatu beharko da, aldaketak kontuan hartuta. Dena delako aldaketak gertatzen direnetik aurrera bakarrik aplikatuko da beste portzentaje hori.

Ordaindutako diru etekinetatik kenduko da aurreko paragrafoan aipatu portzentajea ordaindutako kontraprestazio eta onura guztiei aplikatuz ateratzen den zenbatekoa.

108. artikulua. Atxikipen eta konturako sarreraren konputua.

1. Zerga honen kontura atxiki beharreko errenten jasotzaileak horiek sortutako kontraprestazio osoa izango du kontuan. Atxikipenik egin ez denean edo behar baino gutxiago egin denean, atxiki beharreko kopurua kenduko du kuotatik jasotzaileak.

Sektore publikoak ordaindutako legezko ordainsariak direnean, hartzaileak benetan atxikitako kopuruen kenkaria egin dezake bakarrik.

Kontraprestazio osoa ezin denean frogatu, zerga administrazioak kopuru oso moduan konputatu dezake kopuru jakin bat, behin horretatik bidezko atxikipena kendu ondoren benetan jasotakoa ematen duena. Kasu horretan, benetan jasotakoaren eta kopuru osoaren arteko diferentzia kenduko du kuotatik, konturako atxikipen gisa.

2. Kontura ordaintzeko betebeharra dagoenean, sarrera ordaindu dela uste izango da. Zergadunak oinarri ezargarrian sartuko ditu gauza bidezko ordainketaren balorazioa, foru arau honetan jasotako arauei jarraituz, eta konturako sarrera, salbu lehenago jasanarazi bazaio.

109. artikulua. Ordainketa zatikatuak.

1. Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunak behartuta daude zerga honen kontura ordainketa zatikatuak egitera eta sartzera, erregelamendu bidez finkatzen diren baldintzetan.

2. Arau bidez, betebeharrak honetatik salbuetsi daitezke atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako diru sarrerak dituzten zergadunak, horretarako finkatzen den portzentajearen.

3. Jarduera ekonomikoak egiten dituzten errenten esleipen araubideko entitateei dagozkien ordainketa zatikatuak, era berean, izaera horretako errentak esleitu dakizkiokeen bazkide, oinordeko, erkide edo partaide bakoitzeko egingo da, horrek entitatearen mozkinen duen partaidetzaren proportzioan.

III. KAPITULUA BEHIN-BEHINEKO LIKIDAZIOAK

110. artikulua. Behin-behineko likidazioak.

Administrazioak egin ditzake martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, ezarritakoari jarraituz bidezkoak diren behin-behineko likidazioak.

111. artikulua. Ofiziozko itzulketak.

1. Foru arau honek 97. artikuluan 1. apartatuan aipatzen dituen diru kopuruen batura kuota likidua baino handiagoa denean, zerga administrazioa behartuta dago likidazioa egitera, behin autolikidazioa aurkeztuta, autolikidazioa aurkezteko epea amaitu ondorengo sei hilabeteen barruan.

Autolikidazioa epez kanpo aurkeztuz gero, horren aurkezpen egunetik aurrera hasiko da aurreko apartatuan aipatzen den sei hilabeteko epea.

2. Autolikidaziotik edo, hala badagokio, behin-behineko likidaziotik ateratzen den kuota likidua txikiagoa denean foru arau honek 94. artikulua 1. apartatuan aipatzen dituen diru kopuruen batura baino, zerga administrazioak ofizioz itzuliko du aipatu kuotaren gaineko soberakina aurreko apartatuan jasotako epean. Nolanahi ere, geroago bidezkoak diren behin-behineko edo behin betiko likidazioak egin daitezke.

3. Behin-behineko likidazioa ez bada egin artikulua honen 1. apartatuan finkatutako epean, zerga administrazioak ofizioz itzuliko du autolikidatutako kuotaren gaineko soberakina. Nolanahi ere, geroago behin-behineko edo behin betiko likidazioak egin daitezke.

4. Behin itzulketa epea igarota zerga administrazioari egotzitako arrazoiengatik ordainketa agindu gabe, itzultzeko dagoen kopuruari, epea amaitu ondorengo egunetik itzulketa jasotzeko eskubidea aitortzea erabakitzen den egunera arte, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 26. artikuluan aipatzen duen berandutza interesa aplikatu behar zaio, zergadunak hala eskatu beharrik izan gabe.

5. Erregelamendu bidez zehaztuko dira artikulua honen aipatzen duen ofiziozko itzulketa egiteko ordainketa prozedura eta modua.

IV. KAPITULUA BETEBEHAR FORMALAK

112. artikulua. Zergadunen betebeharrak formalak.

1. Zergadunak behartuta daude autolikidazioetan jaso beharreko edozein motatako eragiketa, errenta, gastu, sarrera, murrizpen eta kenkarien frogagiriak eta egiaztagiriak gordetzera, preskripzio epearen barruan.

2. Erregelamendu bidez, prozedura edo sistemak ezar daitezke, jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek egin beharreko fakturak kontrolatzeko.

3. Erregelamendu bidez, ondare informazioa emateko betebeharrak zehatzak ezar daitezke, zerga honen autolikidazioa aurkeztearekin batera bete beharrekoak, errentak edo zergadunen ondasun zein eskubide jakin batzuen erabilera kontrolatzeko xedearekin.

4. Pertsona desgaituen ondarea babestu eta Kode Zibila aldatzeko azaroaren 18ko 41/2003 Legeak, Prozedura Zibilararen Legeak eta horri buruzko zerga araudiak erregulatutako ondare babestuaren titularrak diren zergako zergadunek aitorpena aurkeztu behar dute, erregelamendu bidez jasotzen denaren arabera, non adieraziko duten nola dagoen osatuta ondarea, zein ekarpen jaso duten eta zertan erabili duten zergaldian.

113. artikulua. Kontabilitateari eta erregistroari buruzko obligazioak.

1. Jarduera ekonomikoen etekina zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate arruntaren arabera kalkulatu behar duten zergadunak behartuta daude kontabilitatea Merkataritza Kodearen arabera eramatera, bai eta Sozietateen gaineko Zergaren ondorioetarako finkatuta dauden erregistro osagarriak kudeatzera ere.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa hala izanik ere, jarduera ekonomikoa ez bada merkataritza izaerakoa Merkataritza Kodearen arabera, edo haren etekina zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztuaren bitartez zehazten bada, erregistro obligazio bakarra honako erregistro liburuak eramatea izango da:

- a) Salmenta eta sarreraren erregistro liburua.
- b) Erosketa eta gastuen erregistro liburua.
- c) Inbertsio ondasunen erregistro liburua.
- d) Kutxako liburua.

3. Aurreko apartatuan xedatutakoa xedatuta ere, erregistro liburu hauek eraman beharko dituzte jarduera profesionalak egiten dituzten zergadunek:

- a) Sarreraren erregistro liburua.
- b) Gastuen erregistro liburua.
- c) Inbertsio ondasunen erregistro liburua.
- d) Kutxako liburua.
- e) Funts horniduren eta ordejarrien erregistro liburua.

4. Jarduera ekonomikoak egiten dituzten errenten esleipen araubideari lotutako entitateek derrigorrezko liburu bakarrak eraman behar dituzte beren jarduerari dagokionez. Nolanahi ere, etekinak esleitu beharko dituzte, hala badagokio, euren bazkide, oinordeko, erkide edo partaideei dagokienez.

5. Erregelamendu bidez finkatuko da artikulua honetan aipatzen diren erregistro liburuak bideratzeko prozedura, eta Merkataritza Kodeak exijitutako liburuak betebeharrak honetatik salbuetsita geratzen dira.

Era berean, erregelamendu bidez jaso daiteke nola eraman artikulua honetan aipatzen diren erregistro liburuak, bai eta horien ordezkari eramate prozedurak finkatu eta hainbat zergadunen sektoreak haiek eraman edo dilijentziatua egiteko beharretik salbuetsi ere.

114. artikulua. Atxikitzailearen eta konturako ordainketak egitera behartuta dagoenaren betebeharrak formalak.

Koturako sarrerak atxikitzea eta egitera behartutako zergapekoak erregelamendu bidez ezarritako epe, modu eta lekuetan aurkeztu behar du berak atxikitako diru kopuru edo egindako konturako ordainketen aitorpena edo, horiek egin beharrik ez dagoenean, aitorpen negatiboa. Era berean, erregelamendu bidez erabakitzen diren atxikipen eta konturako sarrerei buruzko urteko laburpena aurkeztu behar du.

Koturako sarrerak atxikitzea eta egitera behartutako zergapekoak dokumentazioa gorde behar du, eta egindako atxikipen eta konturako sarreraren ziurtagiria luzatu behar du erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan.

Ogasun eta Finantzako foru diputatuak onartuko ditu aitorpen ereduak.

115. artikulua. Bestelako informazio betebeharrak formalak.

Arau bidez, informazioa emateko betebeharrak finkatu daitezke eragiketa hauek egiten dituzten edo egoera hauetan dauden pertsonentzat eta entitateetarako:

a) Maileguak ematen dituzten entitateetarako, etxebizitzak erosteko emandako maileguei dagokienez.

b) Atxikipenik gabeko lan edo kapital errentak ordaintzen dituzten entitateetarako

c) Sariak ordaintzen dituzten entitate eta pertsona juridikoentzat, nahiz eta zerga honen ondorioetarako errenta salbuetsitatzat hartuta egon.

d) Zerga honetan kenkarirako eskubidea ematen duten dohaintzak jasotzen dituzten entitateetarako, dohaintza emailearen identitateari eta jasotako zenbatekoei dagokienez, zerga honen autolikidazioaren ondorioetarako dohaintzaren ziurtagiria eskatu dutenean.

e) Kreditu entitateetarako, horietan etxebizitza kontu gisa gordailatutako diru kopuruei dagokienez. Ondorio horietarako, zergadunek kreditu entitatearen aurrean identifikatu beharko dute zein kontu dagoen helburu horretara zuzenduta.

f) Aseguru pribatuak antolatu eta ikuskatzeari buruzko Legearen testu bateginak, urriaren 29ko 6/2004 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartuak, 86. artikulua 1. apartatua xedatutakoaren arabera izendatuta dagoen ordezkariarentzat, zerbitzuen prestazio libreko araubideari lotuta aritzen den aseguru entitatearen izenean jarduten bada, Espainian egiten diren eragiketei dagokienez.

g) Foru arau honek 108. artikulua 1. apartatua c) letrako azkenareko paragrafoan jasota dagoen ordezkariarentzat, Gipuzkoan egiten diren eragiketei dagokienez. Nolanahi dela ere, ordezkari horrek beti izango ditu irailaren 30eko 1307/1988 Errege Dekretuak onartutako Pentsio Plan eta Fondon Erregelamenduan pentsio fondoen entitate kudeatzaileetarako jasotzen diren zerga informazioko obligazio berberak.

h) Langileen sindikatuetarako, horiei ordaindutako kuotei dagokienez, erregelamendu bidez finkatzen denaren arabera.

i) Alderdi politikoetarako, foru arau honek 23. artikulua b) letran eta 95. artikulua 2. apartatua jasotzen denaren arabera antolakunde politikoari ordaindutako afiliazio kuotei eta diru kopuruei dagokienez.

j) Kooperatibetarako, kooperatibari egindako ekarpen sozialak eskualdatu edo itzultzeagatik sortutako errentei dagokienez.

k) Lurraldeko administrazio publikoetarako, ematen dituzten laguntza publiko, prestazio eta diru laguntzei dagokienez.

XIII. TITULUA

ONDARE ERANTZUKIZUNA ETA ZEHAPEN ARAUDIA

116. artikulua. Zergadunaren ondare erantzukizuna.

Zerga honengatik sortutako zerga zorrak eta, hala badagokio, zerga zehapenek Kode Zibilaren 1365. artikuluan aipatutakoen izaera bera izango dute. Ondorioz, zuzenean irabazpidezko ondasunen bitartez kitatuko dira ezkontideetako batek Foru Aldundiarekiko hartutako zor eta, hala badagokio, zehapen horiek, foru arau honetako 98. artikulua 5. apartatua baterako tributaziorako jasotakoa eragotzi gabe.

Aurreko paragrafoan jasotakoa izatezko bikoteei aplikatuko zaie, bikote-lagunek ezarritako ondare araubide ekonomikoari Kode Zibilaren agindu hori aplikatzekoa bazaio.

117. artikulua. Urraketak eta zigorrak.

Zerga honen urraketak martxoaren 8ko 2/2205 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, IV. tituluan xedatutakoaren arabera zigortuko dira, foru arau honetan jasotako berezitasunak eragotzi gabe.

XIV. TITULUA JURISDIKZIO ARLOA

118. artikulua. Jurisdikzio arloa.

Administrazioarekiko auzi jurisdikzioa izango da, administrazio bidea amaitu ondoren, jurisdikzio bakarra administrazioaren eta zergadun, atxikitzaile eta gainerako zergapekoen artean gerta daitezkeen gatazkak erabakitzeko, foru arau honetan aipatzen den edozein gairi dagokionez.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. Izatezko bikoteak.

Foru arau honen ondorioetarako, izatezko bikoteak aipatzen direnean, Izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutakoak direla ulertuko da.

Bigarrena. Bake eta segurtasunerako nazioarteko operazioetako partaideen aldeko salbuespena.

Salbuetsita egongo dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik eta haiei lotutako edozein zerga pertsonaletatik, Bake eta segurtasunerako nazioarteko operazioetako partaideen aldeko kalte-ordainei buruzko azaroaren 5eko 8/2004 Errege Dekretu Legeak aipatzen dituen kalte-ordainak direla-eta jaso diren diru kopuruak.

Hirugarrena. Erregistro berezian inskribatutako itsasontzietako tripulatzaile batzuentzako salbuespena.

Itsasontzietako tripulatzaileek beren lan pertsonalagatik lortzen dituzten etekinen % 50 salbuetsita egongo da, baldin eta etekin horiek uztailaren 6ko 19/1994 Legeak, Kanarietako araubide ekonomiko eta fiskala aldatzekoak, 75. artikuluan aipatzen dituen itsasontzien eta itsas enpresen erregistro berezian inskribatutako itsasontzietan nabigatuz sortutakoak badira.

Laugarrena. Aurrezpen sistematikorako banakako planak.

1. Aurrezpen sistematikorako banakako planetatik jasotzen den biziarteko errentak foru arau honetako 36.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera tributatuko du. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Legeak, Sozietateen gaineko, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko eta Ondarearen gaineko Zergen legeak partez aldatzen dituenak, hirugarren xedapen gehigarrian arautzen ditu plan haiek.

2. Zergadunak, biziarteko errenta eratu baino lehenago, metatutako eskubide ekonomikoak osorik nahiz zati batean erabiltzen baditu, foru arau honetan xedatutakoaren arabera tributatuko da, egindako erabilpenaren proportzioan. Horren ondorioetarako, berreskuratutako kopurua lehenik ordaindutako primei dagokiela iritziko da, horien errentagarritasuna barne delarik.

Eratutako biziarteko errentaren ondoriozko eskubide ekonomikoak osorik nahiz zati batean aurreratzeak, zergadunak aurreratze hori egiten den zergaldian integratu beharko du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauen indarrez salbuetsita egon zen errenta.

3. Honelako kontratuetan prima moduan gehienez ere 8.000 euro ordaindu ahal izango dira urtero, eta muga hori gizarte aurreikuspeneko sistemetako ekarpen mugetatik aparte izango da. Orobat, kontratu hauetan metatutako prima guztien zenbatekoa ezin izango da zergadun bakoitzeko 240.000 euro baino handiagoa izan.

4. Ordaindutako lehenengo primak 10 urte baino gehiagoko antzintasuna izan beharko du, biziarteko errenta eratzen den unean.

Bosgarrena. Zenbatespen objektiboko metodoaren zeinu, indize edo moduluen modalitatearen bidez zehazten diren jarduera ekonomikoen etekinen gaineko atxikipena.

Zenbatespen objektiboko metodoaren zeinu, indize edo moduluen modalitatearen bidez zehazten diren jarduera ekonomikoen etekinak atxikipenari loturik egongo dira, erregelamendu bidez ezartzen diren kasu, portzentaje eta baldintzen arabera.

Seigarrena. Araudiari buruzko aipamenak.

Foru araudian Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauari buruz jasotako aipamen oro foru arau honetako xedapenei buruzkoa dela ulertuko da.

Zazpigarrena. Ondare irabazi salbuetsiak.

Foru arau honetako 42. artikuluan e) letran ezarritakoak eraginak izango ditu preskribatu gabe dauden zergaldietan eginiko ohiko etxebizitzaren eskualdaketengan.

Zortzigarrena. Besteren konturako langileen mutualitateak.

Oinarri ezargarri orokorra murriztu ahal izango dute dena delako lanbide elkargoek ezarrita dauzkaten gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin itundutako aseguru kontratuen ondorioz besteren konturako langile diren mutualista elkargokideek, beren ezkontide, izatezko bikote edo lehen mailako ahaide odolkideek eta mutualitate horietako langileek ordaindutako kopuruek, foru arau honetako 71. eta 72. artikuluetan jasotako baldintzetan, baldin eta mutualitateko organo egokien erabaki batek ahalbidetzen badu laguntzak Pentsio Planak eta Fondoak arautzen dituen Legearen testu bateginak (azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartua) 8.6 artikuluan jasotako kontingentziak ematen direnean bakarrik kobratzea.

Bederatzigarrena. Kirolari profesionalen gizarte aurreikuspeneko mutualitateko ekarpen eta prestazioen zerga araubidea.

1. Goi mailako kirolariei eta kirolari profesionalei —aplikagarri den legediaren arabera izaera hori aitortua dutenean—, kirolari profesionalen mutualitateari ekarpenak egiten badizkiote (prima finkoko gizarte aurreikuspeneko mutualitatea), xedapen gehigarri honetako 3. apartatuan jasotako zerga tratamendua aplikatuko zaie.

2. Xedapen gehigarri honetan jasotako zerga araubidea aplikatzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Legeak, Sozietateen gaineko, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren

gaineko eta Ondarearen gaineko Zergen legeak partez aldatzen dituenak, hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarritako betekizun, ezaugarri eta baldintzak bete beharko dira.

3. Kirolari profesionalen gizarte aurreikuspeneko mutualitateari (prima finkoko gizarte aurreikuspeneko mutualitatea) egindako ekarpenek eta horretatik eratorritako prestazioek zerga araubide hau izango dute:

a) Ekarpinak, zuzenekoak edo egotziak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarri ezargarri orokorra murriztu ahal izango dute, muga honekin: etekin osoa gastu kengarrien zenbatekoaz murriztuta gelditzen diren lan etekinak gehi ekitaldian jarduera ekonomikoetatik banaka lortutako etekin garbien zenbatekoa, 24.250 euroraino gehienez ere.

b) Oinarri ezargarri orokorra behar bestekoa ez izateagatik, edo aurreko apartatuko a) letran ezarritako gehienezko muga gainditzeagatik, oinarri horretan murriztu ezin izan diren ekarpinak hurrengo bost ekitaldietan murriztu ahal izango dira. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Legeak, Sozietateen gaineko, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko eta Ondarearen gaineko Zergen legeak partez aldatzen dituenak, hamaikagarren xedapen gehigarriaren lehen apartatuaren 2. zenbakian ezarritako gehienezko muga gainditzen duten ekarpinei ez zaie arau hori ezarriko.

c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Legeak, Sozietateen gaineko, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko eta Ondarearen gaineko Zergen legeak partez aldatzen dituenak, hamaikagarren xedapen gehigarriaren lehen apartatuaren 2. zenbakian aipatu ez dituen kasuetan eskubide kontsolidatuak erabiltzeak zergadunari ekarriko dio behar ez bezala egindako murrizpenak oinarri ezargarri orokorrean berrezartzeko betebeharra. Horretarako, autolikidazio osagarriak egin beharko ditu, berandutza interesak ere sartuta. Ekarpinen zenbatekoa gaindituta jaso diren kopuruek, sustatzaileak egotzitako kontribuzioak barne, lan etekin gisa tributatu dute horiek jasotzen diren zergaldian.

d) Jasotako prestazioek, baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Legeak, Sozietateen gaineko, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko eta Ondarearen gaineko Zergen legeak partez aldatzen dituenak, hamaikagarren xedapen gehigarriaren lehen apartatuaren 4. zenbakian jaso dituen kasuetan eskubide kontsolidatuak hartzeak ere, oso-oso-rik lan etekin gisa tributatu dute, foru arau honek jasotakoaren arabera.

e) Foru arau honek 70. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da, baldin eta zergadunak eskubide kontsolidatuak baditu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Legeak, Sozietateen gaineko, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko eta Ondarearen gaineko Zergen legeak partez aldatzen dituenak, hamaikagarren xedapen gehigarriaren lehen apartatuaren 4. zenbakian jasotakoak ez diren kasuetan.

4. Aurreko apartatuan jasotako araubidea zeinahi dela ere, kirolari profesionalek eta goi mailakoek aukera izango dute kirolari profesionalen gizarte aurreikuspeneko mutualitateari ekarpinak egiten jarraitzeko, kirolari gisa egiten zuten lan jarduna amaitu arren edo izaera hori dagoeneko galdu arren.

Ekarpen horiengatik murrizpenak egin ahal izango dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zerga oinarri orokorrean, Pentsio Planak eta Fondoak arautzen dituen Legearen testu bateginak (azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) 8.6 artikuluan jasotzen dituen egoerak estaltzea helburu duen zatian.

b) Mutualisten eskubide kontsolidatuak bakarrik gauzatu ahal izango dira Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen testu bateginak, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak, 8. artikulua 8. apartatuan pentsio planei dagokienez jasotako kasuetan.

Ekarpen hauen baterako murrizpen muga gisa, foru arau honetako 71.1 artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

e) Foru arau honek 70. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da, baldin eta zergadunak eskubide kontsolidatuak baditu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Legeak, Sozietateen gaineko, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko eta Ondarearen gaineko Zergen legeak partez aldatzen dituenak, hamaikagarren xedapen gehigarriaren lehen apartatuko 4. zenbakian jasotakoak ez diren kasuetan.

Hamargarrena. Informatzeko obligazioak.

1. Erregelamendu bidez, informazioa emateko betebeharrak ezarri ahal izango zaizkie inbertsio kolektiboko erakundeak kudeatzen dituzten sozietateei, inbertsio sozietateei, egoitza Espainian edo atzerrian duten inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak edo partaidetzak Espainiako lurraldean komertzializatzen dituzten entitateei, eta zerbitzuak emateko askatasunez diharduen entitate kudeatzailearen izenean aritzen den eta Hainbat zerga neurri buruzko apirilaren 6ko 2/2004 Foru Arauak bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera izendatua den ordezkariari, erakunde horien akzio edo partaidetzen gaineko eragiketei dagokienez, haien salmenta eta erosketa eragiketen emaitzari buruz daukaten informazioa barne delarik.

Era berean, erregelamendu bidez, informazioa emateko betebeharrak ezarri ahal izango zaizkie inbertsio kolektiboko erakundeak kudeatzen dituzten sozietateei eta entitate merkaturatzaileei, erakunde horietako akzio edo partaidetzei dagokienez, akziodunen edo partaideen erregistroetan jasoak dituztenean.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako edo Sozietateen gaineko Zergako zergadunek informazioa eman beharko dute, erregelamendu bidez ezartzen denaren arabera, paradisu fiskaltzat jotako herrialde edo lurraldeekin egiten dituzten edo haiekin zuzenean edo zeharka loturiko balore edo ondasunen edukitzaren ondorio diren eragiketa, egoera, kobrantza eta ordainketei buruz.

3. Erregelamendu bidez, informazioa emateko betebeharrak ezarri ahal izango dira kasu hauetan:

a) Pertsonen edo entitateen, foru arau honetako 70. artikuluan aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemei buruz.

b) Finantza entitateei, foru arau honen laugarren xedapen gehigarrian aipatzen direnen artean izan eta beraiek komertzializatzen dituzten aurrezpen sistematikorako banakako planei buruz.

c) Gizarte Segurantzaren eta mutualitateen kasuan, informazioa beren afiliatu edo mutualistengatik sortutako kotizazio eta kuotei buruzkoa izango da.

d) Erregistro Zibilaren kasuan, jaiotza, adopzio eta heriotzei buruz informatuko da.

4. Bankuek, aurrezki kutxek, kreditu kooperatibek eta banku edo kreditu trafikoan diharduten pertsona fisiko nahiz juridiko guztiek, erregelamendu bidez ezartzen denaren arabera, entitate horietan irekitako edo beraiek hirugarrenen esku jarritako kontu guztien identifikazioa eskuratu beharko diote zerga administrazioari, zeinahi ere den haien modalitatea edo jasotzen duten izena, atxikipenik edo konturako sarrerarik egin ez denean ere.

Informazio horren barruan, kontu horien titular baimenduen edo edozein onuradunen identifikazioa egongo da.

5. Azaroaren 18ko 41/2003 Legeak —pertsona desgaituen ondarea babestu eta helburu horrekin Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta zerga araudia aldatzekoak— 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren arabera, babestutako ondareetarako ekarpenen formalizazioan esku hartzen duten pertsonak ekarpen horiei buruzko aitortpena aurkeztu beharko dute, erregelamendu bidez ezartzen denari jarraituz. Ogasun eta Finantzako foru diputatuak erabakitzen duen leku, modu eta epean egingo da aitortpena.

Hamaikagarrena. Judizialki aitortutako ezintasunen zerga araudia.

% 65eko edo hortik gorako minusbaliotasuna duten pertsona desgaituentzat foru arau honetan jasotako berariazko xedapenak ezintasuna Kode Zibilaren arabera judizialki aitortua duten pertsona desgaituei aplikatuko zaie, haien minusbaliotasuna maila horretara iritsi ez arren.

Hamabigarrena. Erreskate eskubidea, enpresek Pentsio plan eta fondoei buruzko Legearen testuategia onartzen duen azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak lehen xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera hartutako pentsio konpromisoak bideratzen dituzten aseguru kolektiboko kontratuetan.

Ez da lotuta egongo kasu bakoitzean egokitzen den baliabide ekonomikoen titularraren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari, ondorengo kasuetan, Pentsio plan eta fondoei buruzko Legearen testuategia onartzen duen azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegilearen lehen xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera hartutako pentsio konpromisoak bideratzen dituzten aseguru kolektiboko kontratuetan erreskate eskubidea erabiltzearen ondorioz agertzen den errenta:

a) Polizan bideratutako konpromisoak osorik edo zati batean sartzean aipatu lehen xedapen gehigarrian jasotako betekizunak betetzen dituen beste aseguru kontratu batean.

b) Lan harremana amaitzen denean jatorrizko aseguru kontratuaren arabera langileari dagozkion eskubideak aseguru kolektiboko beste kontratu batean sartzean.

Aurreko a) eta b) letretan jasotako kasuek ez dute aldatuko primen izaera enpresak zerga arloan egozteari dagokionez, ez eta jatorrizko aseguru kontratuan ordaindutako primen antzintasunaren konputua ere. Dena dela, aurreko b) letretan jasotako kasuan, primak ez baziren egotzi, enpresak horien kenkaria egin ahal izango du mobilizazio hori dela eta.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari lotu gabe geratuko da Pentsio plan eta fondoei buruzko Legearen testuategia onartzen duen azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegilearen lehen xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera hartutako pentsio konpromisoak bideratzen dituzten aseguru kolektiboko kontratuen mozkinetan parte hartzearen ondorioz agertzen den errenta ere, mozkinetako partaidetza hori kontratu horietan aseguraturako prestazioak gehitzeko erabiltzen denean.

Hamahirugarrena. Ondare pertsonala osatzen duten ondasunak xedatzea zahartzaroak eta mendekotasunak dakartzaten diru beharrezanei erantzuteko.

1. Ez dira errentatzat hartuko 65 urte baino gehiagoko pertsonak eta Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Legearen 26. artikuluan aipatzen den mendekotasun ertain edo handiko egoeran dauden pertsonak ohiko etxebizitza xedatzearen ondorioz jasotako kopuruak, baldin eta abenduaren 7ko 41/2007 Legeko lehen xedapen gehigarrian jasotakoari jarraituz egiten badira (41/2007 Legea,

hipoteken merkatua erregulatzen duen martxoaren 25eko 2/1981 Legea eta sistema hipotekario eta finantzarioari buruzko beste arau batzuk aldatu, alderantzizko hipotekek eta mendetasun aseguru arautu, eta zerga alorreko zenbait arau ezartzen dituen).

2. Abenduaren 7ko 41/2007 Legeko lehen xedapen gehigarrian jasotakoari jarraituz alderantzizko hipoteka bat eratzearen ondorioz onuradunak lor ditzakeen aldizkako diru erabilpenak aurreikuspen plan aseguru bat kontratatuzera zuzendu daitezke osorik zein zati batean, foru arau honek 70. artikulua 1. apartatuko 5. zenbakian jasotako modu eta baldintzetan. Ondorio horietarako, hartzailearen biziraupen egoera foru arau honek 70. artikulua 1. apartatuko 5. zenbakiaren b) letran jasotako erretiro kontingentziarekin parekatuko da, aurreikuspen plan aseguru horren lehen prima ordaintzen zenetik hamar urte igaro ondoren.

Aurreikuspen plan aseguruaren hornikuntza matematikoa ezin izango da mobilizatu gizarte aurreikuspeneko beste tresna batera eta, gainera, ezin izango dira plan hartara mobilizatu gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuetako eskubide kontsolidatuak edo hornikuntza matematikoak.

Hamalagarrena. Gauza bidez ordaintzea.

Ez dira gauza bidezko ordainsaritzat hartuko diruaren legeko interes tasa baino txikiagoa duten maileguak, 1992ko urtarrilaren 1a baino lehenago itunduak badira eta haien kapitala egun hori baino lehenago mailegu hartzailearen esku jarri bazen.

Hamabosgarrena. Kapital murrizketaren ostean negoziatziora onartu ez diren balore eta partaidetzak eskualdatzea.

1. Espainiako bigarren mailako balore merkatu ofizialetako batean negoziatziora onartu ez diren balore eta partaidetzak eskualdatu baino lehen, zergadunak zirkulazioan jarri dituen balore eta partaidetza guztiei era berdinean eragiten ez dien balio nominalaren murrizketaren bidezko kapital murrizketa ematen bada, foru arau honetako IV. tituluko V. kapituluaren jasotako erregelak ezarriko dira, berezitasun hauek kontuan izanik:

1.a Eskualdaketa baliotzat hartuko da foru arau honetako 41. artikulua 2. apartatuko a) letran jasotako ezartzetik ateratzen den balio nominalaren arabera dagokiona.

2.a Zergadunak ez baditu bere balore eta partaidetza guztiak eskualdatu, efektiboki eskualdatu dituen balore edo partizipazioen balio nominalari dagokion eskualdaketa balioaren eta aurreko paragrafoan aipatzen den eskualdaketa balioaren arteko diferentzia positiboa gainontzeko balore edo partizipazioen eskurapen baliotik murriztuko da harik eta deuseztatu arte. Ondare irabazi gisa zergapetuko da eragiketa horretatik atera daitekeen soberakina.

2. Aurreko apartatuan jasotako arauak ondare sozietateen kapitaletik eratorritako balore edo partaidetzak eskualdatzen diren kasuetan aplikatuko dira.

Hamaseigarrena. Eskubide ekonomikoak gizarte aurreikuspeneko sistemen artean mobilizatzea.

Foru arau honetako 70. eta 72. artikuluetan aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemetako eskubide ekonomikoen mobilizazioek ez dute zerga ondoriorik izango, baldin eta erregelamendu bidez ezartzen diren betekizun eta baldintzak betetzen badira, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateen berariazko araubidea errespetatuz.

Hamazazpigarrena. Ekarpenak itzuliz eta jaulkipen-prima banatuz gauzatutako kapital murrizketak, Sozietateen gaineko Zergako karga tasa orokorraren mende ez dauden kapital aldakorreko inbertsio sozietateek eginak.

1. Foru arau honetako 34.e) artikuluan eta 41.2.a) artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitakoa hor badago ere, kapital murrizketa kasuetan, horien xedea ekarpenak itzultzea eta akzioetako jaulkipen prima banatzea denean, eta eragiketa horien egileak inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko 35/2003 Legeak, azaroaren 4koak, erregulatzen dituen eta Sozietateen gaineko Zergako karga tasa orokorraren mende ez dauden kapital aldakorreko inbertsio sozietateak direnean, bazkideek edo partaideek integratu beharreko errenta ondoren datorren bezala zehaztuko da:

a) Kapital murrizketaren helburua ekarpenak itzultzea denean, integratu beharreko errenta beronen zenbatekoa edo jasotako ondasun edo eskubideen merkatuko balio arrunta izango da; hau kapital higigarriaren etekin gisa kalifikatuko da, foru arau honetako 34. artikuluan a) letran aurreikusitakoarekin bat, baina ondoren datozen kopuruetako handiena izango du muga:

- Akzioen likidazio balioaren igoera, eskuratu edo harpidetu zirenetik sozietatearen kapital murrizketaren unea arte.

- Kapital murrizketa banatu gabeko irabazietatik egina denean, irabazi horien zenbatekoa. Ondorio horietarako, iritziko da kapital murrizketek, beren xedea zeinahi dela ere, banatu gabeko mozkinetatik ez datorren kapital sozialaren zatiari eragiten diotela lehenik, kapital soziala deuseztatu arte.

Aipatu mugaren gaineko soberakoak murriztu egingo du akzio afektatuen eroste balioa, foru arau honetako 41.2 a) artikuluko bigarren paragrafoko erregelekin bat, hori deuseztatu arte. Ildo beretik, sor daitekeen soberakoa edozein entitate motaren fondo propioetako partaidetzatik jasotako kapital higigarriaren etekin gisa integratuko da, jaulkipen primaren banaketarako aurreikusitako modu berean.

Letra honetan erregulatutako kapital higigarriaren etekinei ez zaie, inola ere, aplikatuko foru arau honetako 9.24 artikuluan aurreikusitako salbuespena.

b) Kapital aldakorreko inbertsio sozietateen akzio jaulkipeneko prima banatzeko kasuetan, jasotako zenbateko osoa integratuko da; ezin izango da foru arau honetako 34. e) artikuluan aurreikusten den akzioen erosketa baliorako gutxipena aplikatu.

2. Aurreko 1. apartatuan xedatutakoa aplikatuko zaie beste estatu batean erregistratuta dauden inbertsio kolektiboko erakundeei, kapital aldakorreko inbertsio sozietateen baliokideei alegia, beren akzioak erosi, laga edo berreskuratzeko unean, inbertsiogile-talde murriztuekiko dituzten mugak direnak direla; edonola ere, aplikatu egingo zaie balio higigarrietako inbertsio kolektiboko erakunde jakin batzuei buruzko lege, arau eta administrazio mailako xedapenak koordinatzen dituen Europar Legebiltzar eta Kontseiluaren 2009/65/EE Zuzentarauak, 2009ko uztailaren 13koak, babesten dituen sozietateei.

Hemezortzigarrena. Loteria eta apustu jakin batzuetatik eratorritako sarien gaineko karga berezia.

1. Zerga honen zergadunek lortzen dituzten sariak karga berezi batez zergapetuko dira honako sariak direnean:

a) Estatuko Loteria eta Apustuen Sozietate Estatalak eta autonomia erkidegoetako organo edo entitateek antolatutako loteria eta apustuen sariak, Espainiako Gurutze Gorriak

antolatutako zozketetatik eratorritakoak eta, orobat, Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalari baimendutako joko-modalitatetatik datozenak.

b) Gizarte-laguntzako jarduerak irabazi asmorik gabe egiten dituzten entitateek edo erakunde publikoek antolatutako loteria, apustu eta zozketen sariak, erakunde horiek Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batean finkatuta badaude eta aurreko letran adierazitako erakunde edo entitateen helburu berberak badituzte.

Karga berezia independenteki exijituko da loteriako dezimo, zatiki edo kupoi saritu bakoitzeko edo apustu saritu bakoitzeko.

2. Sarien zenbateko osoa 2.500 eurokoa edo txikiagoa denean, sariak karga berezitik salbuetsiko dira. Sarien zenbateko osoa 2.500 eurokoa baino handiagoa denean, zenbateko horretatik gorako zatiari dagokionez zergapetuko dira.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikagarria izango da baldin eta loteriako dezimo, zatiki edo kupoiaren zenbatekoa, edo egindako apustuarena, gutxienez 0,50 eurokoa bada. Zenbatekoa 0,50 eurotik beherakoa denean, aurreko paragrafoan adierazitako gehieneneko zenbateko salbuetsia proportzionalki murriztuko da.

Sariak titulartasun partekatua duenean, aurreko paragrafoetan aurreikusitako zenbateko salbuetsia titularkideen artean hainbanatuko da, bakoitzari dagokion kuotaren arabera.

3. Aurreko 2. apartatuan aipatutako zenbateko salbuetsia gainditzen duen kopurua izango da karga bereziaren oinarri ezargarria. Saria gauzetan jasotzen bada, oinarri ezargarria kalkulatzeko begiratu behar da sariaren merkatu baliotik zer zatik gainditzen duen, behin konturako sarrera kenduta, aurreko 2. apartatuan aurreikusitako zenbateko salbuetsia.

Sariak titulartasun partekatua duenean, aurreko paragrafoetan aurreikusitako zenbateko salbuetsia titularkideen artean hainbanatuko da, bakoitzari dagokion kuotaren arabera.

4. Karga bereziaren kuota osoa kalkulatu da 3. apartatuan aurreikusitako oinarri ezargarriari % 20 aplikatuta. Xedapen gehigarri honen 6. apartatuan jasotako atxikipenak edo konturako sarrerak bakarrik gutxituko dira kuota osotik.

5. Karga bereziaren sortzapena lortutako saria ordaintzen edo ematen den momentuan gertatuko da.

6. Xedapen gehigarri honetan aurreikusitako sariak atxikipenari edo konturako sarrerari lotuta egongo dira foru arau honetako 105., 114. eta 115. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Atxikipena edo konturako sarrera % 20 izango da. Atxikipenaren edo konturako sarreraren oinarria karga bereziaren oinarri ezargarriaren zenbatekoa izango da.

7. Xedapen honetan aurreikusitako sariak ez dira aintzat hartuko zergaren autolikidazioa aurkezteko obligazioa —foru arau honen 101.1 artikuluan jasotakoa— ezartzearen ondorioetarako.

Hala ere, xedapen honetan aurreikusitako sariak jaso dituzten zergadunek autolikidazio bat aurkeztu behar dute karga berezi honengatik, kasuan kasuko zerga zorra kalkulatu, eta zenbatekoa Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakitako lekuan, eran eta epeetan ordaindu.

Alabaina, autolikidazio hori ez da aurkeztu beharko lortutako sariaren zenbatekoa aurreko 2. apartatuan aipatutako zenbateko salbuetsia baino txikiagoa denean.

8. Xedapen honetan aurreikusitako sariak ez dira integratuko zergaren oinarri ezargarrian, eta ez dira aintzat hartuko foru arau honen 101. artikulua 2. apartatuko c) letran xedatutakoaren ondorioetarako. Xedapen honetan jasotakoaren arabera egindako atxikipenak edo konturako sarrerek ez dute zergaren kuota likido osoa gutxituko, eta ez dira kontuan hartuko foru arau honen 111. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako.

9. 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen egindako jokoetatik eratorritako sariak xedapen honetan ezarritakotik kanpo geratuko dira.

Hemeretzigarrena. Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko Foru Arauaren aldaketa.

Honela aldatu da Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauaren 21. artikulua:

"1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek eskubidea izango dute kuota osotik foru arau honetako 20. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulaturako kenkariaren oinarriaren % 20 kentzeko".

Hogeigarrena. Negoziatzeko onartutako baloreetatik eratorritako ondarezko irabazien tributaziorako araubide hautazkoa.

Bat. Foru arau honetako 47.1.a) artikuluan aipatzen diren baloreak kostu bidez eskualdatzen dituzten zergadunek hauek biak aplikatzearen arteko hautua egin dezakete: batetik, artikulurik horretan bertan eskualdaketa onoriozko ondare irabazia kalkulatzeko xedatzen dena; bestetik, eskualdaketa balioaren gaineko % 3ko karga berezia, baldin eta balio hori 10.000 euro baino txikiagoa bada zergaldi bakoitzean eskualdatutako balore guztiei dagokienez.

Hautu hori egiten bada, berariaz adierazi behar da hura aplikatuko den ekitaldiko autolikidazioan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 115.3 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako. Zergaldi baterako egindako hautua aldatu egin ahal izango da zergaren aitortzea egiteko borondatezko epea bukatzen den egunera arte edota zerga administrazioak behin-behineko likidazioa egiten duen egunera arte, azken hau bestea baino lehenago bada.

Zergadunak hautazko araubide hori aplikatzea erabakitzen badu eta balore homogeenak badaude, ulertuko da zergadunak eskualdatutakoak hark lehenengo eskuratutakoak direla.

Bi. Karga berezi hori aplikatuz atertzen den zenbatekoa ez da sartuko foru arau honetako 67. artikuluan aipatzen den aurrezpenaren zerga oinarrian, eta kuota osoari batuko zaio, foru arau honetako 74. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Hiru. Foru arau honetako 110. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, zerga administrazioak behin-behineko likidazioa egin ahal izango du, xedapen gehigarri honetan xedatutako aplikatuz, kasu hauetan:

a) Zergadunak ez badu autolikidaziorik aurkeztu edo autolikidazioan ez badu konputatu eskualdaketa horien ondoriozko ondare irabazi edo galerarik.

b) Zerga administrazioak errekerimendua egin ondoren zergadunak ez badu modu nahikoan justifikatzen autolikidazioan konputatutako ondare irabazi edo galera.

Zerga administrazioak behin-behineko likidazio proposamenak bidali ahal izango ditu, xedapen gehigarri honetan xedatutakoa aplikatuz.

Hogeita batgarrena. Mugaldeko langilearen izaeraren denbora eragina.

Errentaren eta ondarearen gaineko zergen alorrean zergapetze bikoitza saihesteko Espainiaren eta Frantziaren arteko 1973ko ekainaren 27ko hitzarmeneko 15.4 artikulua onorioetarako, mugaldeko langilearen izaerak denbora eragin hau izango du:

- Besteren konturako langileak ohiko egoitza Frantziara aldatzen duenean eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadun bilakatzen denean, mugaldeko langilearen izaeraren eragina lekualdaketaren egunetik aurrera hasiko da, eta horretarako ezarritako lege betekizunak betetzen diren unetik aurrera. Beraz, Frantziara joan aurretik langile horrek Gipuzkoan lortutako lan etekinak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari lotuta geratuko dira, eta zerga horretan konturako ordainketatzat joko dira egoitza aldatzeko epe horretan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan egindako atxikipenak eta konturako sarrerak.

Mugaldeko langilearen izaerak aipatutako lege betekizunak betetzen diren bitartean iraungo du.

- Besteren konturako langileak ohiko egoitza Frantziara aldatzen duenean eta zergaldi horretan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadun izaerari eusten badio, mugaldeko langilearen izaerak eragina hurrengo zergaldiko urtarrilaren 1etik aurrera izango du.

Hogeita bigarrena. Zenbatespen zuzen erraztuaren araubidea lehenengo sektorean ezartzeko arau bereziak.

1. Nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren —lehen eraldaketa barne— etekin garbia kalkulatzeko, foru arau honetako 28. artikuluko 1. apartatuko b) letran aipatutako portzentajea % 35 izango da.

2. Basogintzako eta baxurako arrantzako jardueren etekin garbia kalkulatzeko, sarrerei —jarduerari atxikitako ondare elementuen irabazi eta galerak izan ezik— gutxipen portzentaje bat aplikatuko zaie, gastu frogagaitzengatik, zeina ez den % 65 eta % 90 baino txikiagoa izango hurrenez hurren, eta beste edozein gasturen kengarritasuna galduko da.

3. Xedapen gehigarri honetan aipatzen diren jardueri ez zaie aplikatuko foru arau honetako 25. artikuluko 1. apartatuko b) letran jasotzen den bolumen neurria.

Hogeita hirugarrena. Epailearen erabakiz seme-alaben zaintza partekatua ezarri den kasu jakin batzuetan etxebizitza ohiko etxebizitzatzat jotzea.

Gurasoek seme-alaben zaintza eta ardura partekatu behar badute epailearen erabakiz, eta erabaki horretan ezarrita badago seme-alabek familiaren etxebizitzan bizi behar dutela eta gurasoak txandaka arduratuko direla haien zaintzaz etxebizitza horretan, zergadunaren ohiko etxebizitza zein den zehaztearen ondorioetarako, gurasoek adierazi behar dute zergaldian okupatu dituzten etxebizitzetatik zein aukeratzen duten zergaldi horren barruan egoitza gisa.

Guraso bakoitzak banaka egingo du aukera hori, erregelamenduz ezartzen diren baldintza eta ondorioekin.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena. 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratutako ondare elementuetatik datozen ondare irabazien zenbatekoa kalkulatzeari.

Bat. 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratu diren eta jardura ekonomikoei loturik ez dauden ondare elementuak eskualdatzeagatik lortutako ondare irabazien zenbatekoa ondoko erregelara hauei jarraituz kalkulatu da:

1.a Oro har, foru arau honetako IV. tituluko V. kapituluaren ezarritakoaren arabera kalkulatu dira ondare elementu bakoitzerako. Horrela kalkulatu ondare irabazitik bereizi behar da zein zati sortu den 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen, eta haxe hartuko da halakotzat: eskurapen egunetik 2006ko abenduaren 31ra arte (bi egunak barne) igarotako egun kopuruari zergadunaren ondarean egon den egun kopuru osoarekiko proportzioan dagokion ondare irabaziaren zatia.

2007ko urtarrilaren 1a baino lehen sortutako ondare irabaziaren zatia era honetan murriztu da:

a) Zergadunaren ondarean elementuak izan duen iraupen alditzat honako hau hartuko da: elementua eskuratu den egunetik 1996ko abenduaren 31ra bitartean igarotako urte kopurua, goitik biribilduta.

Eskualdatutako ondare elementuetan hobekuntzak egin badira, elementu horiek ondarean izan duten iraupen aldia honako hau izango da: hobekuntzak egin diren egunetik 1996ko abenduaren 31ra bitartean igarotako urte kopurua, goitik biribilduta.

b) Eskualdatutako ondare elementuak ondasun higiezinak, horien gaineko eskubideak edo Baloreen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1998 Legearen 108. artikuluan aipatutako entitateen baloreak badira, kanpoan utzita higiezinaren inbertsio sozietate edo fondoaren kapital sozialaren edo ondarearen akzio edo partaidetzak, murrizpena % 11,11koa izango da aurreko letran adierazitako iraupen urteak bitik gora gainditzen diren urte bakoitzeko.

c) Eskualdatutako ondare elementuak Europako Parlamentuaren eta bertako Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan, finantza tresnen merkatuei buruzkoan, definitutako bigarren mailako balore merkatu ofizialetako batean negoziatzeko onartutako akzioak badira —sozietate edo entitateen fondo propioetan parte hartzea adierazten dutenak—, kanpoan utzita ondasun higikor zein higiezinaren inbertitzen dituzten sozietateen kapitalaren erakusgarri diren akzioak, murrizpena % 25ekoa izango da aurreko a) letran adierazitako iraupen urteak bitik gora gainditzen diren urte bakoitzeko.

d) 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen sortutako gainerako ondare irabaziak % 14,28 murriztu dira aurreko a) letran adierazitako iraupen urteak bitik gora gainditzen diren urte bakoitzeko.

e) Aurreko b), c), eta d) letretan adierazitakoaren arabera 1996ko abenduaren 31n hurrenez hurren hamar, bost eta zortzi urteko iraupen aldia duten ondare elementuetatik 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen sortu den ondare irabaziaren zatia ez da zergapetuta egongo.

2.a 2006ko abenduaren 31 iritsita merkatu arautuetan negoziatzeko onartuta dauden baloreak direnean edo foru arau honetako 47. artikuluko 1. apartatuaren a) eta d) letretan aurreikusitako araubidea aplikagarria zaien inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio edo

partaidetzen kasuan, ondare irabaziak eta galerak foru arau honetako IV. tituluko V. kapituluaren ezarritakoaren arabera kalkulatu dira balore, akzio edo partaidetza bakoitzerako.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioz ondare irabazi bat lortzen bada, ondoko murrizpenetatik dagokiona egingo da:

a) Eskualdaketa balioa balore, akzio edo partaidetzei 2006ko Ondarearen gaineko Zergan dagokienaren berdina edo handiagoa bada, 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen sortu den ondare irabaziaren zatia aurreko 1. erregelaren ezarritakoaren arabera murriztuko da. Ondorio horietarako, 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen sortutako ondare irabazia honako hau izango da: balore, akzio edo partaidetzei 2006ko Ondarearen gaineko Zergan dagokien eskualdaketa baliotzat hartuta ateratzen den ondare irabaziaren zatia.

b) Eskualdaketa balioa balore, akzio edo partaidetzei 2006ko Ondarearen gaineko Zergan dagokiena baino txikiagoa bada, ondare irabazi guztia 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen sortua dela iritziko da, eta aurreko 1. erregelaren ezarritakoaren arabera murriztuko da.

3.a Eskualdatutako ondare elementuetan hobekuntzarik egin bada, osagai bakoitzari besterentze balioan zein zati dagokion bereziko da xedapen iragankor honetan xedatutakoa aplikatzeari begira.

Bi. Zergadunaren jarduera ekonomikoari atxikita izan diren ondare elementuen eskualdaketatik, xedapen honetan ezarritakoa ez da aplikatu jarduera hori beste titularitate batekin egiten jarraitzen denean.

Bigarrena. 1985eko maiatzaren 9a baino lehenagoko errentamendu kontratuak.

Kapital higiezinaren etekinak 1985eko maiatzaren 9a baino lehen egindako errentamendu kontratuetatik datozenetan eta kontratu horiek Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeak bigarren xedapen iragankorraren 11. apartatuko 7. erregelaren ezarritakoaren aplikazioz errenta berrikusteko eskubiderik ez dutenean, etekinak zehazteko garaian foru arau honetako 32. artikuluan jasotakoa aplikatuko da, ondoko berezitasunak kontuan izanik:

1.a Kapital higiezinaren etekinak etxebizitzetatik baldin badatoz, ondasun higiezin bakoitzeko lortutako etekin osoen % 50eko hobaria aplikatuko da.

2.a Aurreko 1. zenbakian sartu ez diren kapital higiezinaren etekinetan, hobaria ondasun higiezin bakoitzeko lortutako etekin osoen % 40koa izango da.

Foru arau honetako 58.4 artikuluan jasotakoa ez zaie aplikatuko xedapen iragankor honetan jasotako errentamendu kontratuei.

Hirugarrena. Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik edo hura erosteagatik 2014ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko zergaldietan egindako kenkariak.

Foru arau honen 87.3 artikuluan ezarritako 36.000 euroko muga zergadun guztiei aplikatuko zaie edozein unetan eskuratu dutela ere ohiko etxebizitza.

Aurrekoa hala izanik ere, 36.000 euroko muga horri zenbateko hauek gutxituko zaizkio:

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauari jarraikiz zergadunak ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik kendu dituen kopuruak.

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2006ko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauko 90. artikuluari jarraikiz —2011ko abenduaren 31ra arte aplikagarria izan zen idazketari jarraituz— zergadunak ohiko etxebizitza erosteagatik kendu dituen kopuruak.

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2006ko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauko 90. artikuluari jarraikiz —2012ko urtarrilaren 1etik aurrera 2013ko abenduaren 31ra arte aplikagarria izan den idazketari jarraituz— zergadunak ohiko etxebizitza erosteagatik kendu dituen kopuruak.

- Hala badagokio, berrinbertsioagatik salbuetsitako ondare irabaziari % 15 edo % 18 —kasu bakoitzean zegokion tasaren arabera— aplikatuta ateratzen den emaitza.

Laugarrena. Kenkaria aplikatzea pertsona batek baino gehiagok 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen elkarrekin eskuratutako ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik.

Foru arau honetako 87. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen den muga banan-banan aplikatuko zaie 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen ohiko etxebizitza elkarrekin eskuratu duten zergadunei, aurreko hirugarren xedapen iragankorrean ezarritakoa kontuan hartuz.

Bosgarrena. Paradisu fiskaltzat jotzen diren herrialde edo lurraldeetan eratutako inbertsio kolektiboko erakundeen balio fiskala.

1. Foru arau honetako 52. artikuluan adierazten den likidazio balioaren soberakina kalkulatzeko, eskuratze baliotzat 1999ko urtarrilaren 1eko likidazio balioa hartuko da, egun horretan zergadunak dituen partaidetza eta akzioei dagokienez. Balio horren eta eskuraketaren benetako balioaren arteko diferentzia ez da eskuraketa-baliotzat joko akzio edo partaidetzen eskualdaketa edo berreskuraketatik eratorritako errentak zehaztean.

2. Inbertsio kolektiboko erakundeek banatutako dibidenduak eta mozkin partaidetzak 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen lortutako mozkinetatik datozenean, bazkide edo partaideen oinarri ezargarrian sartuko dira. Ondorio horietarako, banatutako lehenengo erreserbak irabazitako lehenengo mozkinekin zuzkitu direla iritziko da.

Seigarrena. Enplegua murrizteko espedienteetatik jasotako prestazioak.

Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen testu bateginak, azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartuak, laugarren xedapen iragankorrean ezarritakoa betetzeko hitzartzen diren aseguru kontratuak enplegua murrizteko espedienteen prestazioak bideratzeko egiten badira, eta kontratu horien onuradunek 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera jaso dituzten diru kopuruei —kontratua egin aurretik barruko fondoan kontura ordaindutakoei— Errenta Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauak 16.2 artikuluan aurreikusitako integrazio portzentajeak aplikagarri bazitzaizkien, foru arau honetako 19.2 artikuluko integrazio portzentajeak aplikatuko zaizkie, eta ondorio horietarako, gisa horretako kontratuak egiteak ez du aldatuko prestazio horien sorreraldia kalkulatzeko era.

Zazpigarrena. Gizarte aurreikuspeneko mutualitateei aplikatzeko araubide iragankorra.

1. Erretiro eta elbarritasun prestazioak gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin hitzarturiko aseguru kontratuetatik badatoz eta horiei dagozkien ekarpenak, 1999ko urtarrilaren 1 baino lehen egindakoak, gutxienez zati batean murriztu badira oinarri ezargarrian, lan etekin gisa integratu beharko dira zergaren oinarri ezargarrian.

2. Integrazio hori egingo da jasotako zenbatekoa mutualitateari egindako ekarpenak baino handiagoa denean, eta, betiere, ekarpen horiek zergaren araudiaren arabera oinarri ezargarrian murriztu edo gutxitu ezin izan direnean eta, beraz, lehendik tributatu dutenean.

3. Oinarri ezargarria murriztu edo gutxitu ezin izan duten ekarpenen zenbatekoa frogatzerik ez badago, erretiro edo elbarritasunagatik jasotako prestazioen % 75 integratuko da.

Zortzigarrena. 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen ondare gehikuntzak edo gutxipenak sortu dituzten bizitza aseguru kontratuen araubide iragankorra.

Kapital geroratu bat jasotzen denean, 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen sortutako eta foru arau honetako IV. tituluko IV. kapituluko 3. sekzioan ezarritakoaren arabera kalkulaturako etekin garbi osotik 1994ko abenduaren 31 baino lehen ordaindutako primei dagokien zatiak % 14,28ko murrizpena izango du prima ordaindu zenetik 1994ko abenduaren 31ra bitartean igarotako urte bakoitzeko, goitik biribilduta. Etekin garbi osotik kendu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, honela jokatu da:

1.a Zehaztu beharko da zein zati dagokion etekin garbi osotik 1994ko abenduaren 31 baino lehen ordaindutako prima bakoitzari. Lortutako etekin osotik aseguru kontratuko prima bakoitzari zein zati dagokion kalkulatzeko, etekin oso hori zatiketa honetatik ateratzen den ponderazio koefizientearekin biderkatuko da:

- Zenbakitzailean, prima ordaindu zenetik prestazioa kobratu arte igarotako urte kopurua primarekin biderkatuz ateratzen den emaitza.

- Izendatzailean, prima ordaindu zenetik prestazioa kobratu arte igarotako urte kopurua prima bakoitzarekin biderkatuz ateratzen diren biderkaduren batura.

2.a Etekin garbi osotik 1994ko abenduaren 31 baino lehenago ordaindutako prima bakoitzari dagokion zati bakoitzerako, zehaztu beharko da, baita ere, zein zati sortu den 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen. Egun hori baino lehenago sortu den zatia kalkulatzeko, aurreko 1. zenbakian adierazitako eragiketarik 1994ko abenduaren 31 baino lehen ordaindutako prima bakoitzerako ateratzen den zenbatekoa ondoko zatiketarik ateratzen den ponderazio koefizientearekin biderkatuko da:

- Zenbakitzailean, prima ordaindu zenetik 2007ko urtarrilaren 1era arte igarotako denbora.

- Izendatzailean, prima ordaindu zenetik prestazioa kobratu arte igarotako denbora.

3.a Etekin garbi osotik kendu beharreko zenbatekoa zehaztuko da. Horretarako, etekin garbi osoaren zatietako bakoitza, aurreko 2. zenbakian xedatutakoaren arabera kalkulaturik, % 14,28 murriztuko da dagokion primaren ordainketarik 1994ko abenduaren 31ra arte igarotako urte bakoitzeko. Bi data horien artean sei urte baino gehiago igaro baldin badira, aplikatu beharreko portzentajea % 100 izango da.

Bederatzigarrena. Biziarteko eta aldi baterako errentei aplikagarri zaien araubide iragankorra.

1. Biziarteko eta aldi baterako errentetatik, berehalakoak nahiz geroratuak izan, etekin higikorren etekintzat jotzen den zatia zehazteko, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera errenta moduan jasotzen diren prestazioei foru arau honetako 36. artikuluko 1. apartatuaren b) eta c) letretan ezarritako portzentajeak aplikatuko zaizkie, baldin eta errentak 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen eratu badira.

Biziarteko errenten kasuan, portzentaje horiek errenta eratzen den unean hartzaileak duen adinaren arabera aplikatuko dira, edo errentaren iraupen osoaren arabera, aldi baterako errentak baldin badira.

2. 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen eratu diren biziarteko edo aldi baterako errentak erreskatatuz gero, erreskate hori dela eta sortutako kapital higikorren etekina kalkulatzeko, errenta eratu arte lortutako errentagarritasuna kenduko da.

3. Biziarteko eta aldi baterako errentetatik, berehalakoak nahiz geroratuak izan, etekin higikorren etekintzat jotzen den zatia zehazteko, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera errenta moduan jasotzen diren prestazioei foru arau honetako 36. artikuluko 1. apartatuaren b) eta c) letretan ezarritako portzentajeak aplikatuko zaizkie, baldin eta errenta horiek 1999ko urtarrilaren 1etik 2007ko abenduaren 31ra bitartean eratu badira.

Biziarteko errenten kasuan, portzentaje horiek errenta eratzen den unean hartzaileak duen adinaren arabera aplikatuko dira, edo errentaren iraupen osoaren arabera, aldi baterako errentak baldin badira. Gainera, foru arau honetako 36. artikuluko 1. apartatuaren d) letrean aipatzen den errenta eratu arte lortutako errentagarritasuna gehitu egingo da, hala badagokio.

Hamargarrena. Aseguru kontratu berri jakin batzuen zerga araubidea.

Etekin osoa lortzeko foru arau honen 19.2.c) artikuluan aurreikusten den % 25eko portzentajea 1994ko abenduaren 31tik aurrera hitzartutako aseguru kontratuei baino ez zaie aplikatuko.

Hamaikagarrena. Bizitza aseguru kolektiboak lan etekinen sortzaile direnean enplegatuei primak egotzi gabe.

Foru arau honetako 19.2.c) artikuluan jasotakoa jasota ere, aplikaziozkoa izango da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauak hamaseigarren xedapen iragankorrean jasotakoa, baldin eta 2003ko urtarrilaren 1aren aurretik hitzartutako aseguru kontratuetan prima guztiak 2003ko martxoaren 24a baino lehen ordaindu baziren langileei gauzazko lan etekin gisa fiskalki egotzi gabe.

Hamabigarrena. Bizitza aseguru kontratu jakin batzuk aurrezpen sistematikoko banakako plan bihurtzea.

1. 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen formalizatu diren bizitza aseguru kontratuetan zergaduna kontratatzaile, aseguratu eta onuradun gisa ageri denean eta kontratu horiek foru arau honetako laugarren xedapen gehigarrian araututako aurrezpen sistematikoko banakako plan bihurtzen badira, foru arau honetako 9.23 artikulua eta hirugarren xedapen gehigarria aplikatuko zaizkie biziarteko errentak eratzen diren unean, baldin eta ondoko betekizunak betetzen badira:

a) Aseguru kontratua indarrean egon den denboran prima gisa urtean ordaindutako gehienezko kopurua 8.000 euro baino handiagoa ez izatea, eta metatutako prima guztien zenbatekoak ez gainditzea, zergadun bakoitzeko, 240.000 euroko kopurua.

b) Lehenengo prima ordaindu den egunetik hamar urte baino gehiago igaro izana.

2. Kontratua banakako plan bihurtzeko garaian, kontratuaren baldintzetan berariaz eta nabarmen adieraziko da aurrezpen sistematikoko banakako plan bat dela, foru arau honetako laugarren xedapen gehigarrian araututakoa.

3. Kontratua banakako plan bihurtu eta gero, eta eratutako biziarteko errentatik datozen eskubide ekonomikoak modu aurreratuan baliatzen badira dela osorik dela zati batean, zergaduna behartuta egongo da foru arau honetako 9. artikuluko 23. apartatuan xedatutakoaren indarrez salbuetsita egon zen errenta eskubideak modu aurreratuan baliatu diren zergaldian integratzera.

Hamahirugarrena. Bizitza edo elbarritasun kontratu indibidualei zergan aplikatzen zaizen konpentsazioa.

Zergadunek kapital diferitu bat jasotzen badute 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen izenpetutako bizitza edo elbarritasun kontratu indibidual baten ondorioz, eta etekin horrentzat foru arau honetan ezarritako zerga araubidea okerrago ateratzen bada abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoan, araututakoa baino, erregelamendu bidez erabakiko da nola eta zein baldintzatan jaso ahal izango duten zergadun horiek konpentsazio fiskal bat. Ondorio horietarako, kontuan hartuko dira bakar-bakarrik 2006ko abenduaren 31ra arte ordaindutako primak eta, kontratuaren jatorrizko polizan aurreikusitakoak izanik, data horretatik aurrera ordaindutako prima arruntak.

Hamalagarrena. 2012ko urtarrilaren 1aren aurretik eskualdatutako harpidetza eskubideei aplikatu beharreko zerga araubidea.

Eskuraketa balioa zehazteko —foru arau honetako 47.1.a) artikuluan aipatzen da—, 2012ko urtarrilaren 1aren aurretik eskualdatutako harpidetza eskubideengatik lortutako zenbatekoa kengarria izango da, salbu eta eskualdaketa horietan lortutako zenbatekoa eskualdatzailearen ondare irabazitzat hartu bazen eskualdaketa egin zen zergaldian.

Hamabosgarrena. Enpresaren akzioak edo partaidetzak ematea langileei.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 10/2006 Foru Arauko 17.2.c) artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie foru arau hau indarrean jarri aurretik ezarritako akzioak eta partaidetzak emateko planei, langile guztiei egin zitzaizen eskaintza data horren aurretik egin bazen, eta plan horiei indarrean zegoen arauketa aplikatu behar bazitzaizen 2013ko zergaldian.

Hamaseigarrena. Justifikatu ez diren ondare-irabazien egozpena.

Foru arau honetako 50. artikulua 3. zenbakian arautzen den egozpena xedapen horretan xedatutakoaren arabera dagokion zergaldiari aplikatuko zaio, salbu eta 2012. ekitaldiari edo aurrekoren bati egotzi behar izanez gero; halakoetan, 2013. ekitaldiari egotziko zaio.

Hamazazpigarrena. Kaleratzearen ondoriozko kalte-ordain salbuetsiak.

1. 2012ko otsailaren 12tik hasita abenduaren 27ko 13/2012 Foru Araua —zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen ditu— indarrean sartu zen egunera bitartean gertatutako kaleratzeen ondoriozko kalte-ordainak salbuetsita egongo dira, kaleratzea bidegabe aitortu izan balitz egokituko litzatekeen zenbatekoa gainditzen ez duten kopuruan, enpresaburuak hala aitortzen duenean kaleratzea jakinarazteko unean, edo adiskidetze egintzaren aurreko beste edozer unetan, eta, betiere, kontratu amaierak ez badira baja pizgarriidunen planen edo sistemen esparruan adostu.

2. Enplegu erregulazioko espedienteen ondorio diren kaleratzeengatik edo kargugabetzeengatik kalte-ordainak, lan merkatua erreformatzeko premiazko neurriei buruzko uztailaren 6ko 3/2012 Legearen hamargarren xedapen iragankorrak aipatzen dituenak, salbuetsita egongo dira, lan urteko berrogeita bost eguneko soldata gainditzen ez

duten zenbatekoan. Urtebetetik beherako aldiak hileka hainbanatuko dira, gehienez ere berrogeita bi hilabetera.

Enplegu erregulazioko espedientea eragin duten arrazoiak antolaketa edo ekoizpenekoak bakarrik direnean, aurreko paragrafoan ezartzen dena soilik aplikatuko zaio 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako kaleratze edo kargugabetzeei.

Hemezortzigarrena. 2014ko zergaldiaren aurreko zergaldietan murriztu ez diren gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenen gaindikinen araubide iragankorra.

1. Gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako gehiegizko ekarpen eta kontribuzioak (foru arau honetako 71.3 artikuluan eta zortzigarren xedapen gehigarrian —2013ko abenduaren 31an aplikatu beharreko idazketan— aipatzen dira), 2009, 2010, 2011, 2012 eta 2013ko ekitaldietakoak badira eta murriztu gabe badaude 2014ko urtarrilaren 1ean, foru arau honetako 71.1 artikuluan ezartzen diren mugak errespetatuz murriztu ahal izango dira, eta hala egiterakoan ez da aplikatuko erretiro egoera dela eta foru arau honetako 70.5 artikuluan ezartzen den salbuespena.

2. Gizarte aurreikuspeneko sistemetan bazkide, partaide, mutualista edo titularra ezkontidea edo izatezko bikote bada, zergadunak sistema horiei egindako gehiegizko ekarpenak, foru arau honetako 71. artikuluko 3. apartatuan aipatuak —2013ko abenduaren 31n aplikagarri zegoen idazkeraren arabera—, 2009, 2010, 2011, 2012 eta 2013ko ekitaldietatik badatoz, eta 2014ko urtarrilaren 1ean horiek murriztu gabe badaude, gehienez ere 2.400 euro murriztu daitezke urtean, zergadunaren erretiro egoera kontuan hartu gabe.

Hemeretzigarrena. Langilea kaleratu edo kargugabetzeagatik ematen diren kalte-ordainei aplikatzeko araubide iragankorra.

Foru arau honetako 9.5 artikuluan ezartzen den salbuespen muga ez zaie aplikatuko 5. zenbaki horretan arautzen diren kaleratze edo kargugabetzearen ondoriozko kalte-ordainei, baldin eta foru arau hau indarrean jarri aurretik azkendutako lan harremanen ondorio badira.

Hogeigarrena. Etekin irregularrei aplikatu beharreko integrazio portzentajeen araubide iragankorra.

1. Foru arau honetako 19.2 artikuluan eta 25.4 artikuluan ezarritakoa gorabehera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauan ezarritakoarekin bat denboran era irregular nabarmenean lortutakotzat jotzen diren etekinei, 2014ko urtarrilaren 1a baino lehen hitzartutako kontratu edo akordioei badagozkie, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauan ezarritakoa aplikatuko zaie.

2. Foru arau honetako 30.3 artikuluan eta 39.3 artikuluan ezarritakoa gorabehera, 2014ko urtarrilaren 1a baino lehen hitzartutako kontratu edo akordioen ondoriozko etekinei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauan ezarritakoa aplikatuko zaie.

3. Foru arau honetako 19.2 artikuluan, 25.4 artikuluan, 30.3 artikuluan eta 39.3 artikuluan ezarritakoa gorabehera, foru arau hau indarrean jarri aurretik lortutako etekinei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 26ko 6/2006 Foru Arauan ezarritako integrazio portzentajeak aplikatu bazaizkie eta etekinok zatika kobratzen badira, orduan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauan ezarritakoa aplikatuko zaie etekin horiei.

Hogeita batgarrena. Ekonomia jarduera hastean inbertsiorako kreditu erakundeetan jarritako gordailuengatiko kenkaria.

Zergadunek 2014ko urtarrilaren 1a baino lehen gordailuak egin badituzte kreditu erakundeen kontuetan eta gordailuon xedea ekonomia jarduera bat hasteko beharrezko gastu eta inbertsioei aurre egitea bada, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2006ko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauko hogeita batgarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat, eta data horretan oraindik ez badira hiru urte igaro kontua ireki zenetik, bada, orduan, kenkari hori aplikatzen jarraitu ahal izango dute zergadun horiek, manu horretan ezarritakoaren arabera.

Hogeita bigarrena. Ibilgailu jakin batzuk eskualdatzea.

Foru arau honetako 27. artikuluko 5. erregelaren 3. zenbakiko a) letran aipatzen diren jarduera bati bakarrik atxikitako ibilgailuen kasuan, ondare irabaziak edo galerak kalkulatzeko, 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratu direnean, letra horrek dioenari jarraituko zaio, baina berezitasun hauekin:

- Esandako a) letrako bigarren paragrafoak aipatzen dituen kopuru kengarriak kalkulatzeko, kontuan hartuko dira egindako amortizazio fiskalki deduzituak, aurreko paragrafoan aipatutako ondorio dataren aurrekoak barne.
- Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 40.9 artikuluko aipatzen duen moneta zuzenketa kalkulatzeko —ibilgailu haien eskualdaketatik eratorria—, kontuan hartuko dira bai erosketa prezioa edo produkzio kostua eta bai egindako amortizazio fiskalki deduzituak. Horrela kalkulaturako moneta zuzenketaren zenbatekoa ezingo da eskualdaketarengatik lortutako irabazia baino handiagoa izan.

Hogeita hirugarrena. Ohiko etxebizitzako berrinbertsioen ondoriozko salbuespena. 2007ko urtarrilaren 1aren aurreko eskualdaketak.

2007ko urtarrilaren 1aren ondoren eskuratutako ohiko etxebizitza baten kasuan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauaren 46. artikuluan aurreikusitako berrinbertsio salbuespena kontsolidatu bazen, foru arau honetako 87. artikuluko 3. apartatuak aipatzen duen muga gutxitu egingo da, hain zuzen ere, salbuespenaren ondare irabaziaren zenbatekoaren % 15 gutxituko zaio.

Hogeita laugarrena. 2012ko urtarrilaren 1aren aurretik eskuratutako etxebizitzetako ohiko etxebizitzaren kenkaria aplikatzeko araubide iragankorra.

1. Ohiko etxebizitza 2012ko urtarrilaren 1a baino lehen erosi duten zergadunek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren 90. eta 101. artikuluetan ezarritakoa aplikatu behar dute erosketa horri dagokionez, honako berezitasunak kontuan hartuta:

a) Kenkari portzentajeak eta urteko gehieneko kenkariak, 10/2006 Foru Arauaren 90. artikuluko 1., 2. eta, hala badagokio, 4. apartatueta eta 101. artikuluko 2. apartatuko e) letran ezarritakoak izango dira, 2011ko abenduaren 31n aplikagarria zen idazketa kontuan hartuta.

b) Muga eta, bere kasuan, gutxipena, 10/2006 Foru Arauaren 90. artikuluko 3. apartatua eta 101. artikuluko 2. apartatuko e) letran ezarritakoak izango dira, 2011ko abenduaren 31n aplikagarria zen idazketa kontuan hartuta.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitakoa ohiko etxebizitza erosteari parekatutako kasu hauetan ere ezarriko da: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren 90. artikuluko 5. apartatuko a) eta c) letretako kasuak, beti ere, diru kopuruak 2012ko urtarrilaren 1aren aurretik ordaindu baziren.

Hogeita bosgarrena. Enpresa berrien edo osatu berrien kapitalizazioa hobetzeko neurrien araubide iragankorra, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginak dituzten neurrien kasuan.

Enpresa berri edo osatu berrietako akzio edo partaidetzen eskualdaketek, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren hogeita hirugarren xedapen gehigarriko baldintzak betetzen badituzte —indarrean 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera dagoen idazketaren arabera—, aipatutako xedapenaren arabera tributatuko dute, 2013ko abenduaren 31ra arte aplikagarria den idazketaren arabera.

Hogeita seigarrena. Ikerketaren eta garapenaren eremuko langile kualifikatuei aplikatuko zaien araubide iragankorra, 2012ko urtarrilaren 1aren aurretik aukeratu bazuten lekualdatzeen ondorioz zerga egoitza Gipuzkoan kokatzeagatik dagoen araubide berezia.

Foru arau honetako 4. artikuluko 3. apartatuan aurreikusitakoaren arabera —2011ko abenduaren 31n aplikagarria zen idazketaren arabera— Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergagatik tributatzea aukeratu zuten pertsona fisikoek, aukera 2012ko urtarrilaren 1a baino lehen egin bazuten, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadun izaerari eutsi bazioten, eta ez bazioten araubide horri uko egin edo ez bazituzten araubidetik baztertu, araubide berezia aplikatzen jarrai dezakete aipatutako xedapenean —eta hori garatzen duen araudian— aurreikusitakoaren arabera, aipatutako idazketaren arabera.

Hogeita zazpigarrena. Aurreikuspen entitateetatik kapital moduan jasotzen diren bigarren edo ondorengo prestazioak integratzea.

Foru arau honetako 19. artikuluko 2. apartatuko b) letran aurreikusitako % 60ko integrazio portzentajea aplikatzeko lehen prestaziotzat jotzeko, eta ondorio horietarako bakarrik, ez dira kontatuko kapital moduan 2012ko urtarrilaren 1a baino lehen jasotako prestazioak.

Aurrekoa hala izanik ere, 2012ko urtarrilaren 1a baino lehen kontingentzia berdinagatik prestazioak kapital moduan jaso badira, aurreikusitako % 60ko integrazio portzentajea aplikatu ahal izateko, bost urte igaro behar dira aurreko prestaziotik eta ordaindutako ekarpenek behar adinako aldizkakotasun eta erregularotasuna izan behar dute.

Ulertuko da ordaindutako ekarpenek behar adinako aldizkakotasun eta erregularotasuna dutela baldin eta, prestazioaren sortzaile diren ekarpenen batez besteko iraunaldia handiagoa bada denbora tarte honen erdia baino: prestazioaren dataren eta prestazioaren sortzaile den lehenengo ekarpenaren dataren artean dagoen denbora. Ondorio horietarako, ulertuko da prestazioak ekarpen zaharrenetatik datozela.

Ekarpenen batez besteko iraunaldia kalkulatzeko, ekarpen bakoitza bere iraunaldiko urte kopuruarekin biderkatu behar da lehenik, guztien batura egin, eta emaitza ordaindutako ekarpenen batura osoarekin zatitu.

Kontingentzietatik eratorritako prestazioentzako xedapen honetan ezarritakoa gaixotasun larrien kasuan eta iraupen luzeko langabezia egoeretan jasotzen diren kopuruei ere aplikatuko zaie, modu berean. Halaber, 1/2002 Errege Dekretu Legegileak onartutako Pentsio plan eta funtsei buruzko Legearen testu bateratuak 8.8 artikuluan estalitako kontingentzien

edo aurreikusitako egoeren arrazoietatik bestelakoak diren arrazoiengatik jasotako lehenengo kopuruari ere aplikatuko zaio.

Hogeita zortzigarrena. Foru arau hau indarrean sartu aurretik konpentsatzeko dauden oinarri ezargarri negatiboak eta aurreko jarduera ekonomikoen etekinetatik etorritako eta aplikatu gabeko kenkariak.

1. Foru arau hau aplikagarria den zergaldiaren hasieran konpentsatzeko dauden jarduera ekonomikoetatik etorritako oinarri ezargarri negatiboak konpentsatu ahal izango dira 65. artikuluko b) letran ezarritako epean. Epe horren hasiera izango da oinarri ezargarri negatiboak zehaztu ziren zergaldiaren hurrengo zergaldiaren hasiera.

2. Inbertsioen eta zergadunaren jarduera ekonomikoetatik eratorritako beste jarduera batzuen kenkariak ez baziren aplikatu kuota osoa nahikoa ez izateagatik foru arau hau aplikagarria den zergaldiaren hasieran, 88. artikuluan ezarritako epean aplikatu ahal izango dira. Epe horren hasiera izango da kenkariak sortu ziren zergaldiaren hurrengo zergaldiaren hasiera.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bat. Indarrik gabe geratzen dira foru arau honetan ezarritakoarekin bat ez datozen xedapen guztiak, eta bereziki, abenduaren 26ko 10/2006 Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena.

Bi. Foru arau honetan ezarritakoarekin bat datozen erregelamenduzko xedapenek indarrean jarraituko dute, arau honetan aurreikusten diren erregelamenduzko ahalmenak erabiltzen ez diren bitartean.

Hiru. Aurreko 1 zenbakian aipatzen diren xedapenak indargabetzeak ez die kalterik eragingo xedapena indarrean egon den bitartean sortutako betebeharrak direla eta zerga administrazioak dituen eskubideei.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehena. Indarrean jartzea eta ondorioak.

Bat. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean sartuko da indarrean, eta 2014ko urtarrilaren 1aren geroztiko eraginak izango ditu.

Bi. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako, foru arau hau aplikagarria izango da 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera lortzen diren errentetan eta data horretatik aurrera egotzi beharrekoetan, betiere Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren orain arteko araudiak denboraren araberrako egozpenerako jasotzen dituen irizpideei lotuta.

Bigarrena. Arauak emateko ahalmena.

Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantzako foru diputatuari baimena ematen zaie foru arau hau garatu eta gauzatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzaten.

NORMA FORAL DEL IMPUESTO SOBRE LA RENTA DE LAS PERSONAS FÍSICAS DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

PREÁMBULO

Es en relación a la tributación de las personas físicas, donde se torna especialmente imprescindible un reforzamiento de los principios de equidad, progresividad, neutralidad, transparencia y simplificación, así como el establecimiento de un mayor equilibrio entre todos ellos.

Desde el punto de vista de la neutralidad se procede a la revisión y al ajuste del tratamiento de ciertos beneficios fiscales tales como las rentas exentas, las reducciones y las deducciones, al objeto de reforzar la necesaria interrelación entre las políticas de gasto e ingreso, previa evaluación de su efectividad, eliminando duplicidades y modificando aquéllos que no se adecúan en la actualidad al objetivo perseguido con su implementación.

En lo que respecta al principio de equidad, se siguen los criterios ya emprendidos por la Norma Foral 13/2012, de 27 de diciembre, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias, que ampliaban la tarifa vigente, incorporando nuevos tramos a tipos más altos tanto en la base liquidable general como en la base liquidable del ahorro.

En relación con el principio de capacidad económica es la tributación de los rendimientos de actividades económicas, con declaración de ingresos en cuantía inferior a los realmente obtenidos y de gastos que no tienen el carácter de deducibles, la que requiere dotarse de nuevos instrumentos normativos que dificulten la ocultación de dichas rentas y el establecimiento de medidas antifraude.

Para la consecución de estos objetivos se presenta esta Proposición de Norma Foral, la cual se encuentra estructurada en catorce títulos, veintitrés disposiciones adicionales, veintiocho transitorias, una derogatoria y dos finales.

El Título I está dedicado a la naturaleza y ámbito de aplicación del impuesto. En el Título II nos encontramos con el establecimiento de un numerus clausus de aquellas rentas derivadas de fuentes de diversa naturaleza que, a pesar de constituir un verdadero índice de capacidad económica y formar parte del hecho imponible del impuesto, se han venido excepcionando de tributar por este impuesto hasta el momento por razones diversas de política fiscal.

Así, la nueva normativa mantiene el tradicional catálogo de rentas exentas en su totalidad, que son aquellas que por su reflejo social en algunos casos, entre otras, premios relevantes, becas públicas, ayudas públicas, o su carácter indemnizatorio en otros, tales como la prestación por desempleo en la modalidad de pago único, indemnizaciones satisfechas por las Administraciones Públicas, se les exime del cumplimiento de la obligación tributaria. Junto a éstas, el legislador foral refuerza el listado de aquellas rentas exentas hasta un determinado límite cuantitativo a partir del cual el importe excedente se encuentra sujeto al impuesto, incluyendo alguna, por razones de justicia social y de reparto de la carga tributaria, de las que han venido siendo tratadas como renta exenta pura, como las indemnizaciones por despido o cese del trabajador cuyo importe exento no podrá superar la cantidad de 180.000 euros tal y como se reguló en la Norma Foral 5/2013, de 17 de julio, de medidas de lucha contra el fraude fiscal, de asistencia mutua para el cobro de créditos y de otras modificaciones tributarias con efectos 1 de enero de 2014.

En el ámbito de las rentas exentas, la principal novedad que se introduce está estrechamente vinculada al objetivo permanente de lucha contra el fraude, cuyo éxito pivota,

entre otros instrumentos, en la cantidad de información sobre la capacidad económica de cada contribuyente a disposición de la Administración tributaria; información que debe comprender todas las rentas percibidas por cualquier concepto y de cualquier Administración Pública o entidad, así como las circunstancias personales y patrimoniales que le afecten y que modulen su obligación de tributar, independientemente del tratamiento tributario a que éstas se vean sometidas.

Para ello, esta Proposición de Norma Foral establece en su parte final nuevas obligaciones de información a las administraciones públicas de cualquier subvención o renta, exenta o no, a través de un modelo tributario específico de carácter informativo. De esta forma la Administración Tributaria estará en posesión de información sobre la totalidad de rentas percibidas por el contribuyente lo que coadyuvará a la lucha común junto con el resto de Administraciones públicas frente a las percepciones fraudulentas de determinadas ayudas y subvenciones.

El Título III está dedicado a los contribuyentes y el IV, el más extenso, a la base imponible, dentro de la cual se especifican las previsiones referidas a normas generales, rendimientos de trabajo, de actividades económicas, rendimientos del capital, ganancias y pérdidas patrimoniales, imputación y atribución de rentas, imputación temporal, reglas especiales de valoración, clases de renta e integración y compensación de rentas.

En materia de rendimientos irregulares, se produce una revisión general del sistema de integración de los mismos, manteniéndose los actuales porcentajes de integración reducida y manteniendo el límite cuantitativo de 300.000 euros.

En el ámbito de los rendimientos de actividades económicas y como culminación del proceso iniciado hace más de 10 años por la normativa del Territorio Histórico de Gipuzkoa de restricción paulatina del ámbito de aplicación del método de estimación objetiva, con la finalidad de acercar la tributación de los empresarios personas físicas al rendimiento real de su actividad, se deroga este método, quedando, por tanto, la determinación del rendimiento de todas las actividades económicas, a partir del 1 de enero de 2014, sometida al método de estimación directa, en sus modalidades normal y simplificada.

